



KARAKATEKO Landa Parkea Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia
Plan Especial de Protección y Ordenación del Parque de KARAKATE

ELGOIBAR

I. LIBURUKIA



0-10 DOKUMENTUAK

Behin betiko onartzeko dokumentua
2023ko URTARRILA



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

2023KO
URTARRILA



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

Karakateko Landa Parkea Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia
Plan Especial de Protección y Ordenación del Parque de Karakate
Elgoibarko Udala. 2023ko urtarrila

Erredakzio-taldea: KRIPTA SL

El presente documento ha sido impreso en papel 100% reciclado



www.blauer-engel.de/uz14



DE/011/003

Aurkibidea

I. liburukia

0 LANTALDEA	9
LANTALDEA	11
1 KONTZEPTU OROKORRAK.....	13
1.1.- KOMENIGARRITASUNAREN ETA EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA.....	15
1.2.- PLAN BEREZIAREN EREMUA	17
1.3- KBAPBren XEDE OROKORRA.....	23
1.4.- ARAU-ESPARRUA	24
1.4.1. LURRALDE-PLANGINTZATIK ERATORRITAKO GOGOETAK	24
1.4.2. INDARREAN DAGOEN PLANGINTZA OROKORRA	45
1.4.3. KBAPBren LEGE-ESPARRUA	47
1.4.4. DOKUMENTUAREN EDUKI FORMALA	53
1.4.5. KBAPB IZAPIDETZEA	56
1.4.6. INGURUMEN-PROZEDURA	58
1.4.7. HIRIGINTZA- ETA INGURUMEN-PROZEDURA	59
2 INFORMAZIO MEMORIA	61
2.1.- INGURUNE FISIKOAREN LURRALDE-ESPARRUA	63
2.2.- INGURUNE FISIKO BIOTIKOA	67
2.2.1. OROGRAFIA ETA MALDAK	67
2.2.2. GEOLOGIA-GEOMORFOLOGIA	71
2.2.3. HIDROLOGIA ETA HIDROGEOLOGIA.....	85
2.2.4. EDAFOLOGIA ETA MOTA AGROLOGIKOAK.....	93
2.2.5. KLIMATOLOGIA ETA AIREAREN KALITATEA	108
2.3.- INGURUNE FISIKO BIOTIKOA	108
2.3.1. BIOGEOGRAFIA	108
2.3.2. LANDAREDI POTENTZIALA	109
2.3.3. EGUNGO LANDAREDIA. EKOSISTEMAK ETA ZERBITZU EKOSISTEMIKOAK	113
2.3.4. BATASUNAREN INTERESEKO HABITATAK	136
2.3.5. FAUNA-ESPEZIEAK BABESTEKO EREMUAK.....	139
2.3.6. NATURA-INTERESEKO GUNEAK	141
2.3.7. KORRIDORE EKOLOGIKOAK	145
2.4.- INGURUMEN-ARRISKUAK ETA -ARAZOAK.....	149
2.4.1. AIREAREN KALITATEA ETA HOTS-KUTSADURA	149
2.4.2. ARRISKU GEOFISIKOAK	151
2.4.3. SISMIKOTASUNA	159
2.4.4. SALGAI ARRISKUTSUEN GARRAIOTIK ERATORRITAKO ARRISKUAK	159
2.4.5. BASO-SUTEEN ARRISKUAK	160
2.4.6. ENERGIA BERRIZTAGARRIEKIKO ZAURGARRITASUNA	162

2.4.7. KLIMA-ALDAKETAREKIKO ZAURGARRITASUNAREN AZTERKETA ETA ARRISKUA	169
2.5.- PAISAIA	182
2.5.1. PAISAIA-UNITATEAK	182
2.5.2. PAISAIA-INTERESEKO ZONAK	184
2.5.3. ONDORIOAK. LANDA-PARKEAREN PAISAIA-INTERESA	186
2.6.- ONDAREA.....	189
3 JUSTIFIKAZIO MEMORIA	203
3.1.- SARRERA	205
3.2.- ANTOLAMENDU-EREMUA	206
3.3.- ANTOLAMENDUAREN HELBURUAK.....	207
3.3.1. HELBURU OROKORRAK	207
3.3.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK	208
3.4.- ANTOLAMENDUKOAREN IRIZPIDE OROKORRAK	211
3.4.1. INGURUMEN-IRIZPIDEAK	211
3.4.2. IRIZPIDE KULTURALAK	212
3.4.3. IRIZPIDE SOZIALAK	212
3.4.4. IRIZPIDE EKONOMIKOAK	212
3.5.- HAPOn ANTOLAMENDU-KATEGORIAK	213
3.5.1. BABES BEREZIA	213
3.5.2. BASO-MENDIA	214
3.5.3. INGURUMEN-HOBEKUNTZA.....	214
3.5.4. TRANTSIZIOKO LANDA-PAISAIA	215
3.5.5. LUR GAINEKO UREN BABESA	215
3.6.- KBAPBren ANTOLAMENDU-KATEGORIAK	216
3.6.1. BABES BEREZIA	217
3.6.2. BASO-MENDIA	219
3.6.3. INGURUMEN-HOBEKUNTZA.....	220
3.6.4. LUR GAINEKO UREN BABESA	223
3.6.5. ERABILERA PUBLIKOKO ZONAK ETA AZPIEGITURAK.....	223
3.7.- BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK	227
3.7.1. ARRISKU NATURELEI ETA KLIMA-ALDAKETARI BURUZKOAK.....	227
3.7.2. AZPIEGITURA BERDEARI BURUZKOAK.....	229
3.8.- ERABILEREN DEFINIZIOA, ZONAKATZEAREN ARABERA.....	235
3.8.1. INGURUMENAREN BABESA	235
3.8.2. AISIA ETA JOLASA	236
3.8.3. LEHEN SEKTOREKO BALIABIDEEN USTIAPENA.....	237
3.8.4. AZPIEGITURAK	243
3.8.5. ERAIKUNTZA-ERABILERA	244
3.9.- ERABILEREN ERREGULAZIOA, ZONAKATZEAREN ARABERA	247
3.9.1. ERABILEREN MATRIZEA	249
3.10.- PROPOSAMENAK ETA JARDUKETAK.....	251
3.10.1. JARDUKETAREN DESKRIAPENA	251
3.10.2. ALTERNATIBEN AZTERKETA.....	251
3.11.- AUKERATUTAKO PLANGINTZA-TRESNAREN JUSTIFIKAZIOA	252
4 ARAUDIA.....	255
4.1.- Lehen titulua: XEDAPEN OROKORRAK	257

4.1.1. LEHEN KAPITULUA. PLAN BEREZIAREN IZAERA ETA IRISMENA.....	257
4.1.2. BIGARREN KAPITULUA. PLAN BEREZIAREN APLIKAZIO-ARAUAK	259
4.1.3. HIRUGARREN KAPITULUA. PLAN BEREZIAREN KUDEAKETA	261
4.2.- Bigarren titulua: ERABILERA ETA JARDUERAK ARAUTZEKO ARAU OROKORRAK	261
4.2.1. LEHEN KAPITULUA. LURZORUAREN ERABILEREN, JARDUEREN ETA ANTOLAMENDU- KATEGORIEN DEFINIZIOA.....	261
4.2.2. BIGARREN KAPITULUA. ERABILEREN ERREGULAZIO OROKORRA	264
4.2.3. HIRUGARREN KAPITULUA. ERABILEREN ERREGULAZIO ESPEZIFIKOA	269
4.3.- Hirugarren titulua: ERABILERA ETA JARDUEREN ERREGULAZIOA, ANTOLAMENDU- KATEGORIEN ETA BALDINTZATZAILE GAINJARRIEN ARABERA.....	271
4.3.1. LEHEN KAPITULUA. BABES EKOLOGIKO BEREZIKO EREMUAK	271
4.3.2. BIGARREN KAPITULUA. BABES ZIENTIFIKO-KULTURAL BEREZIKO EREMUAK.....	273
4.3.3. HIRUGARREN KAPITULUA. BASO-MENDI BABESLEAK	274
4.3.4. LAUGARREN KAPITULUA. NATURA-INTERESEKO EREMUETAN DAUDEN BASO- MENDIETAKO EREMUAK.....	275
4.3.5. BOSGARREN KAPITULUA. INGURUMENAREN HOBEKUNTZA EBOLUTIBOKO EREMUAK	276
4.3.6. SEIGARREN KAPITULUA. BIRSORTZEKO ESKU HARTU BEHAR DIREN INGURUMEN- HOBEKUNTZAKO EREMUAK	277
4.3.7. ZAZPIGARREN KAPITULUA. LUR GAINEKO IBILGUAK BABESTEKO ZONAK	279
4.3.8. ZORTZIGARREN KAPITULUA. ERABILERA PUBLIKOKO ZONAK ETA AZPIEGITURAK. APARKALEKUAREN INGURUA	280
4.3.9. BEDERATZIGARREN KAPITULUA. ERABILERA PUBLIKOKO ZONAK ETA AZPIEGITURAK. BIDEAK ETA BIDEZIDORRAK	281
4.3.10. HAMARGARREN KAPITULUA. BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK. ARRISKU GEOLOGIKOAK	282
4.3.11. HAMAIGARREN KAPITULUA. KLIMA-ALDAKETAREKIN LOTUTAKO BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK.....	283
4.3.12. HAMABIGARREN KAPITULUA. KORRIDORE EKOLOGIKOEI ETA NATURA-INTERESEKO BESTE EREMU BATZUEI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK.....	284

5 ANTOLAMENDURAKO ETA KUDEAKETARAKO GIDALERROAK.....	287
5.1.- KUDEAKETA ETA JARDUKETA-SISTEMAK.....	289
5.2.- PROPOSATUTAKO JARDUKETAK GAUZATZEKO EPEAK	289
5.3.- JARDUKETAK LEHENESTEA	289

6 PLAN BEREZIAREN EKONOMIA- ETA FINANTZA- BIDERAGARRITASUNAREN AZTERKETA.....	291
6.1.- EKONOMIA- ETA FINANTZA-BIDERAGARRITASUNA.....	293
6.1.1. SARRERA.....	293
6.1.2. PLAN BEREZIAREN IZAERA ARAUTZAILTIK ERATORRITAKO ONDORIOAK	294
6.1.3. JASANGARRITASUN EKONOMIKOAREN TXOSTENA EDO MEMORIA	295
6.1.4. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA	295
6.1.5. KBAPBko JARDUKETEN EKONOMIA-JASANGARRITASUNARI BURUZKO ONDORIOAK	296

7 HERRITARREN PARTE-HARTZEARI BURUZKO TXOSTENA 297

7.1.- HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA BAT EZARRI BEHARRIK EZA299

8 HIZKUNTZA-INPAKTUARI BURUZKO TXOSTENA 301

8.1.- SARRERA303

8.2.- PLANA HIZKUNTZA-INPAKTUAREN PROZEDURAREN MENDE JARRI BEHARRIK
EZA303

9 GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKO

TXOSTENA 305

9.1.- GENEROAREN IKUSPEGITIK GARRANTZIRIK EZ IZATEAREN JUSTIFIKAZIOA.....307

9.2.- GENEROAREN IKUSPEGITIK BERDINTASUNA SUSTATZEKO KBAPBean AINTZAT
HARTZEN DIREN ALDERDIAK308

10 PLANOAK 309

10.1.- INFORMAZIO MEMORIA.....311

10.2.- JUSTIFIKAZIO MEMORIA.....312

II. liburukia

11 INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA

(ZENBAKITZE INDEPENDENTEA)



0

Lantaldea



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

LANTALDEA

Karakateko Landa Parkea Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezian diziplina anitzeko talde zabal batek parte hartu du. Horrela, geografiaren, biologiaren, arkitekturaren, arkeologiaren, hirigintza-zuzenbidearen eta herritarrek parte hartzeko tekniken ezagutza-eremuak barne hartu ahal izan dira. Ikuspegi horri esker, lurraldea «ezinbesteko ingurunetzat» hartzen duen ikuspegi batetik jardun ahal izan da, hau da, gizabanakoarekin eta hura bizi den komunitatearekin elkarreragiten duten faktore natural, estetiko, kultural, sozial eta ekonomikoen multzo batetik.

KRIPTA SL enpresa honako talde honetan oinarritu da dokumentu hori idazteko:

ERREDAKZIO-TALDEA

● Raoul Servert jauna.

- Geografian lizentziaduna, Geomorfologia espezialitatean.
- Lurralde Antolamenduan eta Ingurumenean masterra.
- Ingurumen Hezkuntzan unibertsitate-diplomaduna.
- Ingurumenean eta Lurralde Antolamenduan titulua duen peritu judiziala.
- Ohorezko paisajista.
- Graduondoko eta master ikastaroetako unibertsitate-irakaslea hainbat unibertsitate publiko eta pribatutan.

Elena Alonso Zapirain andrea.

- Biologia-zientzietan lizentziaduna. Ingurumenean espezialitatea.
- Lurralde Antolamenduan eta Ingurumenean masterra.
- Informazio Sistema Geografikoetan (GIS) unibertsitate-espezialista.
- Geoinformazioaren azterketan unibertsitate-espezialista.

Nekane Azarola andrea.

- Zuzenbidean lizentziaduna.
- Jarduneko abokatua, Hirigintza eta Administrazio Zuzenbidearen espezialitatean.
- Lurralde Antolamenduan eta Ingurumenean masterra.

● **Peio J. Lozano Valencia jauna.**

- Geografian doktorea.
- Ingurumenean eta Lurralde Antolamenduan masterra.
- UPV/EHUko irakasle elkartua.

● **Guillermo Meaza Rodríguez jauna.**

- Geografian doktorea.
- Geografia Fisikoan katedraduna UPV/EHU.

Raquel Varela Ona andrea.

- Geografian doktorea.
- Irakasle-ikasketetan diplomaduna.
- Psikodidaktikan masterra.
- UPV/EHUko Ikasleen eta Gradu Amaierako Lanen dekanordea.

● **Jorge Vega i Miguel jauna.**

- Arkeologian lizentziaduna.
- Lurralde Antolamenduan eta Ingurumenean masterra.

Germán Lozano García jauna.

- Paisajismoan eta Lorezaintzan gradua.
- Informazio Geografikoko Sistemetan masterra.

Cristina Díaz Sanz andrea.

- Geografian doktorea.
- Irakaslea Gaztela-Mantxako Unibertsitatean.

LAGUNTZAILEAK

● **Asier Lozano Fernández jauna.**

- Geografian eta Lurralde Antolamenduan lizentziaduna.

Maite Goikoetxea Albizu andrea

- Geografian eta Lurralde Antolamenduan lizentziaduna.



1

Kontzeptu orokorrak



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

1.1.- KOMENIGARRITASUNAREN ETA EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA


2012ko azaroaren 29an, Elgoibarko Udalbatzak, gehiengo osoz, Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta haren Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazio Azterlana onartzea erabaki zuen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak (EAELAB) uztailaren 12an egindako 3/2012 osoko bilkuran aho batez onartu zen Elgoibarko HAPO; bertan, testua behin betiko onartzeko eskatzen diren baldintza lotesleak ezartzen dira.

2013ko martxoaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (44. zk.), Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren behin betiko onespena argitaratu zen.


Onartutako dokumentua Elgoibarko Udalaren webgunean dago eskuragarri: <https://www.elgoibar.eus/index.php/es/ayuntamiento/plan-general-de-ordenacion-urbana-pgou>

Plan Orokorrak «Karakateko Landa Parkea» izeneko eremua mugatzen du, eta Plan Berezi batera jotzen du haren araudia eta erabilera-erregimen espezifikoak ezartzeko, betiere aplikagarri zaion araudi orokorrari kalterik egin gabe.



HAPOren arabera, dokumentu honen xede den Karakateko Landa Parkea Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia idazten ez den bitartean, antolamendu-kategoriak bat etorriko dira Elgoibarko Plan Orokorraren berezko kategoriekin. Eremu horren kasuan, honako hauek dira antolamendu-kategoriak:

- Babes berezia
- Baso-mendia
- Nekazaritza eta abeltzaintza: Trantsizioko Landa Paisaia
- Ingurumen-hobekuntza
- Lur gaineko uren babesa




1.2.- PLAN BEREZIAREN EREMUA

Eremu horretan, landa-parkearen kategoriako babes-figura bat sortzea proposatzen du Elgoibarko HAPOK; udalerrriaren hegoaldeko Karakateko inguruari dagokio.


Karakateko Landa Parkea bat dator, hein handi batean, Karakate-Irukurutzeta-Agirreburu natura-intereseko eremuarekin. Landa Parkeak nabarmen handitu du natura-intereseko eremua, eta Elgoibarko udalerrriaren hego-ekialdeko erdiaren zati handi bat hartzen du.

Parkearen proposamenak honako hauek hartzen ditu barne: Karakate-Irukurutzeta-Agirreburuko natura-intereseko eremua; Elosua Plazentziako estazio megalitikoak, tumulu eta dolmen ugari dituenak; Karakate-Irukurutzeta-Agirreburuko paisaia berezi eta bikaina; Karakate-Irukurutzeta-Agirreburuko lotura-eremua; eta Izarraitz_Aizkorri-Aratz eta Izarraitz_Arno lotura-korridoreen zati bat. Era berean, bisoi europarrarentzat natura-interes handikoa den eremu bat hartzen du barne.




Karakate Babesteko eta Antolatze Plan Berezian (aurrerantzean, KBAPB) lurzoru urbanizaezineko eremu bat dago, Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean Karakateko Landa Parke gisa definitzen dena.

HAPOk horrela izendatzen duen eremuak 380 katastro-lurzati inguru hartzen ditu barne, guztiak ere jabetza pribatukoak.



Fisiografiaren ikuspegitik, eremuak Karakate-Muneta-Irukurutzeta gailur-lerroaren goiko eremua hartzen du, eta Agirreburu hegoalderantz luzatzen da (700 eta 900 m bitarteko kotak dituzte). Profila leuna da oro har, ez oso malkartsua eta harkaitz-azaleratze gutxikoa.

Substratu geologikoa arroka bolkanikoei osatzen dute (tartekatze tuparridunekin, kolore iluneko materialak), eta landaretzaz estalita daude ia guztiz. Gailur-lerroaren iparraldeko goialdean dagoen pagadia nabarmentzen da. Oso masa zahartua da, ia zurik gabea, baina balio handikoa, landaredi-masa autoktono bakarra baita koniferoen baso-plantazioen ingurune horretan.



Landa-parkeak honako hauek hartzen ditu barne: Karakate-Irukurutzeta-Agirreburuko natura-intereseko eremua; Elosua Plazentziako estazio megalitikoak, tumulu eta dolmen ugari dituen; Karakate-Irukurutzeta-Agirreburuko paisaia berezi eta bikaina; Karakate-Irukurutzeta-Agirreburuko lotura-eremua; eta Izarraitz_Aizkorri-Aratz eta Izarraitz_Arno lotura-korridoreen zati bat. Era berean, bisoi europarrarentzat natura-interes handikoa den eremu bat hartzen du barne.

Babestu beharreko figura natural horiez gain, Plan Bereziko eremuak pagadi azidofiloen gune baliotsuak ditu, eta horien ekologia-, paisaia- eta natura-balioa eztabaida ezina da.

HAPOren mugak abiapuntutzat hartuta, Plan Berezia hainbat doikuntza txiki egin ditu, dokumentu honetan ezarritako mugak osatu arte.

Karakateko Landa Parkeak 554 ha ditu guztira, hau da, udal-lurraldearen % 14,27.



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


PARQUE RURAL DE KARAKATE
KARAKATE LANDA PARKEA

MAPAREN ZENBAKIA

5

DATA

14/06/2022



SUSTATZAILEA



IDAZLE TALDEA



INFORMAZIO KARTOGRAFIKOA

Proiekzioa: UTM 30N
Datum: ETRS 89



MAPAREN ESKALA

1:10.000



Karakate Landa Parkea/ Parque rural de Karakate

1.3.- KBAPBren XEDE OROKORRA

Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasota dagoen «Karakateko Landa Parkearen» eremua antolatzea da Plan Bereziaren xede OROKORRA, Plan Orokorraren Arau Partikularrean ezarritako zehaztapenak eta helburuak garatuz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 69. eta 72. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

69. artikulua. Plan berezien esparrua eta edukia.

- 1. Plan bereziek bi esparru-mota har ditzakete antolamendua egiteko: batetik, udalerrri osoa edo udalerrriaren zati bat, lurzoru-mota bat edo gehiago hartuta, eta bestetik, plangintza orokorrak definitutako edo plan bereziak berak bere xedearekin bat etorritz zehaztutako esparru edo area jakin bat.*
- 2. Plan berezien antolamendua, hain zuzen, planon xederako beharrezko diren zehaztapenen bidez egiten da, betiere dena delako plan orokorrak, hala badagokio, ezarritakoa betez.*
- 3. Plan partzialetarako aurreikusitakoen antzekoetan formalizatuko dira plan bereziaren zehaztapenak ere; agiriaren edukia, ordea, beren xedera moldatuko dute plan bereziek. Urbanizaezin modura sailkaturiko lurzoria ukitzen badute osorik edo zatiren batean, ingurumenarekiko kaltea neurtzeko arauetan eskatzen diren agiriak ere jaso beharko dituzte.*

72. artikulua. Babes eta zaintza plan berezia.

- 1. Babes- eta zaintza-plan berezien xedea da plan orokorretan jasota dagoen antolamendua osatzea, planen zehaztapenek xede dituzten elementu naturalak edota artifizialak babesteko arauen bidez. Beharrezkoa bada, plan orokorrean jaso gabeko beste babes-arau osagarriak ere zehaztu dezake plan bereziak.*
- 2. Plan bereziak babestu eta zaindu beharreko guneak eta gauzak hauek izan daitezke: itsasertza, paisaia, hiriguneak edo landaguneak, eraikizunak, instalazioak, baratzeak, ereintzak, basoak eta ibaietako ekosistemak, eta orobat beste elementu natural edo artifizial oro ere.*
- 3. Babes- eta zaintza-plan bereziak, orobat, halakotzat kalifikatutako eta sailkatutako ondasun kulturalen babes-araubidea ere jasoko du –bakoitzaren hasierako eta deklarazioko espedienteen arabera–, eta babes-araubide hori beren helburuen arabera garatu ahal izango du.*

4. Babes- eta zaintza-plan bereziek osagai hauek izango dituzte: antolamendu xehatuari dagozkion zehaztapenak, erdietsi behar dituzten helburuen arabera agiriak, eta, gutxienez, plan partzialek eduki beharreko agiriak; eta, horiez gainera, urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruari osotasunean edo zati batean eragiten baldin badie planak, ingurumen-eragina ebaluatzeko arategiak agindutako agiriak.

Beraz, dokumentuaren azken helburua eremu horretan ezarri beharreko jarduketak eta erabilerak arautzea eta antolatzeko izango da, haren natura-, nekazaritza- eta abeltzaintza-, paisaia- eta aisia-balioak kontserbatu eta leheneratzen direla bermatzeko. Horretarako, hiri-presioa arintzen, babestutako natura-ingurune baterako trantsizioa errazten eta, integrazio-elementu gisa, landa-paisaia kontserbatzen lagunduko duten erabilerak, loturak, lurzoru-erreserbak eta garapenak ezarriko dira.

Laburbilduz, honako hauek dira Plan Berezia honetan proposatutako esku hartzeko irizpideak eta helburuak:

- Eremuko balio naturalak babestea eta berreskuratzea.
- Eremuaren landa-ezaugarriak babestea, leheneratzea eta sustatzea.
- Degradatuta dauden guneak zuzentzea edo ezabatzea.
- Natura- eta ondare-elementuak zaintzea.
- Lehen sektorearekin lotutako jarduerak sendotzea.

Parkearen antolamendua eta erabilera-erregimenaren berariazko esleipena hertsiki lotuta egongo dira Plan Berezia, Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 13. artikulua (Bigarren titulua: Lurzoruaren egituraren hirigintza-kalifikazioko erregimena) eta 23. artikulua (Hirugarren titulua: Kalifikazio orokorra eta xehatua) arabera.

1.4.- ARAU-ESPARRUA

1.4.1. LURRALDE-PLANGINTZATIK ERATORRITAKO GOGOETAK

Karakate Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia idazterakoan, honako plan edo programa hauen zehaztapenak hartu dira kontuan:

LURRALDE-ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) gainerako hirigintza-dokumentuak dokumentatzeko eta idazteko erreferentzia-esparrua dira, EAEn jarduteko oinarritzko irizpideak ezartzen baitituzte, lurralde-antolamenduari dagokionez. LAGek izaera loteslea dute maila baxuagoko plangintzako elementu guztientzat. LAGek eremu funtzionaletan banatzen dute lurraldea. Eremu horiek udalaz gaindiko plangintzarako erreferentzia dira, EAEko edo Lurralde Historikoko eta udalerriko plangintzen arteko eskala osatzen baitute. Uztailaren 30eko 128/2019 DEKRETUAREN bidez, behin betiko onartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (2019/09/24ko EHAA).

LAGen berrikuspenaren printzipio gidariak proposatutako lurralde-ereduaren deskribapenean daude garatuta. Honako hauek dira, labur azalduta:

1.- Azpiegitura berdea eta ekosistemen zerbitzuen balioespena ingurune fisikoaren antolamenduan txertatzea.

2.- Landa-habitata lurralde-antolamenduan berariaz ikusaraztea.

3.- Eraldaketa-ardatzen irudia hiri-sisteman txertatzea.

4.- Dagoeneko artifizializatuta dagoen lurzorua erabilera optimizatzea, hiri-berroneratzea eta erabileren mistotasuna sustatuz, baita mugarik gabeko hazkundera saihestea ere, hiri-hazkunderako perimetroa finkatuz.

5.- Jarduera ekonomiko berrietarako lurzorua premiei erantzun arin eta eraginkorra ematea, bereziki lehendik dagoen lurzorua berroneratu, berritu eta birdentsifikatu dadila bultzatuz.

6.- Paisaiaren kudeaketa txertatzea, lurralde-antolamendurako tresnen bitartez.

7.- Baliabideen kudeaketa jasangarriaren kontzeptua txertatzea: ura, energia-subiranotasuna, ekonomia zirkularra eta autosufizientzia lotua (lehengaien baliabideak).

8.- Mugikortasun eta logistika jasangarria sustatzea, oinezkoen eta txirrindularien mugikortasunari, modalitate anitzeko garraio publikoari eta hainbat garraiobideren konbinazioa optimizatzeari berebiziko arreta eskainiz, abiadura handiko trenaren zerbitzua erabilgarri izango den garaian.

9.- Lurraldearen antolamenduan zeharkakotzat jotzen diren gai berriak txertatzea, hala nola irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, euskara, klima-aldaketa, osasuna eta lurralde-interrelazioa.

10.- Lurralde-antolamenduaren politika publikoaren kudeaketan gobernu ona sustatzea, bereziki planei jarraipena eta ebaluazioa eginez, parte-hartzearen bidez eta administrazioa txertatuz.

• INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDU ARLOKO GIDALERROAK

EAEko lurzoru urbanizaezina txertatzeko sei **antolamendu-kategoria** ezarri dira:

- Babes berezia
- Ingurumen-hobekuntza
- Basoa
- Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala
- Mendi-larreak
- Lur gaineko uren babesa

Honako hauek dira ingurune fisikoaren antolamendu-kategoria bakoitzerako ezarritako erabileren erregimena mugatzen edo baldintzatzen duten **baldintzatzaile gainjarriak**:

1. Arrisku naturalari eta klima-aldaketari buruzkoak:

- Akuiferoen zaugarritasuna.
- Arrisku geologikoak.
- Uholde-eremuak.
- Klima-aldaketarekin lotutako arriskuak.

2. Azpiegitura berdeari buruzkoak:

- Beren ingurumen-balioengatik babestutako gunek eta Urdaibai Biosfera Erreserba.
- Korridore ekologikoak eta funtzio anitzeko natura-intereseko beste gunek batzuk.

Ingurune fisikoko erabilera potentzialak bost multzotan sailkatzen dira:

- Ingurumenaren babesa: horren barruan sartzen dira kontserbazioa, ingurumenaren hobekuntza eta jarduera zientifiko-kulturalak.
- Aisia eta jolasa: horren barruan sartzen dira aisia estentsiboa, aisia intentsiboa eta ehiza- eta arrantza-jarduerak.
- Lehen sektoreko baliabideen ustiapena: horren barruan sartzen dira nekazaritza, berotegiak, abeltzaintza, basogintza, nekazaritza-industriak eta erauzketa-jarduerak.
- Azpiegiturak: horren barruan sartzen dira garraiobideak, aireko lineak, izaera lineala ez duten zerbitzuen instalazio teknikoak, hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko gunek.
- Eraikuntza-erabilerak: horren barruan sartzen dira lehendik dauden gunetan oinarritzen diren nahiz oinarritzen ez diren hirigintza-hazkundeak, erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak, nekazaritza-ustiapenari lotutako egoitza isolatua, egoitza isolatua eta instalazio arriskutsuak.

Ingurune fisikoko erabilerak arautzen dira antolamendu-kategoria bakoitzerako eta baldintzatzaile gainjarri bakoitzerako, eta «EAEko ingurune fisikoaren antolamendurako matrizean» adierazten da.

Bertan zehazten denez, hirigintza-plangintzak, lurzoru urbanizaezina arautzean, kategorien eta baldintzatzaile gainjarrien mugaketa doituko du, baita lurralde-plangintzan ezarritako erabileren erregulazioa ere, eta categoria, baldintzatzaile eta erabilera-erregimen horiek birdoitzeko aukera izango du, udalerrri bakoitzaren baldintzetara eta lan-eskalara egokitzeko. Edonola ere, hirigintza-plangintzari dagokio aipatutako kategorien eta erabilera-erregimenaren azken doikuntza egitea.

• PAISAIAREN ARLOKO GIDALERROAK

LAGek paisaiari buruzko gomendio-mailako zenbait gidalerro ezartzen dituzte. Gidalerro horiek KBAPB barruan sartzen dira, honako hauei dagokienez:

– Lurraldearen gaineko jarduketak haren morfologiara eta, zehazki, topografia mantentzeko egokitzea, landaredia eta zuhaitzi klimazikoak mantenduz, honako neurri hauek kontuan hartuta:

- a) Elementu nagusien gainean edo mendi-gailurretan, itsaslabarren ertzetan eta lurreko gunegorenetan ez eraikitzea.
- b) Lurren malda naturala ez aldatzea, mendi-hegalei eta erliebearen irtenguneei eutsiz, eta hormak, zuhaitz-lerroak eta bide tradizionalak desagertzea saihestuz, adibidez.
- c) Eraikinak, lurzatiak, bide-sarea eta azpiegiturak lurraren topografiara egokitzea, ahal izanez gero, mugarriak, lehendik dauden goragune topografikoak eta paisaia-elementu bereziak babestuz, elementu berriak lehendik daudenak baino gehiago nabarmendu ez daitezten.
- d) Landaredia eta baso naturalak mantentzea, lurraldearen kalitatea islatzen duten tamaina handiko zuhaitzen presentzia bultzatuz eta baso naturaletako espezie bereizgarrien hazkuntza bultzatuz.
- e) Landa-eremuetako nekazaritza-paisaia bereizgarriak kontserbatzea, hala nola landazabalak, mahastiak, baratzeetako laboreak eta zuhaitziak, paisaiaren aniztasunari ekarpen handia egiten diotelako, betiere testuren nahasketari eta erabilera-mosaikoak egiten duen geometria bereziari arreta berezia eskainiz, lurralde-ingurune horiek berezi egiten dituen heinean.
- f) Lehendik dagoen landaredia desagertzen bada, konpentsazio-neurri jakin batzuk ezartzea, lurren testura eta baso-masa kontserbatzeko eta paisaia naturala eta landare-estalkia kontserbatzeko, eta espezie autoktonoak, edo, hala badagokio, historikoki ekoizpen- eta biziraupen-bitarteko tradizionalei lotuta egon izan direnak indartzeko.
- g) Landaredi autoktonoa berreskuratzea, zuhaitzik gabeko guneeetan eta espezie exotikoen ustategietan batez ere.

h) Espezie bakarreko plantazio handiak saihestea, baso autoktonoa leheneratzeko zonekin konbinatuz, espezie autoktonoak eta errekek babesteko zerrendak behar bezala errespetatuz.

– Historia- eta kultura-ondarea sustatzea, narratiba komunen bidez oroimenezko lekuak lotzen lagunduko duten proposamen irekien bidez.

– Kultura-bideei balioa ematea eta ibilbide, bide eta begiratokien sare bat sortzea (kostaldeko ibilbideak barne), herritarrek paisaiarako sarbidea izan dezaten, honako neurri hauek kontuan hartuta:

a) Ibilbideetan ondare-intereseko ondasunak eta tokiak sartzea, baita instalazio eta azpiegitura historikoak ere; gainera, ibilbide tematikoak ezarri ahal izango dira. Bista politikak dauden tokietan begiratokiak sustatzea.

b) Kostaldeko ibilbideak integratzea, oinezkoen eta txirrindularien erabilerarako egokituz eta seinaleak jarritz, itsasertzeko paisaia hautemateko oinarrizko elementuak diren heinean.

c) Ahal den neurrian, ibilbide eta begiratoki horietatik bistak ez oztopatzea.

• **ONDAREAREN ARLOKO GIDALERROAK**

Hirigintza-plangintzak honako irizpide hauek hartu beharko lituzke kontuan:

a) Ondasunaren eta haren lurralde-ingurunearen arteko lotura islatzea, kultura-ondasuna babestean nahiz ondasunaren inguruko gunean erabilerak antolatu eta programatzean.

b) Ondasuna kargak eta onurak berdinbanatzeko aukera ematen duen hirigintza-eremu batean sartzea.

c) Ondasuna bere jatorrizko lekuan mantentzea, ezinbesteko eta interes sozialeko arrazoiak daudenean izan ezik.

d) Kultura-ondasuna bere osotasunean babestea.

• **NATURA-ONDAREAREN ARLOKO GIDALERROAK**

LAGek natura-ondarearen arloko gomendio-mailako zenbait gidalerro ezartzen dituzte. Gidalerro horiek KBAPB barruan sartzen dira, honako hauei dagokienez:

– Lurraldearen gaineko jarduketak egokitzea, EAEko azpiegitura berdea sendotzeko.

- Biodibertsitatearen aldagaia lurralde- eta hirigintza-plangintzan txertatzea, natura-ondareak (geodibertsitateak barne) gizar-teari, ekonomiari, ingurumenari eta kulturari dakartzkion onurei balioa emanez.
- Naturan oinarritutako soluzioak aplika daitezela sustatzea, soluzio horiek ekosistemen funtzionamendua hobetzeko, biodibertsitatea areagotzeko, jendea bizi den guneen erresilientzia hobetzeko eta biztanleriaren osasuna eta ongizatea hobetzeko aukera ematen dutelako.
- Lurraldea zaintzeko akordioak eta gizartea lurraldeko biodibertsitatearen kontserbazioan inplikatzeko sustatu eta onartzeko beste tresna batzuk sustatzea.

EIBARREKO (DEBABARRENA) EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE PLAN PARTZIALA

2005eko apirilaren 12an, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak Eibarreko (Debabarrena) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzial hau onartu zuen 86/2005 Dekretuaren bidez (2005eko ekainaren 6ko EHAA, astelehena).

• INGURUNE FISIKOAREN LURRALDE-EREDUA

Ingurune Fisikorako Lurralde Eredua landa-lurzorua zonakaturik zehazten da, erabilera arrazionalerako gaitasuna, garatzeko potentzialtasuna, hobekuntza naturala eta ekologia- eta paisaia-intereseko balioen babesa kontuan hartuta.

Kategoria horien definizioa Lurralde Plan Partzialaren (LPP) proposamen-zati gisa ezartzen da kapitulu honetan, eta honako gogoeta hauek jasotzen ditu:

a. *Zaindu edo babestu beharreko garrantzi bereziko eremuak (lotesleak).*

Honako hauek dira, KBAPBren kasuan:

BABESTU BEHARREKO EREMUAK:

- *Natura-intereseko eremuak: beste gune interesgarri batzuk.*
 - **Karakate-Irukurutzeta-Agirreburu mendiak** (Elgoibar-Soraluze)

INTERES ZIENTIFIKO-KULTURALEKO EREMUAK

- *Kultura-intereseko elementuak. Historiaurreko aztarnategi arkeologikoak.*
 - **Irukurutzeta dolmena. Elgoibar.**
 - **Naasiko Goena tumulua. Elgoibar-Soraluze.**
 - **Pagobedeinkatu tumulua. Elgoibar-Soraluze.**
 - **Aizkoin tumulua. Elgoibar-Soraluze.**
 - **Atxolin Txiki tumulua. Elgoibar-Soraluze.**

- **Atxolin dolmena. Elgoibar-Soraluze.**
- **Iruiya dolmena. Elgoibar-Soraluze.**

b. Ingurune fisikoaren kategorizazio orokorraren zonakatzea (orientazio qisa).

Antolamendu-kategoriak

- **Babes bereziko zonak:** Gaur egun hobekien kontserbatuta dauden baso autoktonoak eta Debabarreneko ingurumen-aniztasunaren adierazgarri diren ekosistema berezien aztarnak dituzten eremuak sartzen dira. Kategoria honetako zonetan mugatu egiten da gizakiaren esku-hartzea, eta egungo ustiapen-prozesuak kontserbazio-helburuetara egokitzen dira. Gainera, ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko neurri espezifikoak bultzatzen dira.
- **Ingurumena hobetzeko zonak:** Gaur egun baso natural degradatuak eta larre, sastraka eta bestelako formazio marjinaletako landareak dituzten eremuak sartzen dira, kontuan hartuta horien egoera topografikoagatik eta potentzialtasun naturalagatik Babes Bereziko kategoriarekin pareka daitezkeen komunitateetara eboluziona dezaketela, ingurune horiek leheneratuz eta hobetuz. Eremu horietan mugatu egiten da gizakiaren esku-hartzea, eta ingurumen-kalitate eta kalitate ekologiko handiagoko formazioetarantzko bilakaera naturalaren alde egiten da. Horrenbestez, ekosistema kontserbatzeko eta leheneratzeko jarduerak bultzatzen dira.
- **Mendi-larreetako zonak:** Kategoria honetan sartzen dira larre naturalak dituzten mendiguneetako gune irekietako artzaintza-paisaiak. Abeltzaintza-jarduera estentsibo jasangarria mantentzera bideratuta daude, mendiko basogintza eta artzaintzako sistema tradizionalak kontserbatzeko estrategia orokorraren barruan. Ingurune konplexu horietan, natura kontserbatzeko, paisaia eta baliabide hidrológicoak babesteko, eta abeltzaintza estentsiboa eta atsedenerabilerak antolatze baterako jarduerak sustatuko dira.
- **Lur gaineko urak babesteko zonak:** Kategoria honek lur gaineko drainatze-sistemak eta uraren, ibai-ibilguen eta ibaiertzen ingurumen-kalitatea babestea du helburu. Eremu horietan mugatu egiten dira okupazio eta ustiapeneko erabilerak, leheneratzeko jarduerak sustatzen dira eta azpiegitura hidraulikoak hobetzeko eta instalatzeko jarduerak ahalbidetzen dira, betiere ingurumena errespetatzeko irizpideak kontuan hartuta.
- **Baso-zonak:** Beren bokazio naturalaren ondorioz, ekoizteko ahalmena basogintzako etengabeko baso-erabilera eta -ustiapenera mugatuta dauden lurak sartzen dira, baita egungo masak eta erabilera mota hori ingurumen-baldintzak narriatu gabe har ditzaketen beste lursail batzuk ere.

- **Nekazaritza eta abeltzaintzako landazabaleko zonak:** Ahalmen agrologiko handieneko lurzoruak sartzen dira, neurri handi batean euskal baserriko polilaborantza atlantikoko landazabalaren mosaikoko paisaiekin pareka daitezkeenak. Zona horiek nekazaritzarako lurzorurik onenak babestera bideratuta daude, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerarik produktiboenak mantendu ahal izateko.

Baldintzatzaile gainjarriak

Kategoria-multzo honetan sartzen dira gainazal jakin batzuk, horiek definitzen dituzten ezaugarrien arabera, eragin dezaketen arriskuagatik baldintzatuta eta mugatuta daudenak.

- **Akuiferoen zaurgarritasuna:**
 - *Lurpeko akuiferoak.*
 - *Lur gaineko akuiferoak:* bereziki kontrolatu beharreko jarduerak izango dira kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak: zabortegiak kokatzea, hondakinak biltegitratzea, industriak eta abar; produktu kimikoen erabilera (ongarriak, zoosanitarioak, pestizidak, herbizidak); eta abeltzaintza intentsiboa, eta mindak, simaurra eta abar maneiatzeko instalazioak. Bestalde, basoen kudeaketa eta lurzoruen erabilera kontrolatuko dira, urak arazteko eta infiltrazio naturala moteltzeko landare-estalkiak irauten duela ziurtatzeko, baita drainatze-sare naturala mantentzea eta berreskuratzea ere, ura hustubide naturaletara eta iturburuak berriz kargatzera eramaten duena.
 - *Higadura-arriskua duten eremuak.* Izarraizko mendiguneko eta inguruetako sektorea, eta barrualdeko haranak erdialdeko tartean (Elgoibar-Ermua).
 - *Uholde-arriskua duten eremuak.*
 - *Babes-erregimenak dituzten eremuak eta elementuak.*

KBAPBek Karakate-Irukurutzeta-Agirreburu (Elgoibar-Soraluze) natura-intereseko eremua hartzen du barne bere antolamendu-kategorietan, baita interes zientifiko-kulturaleko eremuak ere:

- **Natura-intereseko eremua:** eremu honetan sartzen diren kategoriak adieraziz eta bertan natura-ingurunea kontserbatzeko eta birsortzeko erabilerak bultzatuz. Era berean, babes bereziko kategoriako baso naturalen eremuak jasotzen ditu, ahalik eta gehien babestuz.
- **Interes zientifiko-kulturaleko eremuak:** babes bereziko kategorian sartuta daude.

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


DEBABARRENA LZP - BABESTU ETA HOBETU
BEHARREKO GARRANTZI BEREZIKO ESPARRUAK
PTP DEBABARRENA - ÁMBITOS DE ESPECIAL
RELEVANCIA A PROTEGER Y MEJORAR.

MAPAREN ZENBAKIA

32

DATA

27/06/2022



SUSTATZAILEA



IDAZLE TALDEA




INFORMAZIO KARTOGRAFIKOA

Proiektzioa: UTM 30N
Datum: ETRS 89



MAPAREN ESKALA

1:10.000



Interes zientifiko eta kultureko eremuak / Áreas de interés científico y cultural

● Yacimientos arqueológicos prehistóricos

▲ Áreas de interés geológico y geomorfológico

Natura intereseko eremuak / Áreas de interés naturalístico

▨ Natura intereseko eremuak / Áreas de interés naturalístico

Baso naturalak / Bosquetes naturales

■ Baso naturalak / Bosquetes naturales

Nekazaritza intereseko eremuak / Áreas de interés agrario

■ Nekazaritza intereseko eremuak / Áreas de interés agrario

IBAIK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA (LPS)

Abenduaren 28ko 455/1999 DEKRETUAREN bidez onartu zen behin betiko, eta azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuak aldatu zuen (abenduaren 12ko EHAA, 236. zk.). Honako hauek dira LPS hori idazteko irizpide orokorrak, gure lurraldeko ibai, erreka eta urtegien ertzetan babes-zona batzuk ezartzeko beharra oinarritzen dutenak:

- Uren kalitatea kontserbatzea eta/edo berreskuratzea.
- Gutxieneko emari ekologikoa mantentzea.
- Ibaien eta erreken ibilguak ez okupatzea.
- Uholdeek eta arrisku naturalek eragindako kalteak minimizatzea.
- Ingurumen-interes berezia duten ibilgu-zatien ezaugarriak kontserbatzea.
- Kultura-ondarearen elementuak zaintzea.
- Ibai-ibilguak hiri-garapeneko zonetan integratzea.

LPSaren aldaketak arau-dokumentuaren idazketa osoa jasotzen du, eta honako hauek nabarmendu behar dira: osagai hidraulikoari dagokiona (E kapitulua), definizio terminologikoen epigrafe bat eta garrantzi txikiagoko hainbat doikuntza. LPSko eranskinetan, ur-ibilguen tramifikazioa xehatzen da eta azterlan hidraulikoetarako diseinu-baldintza tekniko batzuk jasotzen dira.

LPS honen aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoko ur-ibilgu guztien alde bakoitzean kokatutako 100 metroko zabalera lurzoru-zerrenden multzoa da, Kantauriko isurialdean nahiz Mediterraneoan isurialdean, baita urtegi, laku eta aintziren inguruan kokatutako 200 metroko zabalera lurzoru-zerrendak ere.

LPSaren aplikazio-eremua zabaldu egingo da kasu jakin batzuetan, baldin eta Uren 1/2001 Legearen testu bateginaren 6.2 artikuluan aipatutako arrazoiren bat gertatzen bada, baita uholde-erregimenean urpean gera daitezkeen zonetan ere, ibai-tarte jakin baten ertzetako batean 100 metroko zabalera gainditzen bada.

Ibaien eta erreken ertzak antolatze LPSaren aldaketak hiru kategoria ezartzen ditu bere antolamendu-ereduan, hark dituen osagaien arabera:

• ERTZAK INGURUMEN-OSAGAIAREN ARABERA ZONAKATZEA

Honako hauek dira ingurune fisikoa babesteko zonak: haien balio ekologiko, paisajistiko, produktibo eta zientifiko-kulturalagatik babestea komeni den eremuak; higadura edo akuiferoen kutsaduraren gisako arrisku jakin batzuen aurrean babestu behar direnak; edo ingurunearen berezko joerarekin bateraezinak diren erabilera edo jarduerengatik degradatuta geratu direlako leheneratu egin behar direnak. Lau zona berezi bereizten

dira, kualifikazio berezirik gabeko zonez gain, azken horiek ere ingurumena babesteko oinarritzko politika orokor baten xede izan beharko baitute:

– **Lehentasunezko natura-intereseko zonetako ertzak.** Lehentasunezko natura-intereseko zonatzat hartzen dira:

- Parke natural edo biotopo babestu izendatutako zonak.
- Urdaibai Biosfera Erreserbako eta Txingudiko Baliabide Naturalak Babesteko eta Zaintzeko Plan Bereziko eremuak.
- «Natura 2000» Europako Sare Ekologikoan sartuta dauden lekuak.
- EAEko Intereseko Espazio eta Enklabe Naturalen Katalogoan jasotzen diren Lehentasunezko Natura Intereseko Eremuak, LAGetan Natura Intereseko Eremu gisa jasota daudenak.


KBAPB barruan, Antziola erreka azken zatia izango litzateke.



Ur-ibilguak arro hidraulikoka banatzea:

Honako hau da KBAPBren eremuan dauden eta urak Gipuzkoako itsasertzera isurtzen dituzten ibaien kasuan:

- **0 mailako tartekak:** erreka edo erretenak, 1 eta 10 km² bitarteko isurtze-arroa duten ur-ibilguak. Ermuaranerreka eta Antziola erreka.



- **Landa-eremuko ertzak:** hiriarteko komunikazio-azpiegiturek okupatzen ez dituzten hirigintza-garapenik gabeko ertzak dira. Ertz horiek hirigintza-plangintzan Urbanizaezin gisa sailkatutako lurzorua izaten dira, oro har. KBAPB barruan, Antziola erreka izango genuke.



Zonakate-irizpide horien arabera, eta osagaiak kontuan hartuta, honako hau da aplikatu beharreko araudia:

Landa-eremuko ertzetarako araudi espezifikoa.

1.- Hirigintza-osagaiaren arabera landa-eremuko ertz gisa hartutako ertzetan nahitaez errespetatu beharko da gutxienekiko ubide-atzerapena, ibai-ibilgu publikoaren mugatze-lerroarekiko edo itsasertzeko barruko mugarekiko:

- **15 metro** $1 < C \leq 0 \text{ km}^2$ isurtze-arroa duten erreken kasuan (**0 mailako tartekak**).
- Bestalde, Uren Legean ezarritakoa aplikatuko da 1 km^2 -tik beherako isurtze-arroa duten jariatze-uren edo ur-ibilguren kasuan (**00 mailako tartekak**).

Ubide-atzerapen horiek lursail naturala aldatzeko edozein esku-hartzetan aplikatuko dira (eraikinak, edozein motatako instalazio edo eraikuntzak, finkoak zein desmontagarriak, lur-berdinketak eta lur-mugimenduak, etab.), baina ez nekazaritzako eta basogintzako lanetan, herri-lanetan eta onura publikoko eta gizarte-intereseko azpiegituretako instalazioei dagozkien lanetan, edo kultura-ondarea babesteko behar bezala justifikatutako ekintzetan.

Dena den, udal-plangintzak, lehendik dauden baserrien osagarri diren eraikinak eraikitzeko, goian aipatutako zerrendetatik kanpo eraiki ezin daitezkeela frogatzen denean, eraikuntza hori zein baldintzatan gauzatu ahal izango den ezarri ahal izango du, lehendik dagoen eraikinarekiko ibilgura ez hurbiltzeko irizpidearen arabera.

2.- Lehenengo puntuan ezarritako muga orokorren osagarri gisa, ibilguren alde bakoitzean 100 metroko zabalera duen banda batean lurzoru urbanizaezinaren berezko eraikuntzak, jarduerak eta erabilerak bakarrik ahalbidetuko dira.

3.- *Lehentasunezko natura-intereseko zonetan edo ondo kontserbatutako landaredia duten landa-eremuko ertzetan*, egungo baldintza naturalak alda ditzaketen esku-hartze guztiek ingurune fisikoaren ezaugarriak mantentzen direla bermatu beharko dute. Kasu guztietan, natura-ingurunea eta, hala badagokio, kultura-intereseko ondarea ahalik eta gehien errespetatzea eskatu beharko da, baita eragin daitezkeen inpaktuak zuzentzeko neurriak hartzea ere, betiere 1. puntuan ezarritakoari jarraikiz.

4.- Landa-eremuan ertzak dituzten ibilguetan ez da aldaketarik, estaldurarik edo artezketa artifizialik egingo trazaduran, dagokion agintaritza hidrauliko eskudunak uholdeak prebenitzeko edo herri-lanak eraikitzeko eska ditzakeen esku-hartzeetan salbu. Arau orokor gisa, kasu horietan ingeniarietza «biguneko» soluzioak hartuko dira, eta ur-bazterreko landaredia galtzea, ur-lamina gehiegi zabaltzea eta sakabanatzea, eta ibai-ohea homogeneizatzea saihestuko da.

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


ZONIFICACIÓN DEL PTS RÍOS Y ARROYOS
IBAI ERREKEN LPS ZONIFIKAZIOA

MAPAREN ZENBAKIA

33

DATA

30/06/2022



SUSTATZAILEA



IDAZLE TALDEA




INFORMAZIO KARTOGRAFIKOA

Proiektzioa: UTM 30N
Datum: ETRS 89



MAPAREN ESKALA

1:10.000



Componente medioambiental / Ingurugiro osagaia

- Márgenes con necesidad de recuperación / Birjaso beharreko ertzak
- Zonas de interés naturalístico preferente / Lehentasunezko interes naturalistikoko guneen ertzak
- Zonas con vegetación bien conservada / Landaretza egoera onean duten ertzak

Componente urbanística / Hirigintza osagaia

- Márgenes en ámbitos desarrollados / Eremu garatuetan dauden ertzak
- Márgenes en ámbito rural / Landa-ereumuko ertzak
- Márgenes ocupadas por infraestructuras de comunicaciones interurbanas / Hiritarteko komunikabideen azpiegiturek hartutako ertzak
- Márgenes con potencial de nuevos desarrollos urbanísticos / Hirigintza-garapen berriak izan ditzaketen ertzak

Componente hidráulica / Hidraulika osagaia

- R-400A600
- R-200A400
- R-10A50
- R-1A10

NEKAZARITZA ETA BASOZAINTZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA (LPS)

Plana irailaren 16ko 177/2014 DEKRETUAREN bidez onartu zen behin betiko (2014ko urriaren 17ko GAO), Gidallerroetako Ingurune Fisikoaren Antolamendu Kategorien garapen gisa, eta honako kategoria hauek ezartzen ditu:

- Nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabalekoa, balio estrategiko handikoa
- Nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabalekoa, trantsizioko landa-paisaia
- Basoa – mendi mehatza
- Basoa
- Mendi-larreak
- Mendi-larreak – harkaitzak
- Ingurumen-hobekuntza
- Lur gaineko uren babesa

Planak, halaber, LAGetako Ingurune Fisikoaren Antolamendurako Matrizea zehazten du, erabilerak egokiak, onargarriak edo debekatuak diren kontuan hartuta zenbait kategoriaren arabera arautuz.

EAEko Lurraldea Antolatzeko Legearen arabera, **LPS honen loturek** ondoren adierazten den moduan **izango dute eragina udal-plangintzan**:

• ARAUDIARI DAGOKIONEZ

a) Udal-plangintzak lurzoru urbanizaezina zenbait kategoriatan sailkatuko du. Horretarako, plan honetan jaso eta 46. artikuluan definituta dauden kategoriak erabiliko ditu, LAGek definitutako Babes Berezia kategoriaz gain (ez da jasotzen LPSan, aipatu artikuluan adierazitako arrazoiengatik).

b) Udal-plangintzak berariaz jaso beharko ditu Nekazaritza eta Abeltzaintzako Lurzoru Urbanizaezina eta Balio Estrategiko Handiko Landazabala zonei (Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak definituta) lotutako mugaketa eta araudia. Mugaketa hori udal-plangintzak zabaldu ahal izango du, LPS honen helburu orokorrak argudiatuta.

c) Udal-plangintzak, gainera, baldintzatzaile gainjarri gisa jaso beharko ditu onura publikoko mendien eta mendi babesleen arau-izaera eta mugaketa.

d) Kategoria bakoitzean sartu beharreko erabileren erregimena bat etorriko da plan honekin. Zehazki, balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintza nahiz landazabal gisa kalifikatutako eremuetan, udal-plangintzak ezingo du ahalbidetu aurrez

sortutako gunetan oinarrituta ez dagoen hazkunderik, LPParen berariazko definizioa izan ezean.

e) Udal-plangintza, lurralde-plangintza eta plangintza sektoriala idazteko eta onartzeko izapideetan, nekazaritza-sektorearen gaineko eragina ebaluatzeko protokoloa erabiliko da, LPS honetako «Jardun-tresnak» I. eranskineko D dokumentuaren arabera. Nekazaritza-gaietan eskumena duen foru-organoaren txostena izan beharko da betiere, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 2008ko abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 16. artikuluan xedatuta dagoen bezala.

• **ANTOLAMENDU-PLANOEI DAGOKIENEZ**

a) Udal-plangintzak jasotako Lurzoru Urbanizaezina kategoriak Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak III. kapituluan (Antolamendu-kategoriak) aurreikusi bezala proposatutako antolamendu-kategoriak oinarri gisa hartuko ditu, eta, hala egokitzuz gero, mugaketa udal-errealitate eta -eskalara egokituko du.

b) **Balio Estrategiko Handia** azpikategoriaren mugaketa **loteslea** izango da. Gainerako mugaketak orientagarriak dira, eta udal-plangintzak ongi arrazoituta aldatu ahal izango ditu.

c) **Onura publikoko mendien eta mendi babesleen mugaketa loteslea** izango da, eta haien legeria sektorialean jasotako moduan eta prozeduren arabera soilik aldatu ahal izango da.

Antolamendu-kategoriak mugatzeko, LPSak zehaztutako antolamenduan oinarritu da KBAPB, eta kategoria horietako erabileren esleipenak bat datoz hark ezarritako erregulazioarekin.

Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak baso gisa sailkatzen du Karakateko Landa Parkearen ia eremu osoa.

Kasu honetan, Plan Bereziak zehaztasun handiagoarekin aztertzen du landa-parkearen lurralde-errealitatea, eta hainbat antolamendu-kategoria ezartzen ditu, eremua garapen jasagarria bermatuz babesteko eta antolatzeko.

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA



PTS AGROFORESTAL
BASOGINTZA ETA NEKAZARITZAKO LAP

MAPAREN ZENBAKIA

34

DATA

30/06/2022



SUSTATZAILERA



IDAZLE TALDEA




INFORMAZIO KARTOGRAFIKOA

Proiektzioa: UTM 30N
Datum: ETRS 89



MAPAREN ESKALA

1:10.000



- | | |
|--|--|
| Agroganadera: Paisaje Rural de Transición / Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Trantsiziozko Landa Paisaia | Áreas erosionables / Eremu higigarriak |
| Agroganadero: Alto valor estratégico / Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua | Área de interés naturalístico / Interes naturalistikoko eremua |
| Forestal / Basoa | |
| Forestal-Monte Ralo / Basoa-Mendi Urria | |
| Mejora Ambiental / Ingurumen Hobekuntza | |

1.4.2. INDARREAN DAGOEN PLANGINTZA OROKORRA

Elgoibarko udalerriko antolamendu integralaren dokumentuak honako hauek hartzen ditu barne: Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, 2012ko azaroaren 29an Udalbatzak gehiengo osoz onartua, eta dagokion Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazio Azterlana.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak uztailaren 12an egindako 3/2012 osoko bilkuran aho batez onartu zen Elgoibarko HAPOn inguruko erabakia; bertan ezartzen dira testua behin betiko onartzeko eskatzen diren baldintza lotesleak.

2013ko martxoaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (44. zk.), Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren behin betiko onespena argitaratu zen.

KBAPBren xede den azalera guztia lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dago HAPOn. Elgoibarko lurraldea 8 antolamendu-kategoria hauetan banatzen da, Lurzoru Urbanizaezinaren antolamendu eta kudeaketari dagokionez:

Ep.- Babes berezia. Babes-zonak dira natura- eta zientzia-balio garrantzitsuak dituzten eremuak eta hauskortasun handiko eremuak, bertan dauden flora-, fauna- eta/edo kultura-agerpenengatik; izan ere, azken horien ondorioz proposatu zaie babes bereziko kategoria bat, eta horrek murrizketa handiak ezartzen ditu horien erabileran.

Mf.- Baso-mendia. Balio ekologiko potentziala izan dezaketen arren, natura-balio handiko ekosistematik ez duten eremuak dira. Hala ere, basogintzarako balio nabarmena dute. Kategoria honetan sartutako lursailek zuhaitz-estalkia mantentzeko joera argia dute, gehienetan gaur egungo erabileragatik eta, batzuetan, erabiltzeko bokazioarekin lotutako arrazoiengatik (arriskuak, arrozen babesak eta abar). Espezie aloktonoen plantazioak hartzen ditu barne; horien artean, *intsinis pinua* nabarmentzen da, hark hartzen duen hedaduragatik.

Ma.- Ingurumen-hobekuntza. Ingurumen-hobekuntzaren kategoria honetan sartzen dira, degradazio-prozesuen eraginez, potentzial ekologikoaren zati handi bat galdu duten eremuak. Eremu horietan ingurumena leheneratzeko lanak egin behar dira, haien kalitatea hobetu ahal izateko.

ACpr.- Nekazaritza nahiz abeltzaintza eta landazabala. Trantsizioko landa-paisaiaren azpikategoria. Aurreko azpikategoriakoek baino ekoizteko ahalmen txikiagoa duten eremu landatuak dira (malda handiagokoak), edo belardiz eta haiekin mosaikoa osatuz ageri diren baso-unada txikiz estalitako landazabaleko eremuak. Balio estrategiko

handiko nekazaritza- eta abeltzaintza-zonei edo baso-zona zabalei atxikita egoten direnez, oro har, bi erabilera horietako bat izaten dute.

ACae.- Nekazaritza nahiz abeltzaintza eta landazabala. Nekazaritzako erabilera estrategikoaren azpikategoria. Nekazaritza-sektorerako ikuspegi estrategikotik garrantzia duten lekuak dira; horrenbestez, lehentasunez jotzen da eremu horietan erabilera horiek mantentzea eta babestea, beste erabilera batzuen aurrean. Multzo horretan sartzen dira gaitasun agrologiko handiena duten lurzoruak nahiz nekazaritza-ustiapenerako lurzoruak, sektorearentzat estrategikotzat jotzen badira haien modernitate, errentagarritasun edo jasagarritasunagatik.

Pas.- Lur gaineko uren babesa. Elgoibarko ibaiak eta errekek eta horiei dagokien babes-zonak osatzen dute kategoria hau, eta EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPSan dago jasota.

Prk.- Karakateko landa-parkea. Eremu horretan landa-parkearen kategoriako babes-figura bat sortzea proposatzen du Elgoibarko HAPOk; udalerraren hegoaldeko Karakateko inguruari dagokio. HAPOk Plan Berezi batera jotzen du haren araudia eta erabilera-erregimen espezifikoa ezartzeko, betiere aplikagarri zaion araudi orokorrari kalterik egin gabe.

Csp.- Baldintzatzaile gainjarriak. Kategoria honetan, beste antolamendu-kategoriei gainjarriz jarduten duten baldintzatzaile gainjarri batzuk kartografiatzen eta definitzen dira. Horiek jarduera jakin batzuk garatzeko modua mugatzen dute, kasu bakoitzean dagoen arrisku motaren arabera.

Karakateko Landa Parkearen barruan, eta KBAPB onartu bitartean, erabilera-mugak aplikatuko dira, ordezkaturako antolamendu-eremu bakoitzaren arabera. Honako hauek dira:

- Babes berezia
- Baso-mendia
- Nekazaritza eta abeltzaintza: Trantsizioko Landa Paisaia
- Ingurumen-hobekuntza
- Lur gaineko uren babesa

Eta, jakina, HAPOn jasotako baldintzatzaile gainjarriak.

Antolamendu-kategorien erabileren erregulazioari dagokionez, B1 dokumentuaren (Hirigintzako arau orokorrak) bigarren tituluko (Lurzoruaren egituraren hirigintza-kalifikazioko erregimena) 12. eta 13. artikuluetan, lurzoru urbanizaezinean ezar daitezkeen erabilerak zehazten dira.

Bestalde, «C. NEKAZARITZAKO INGURUAK» ataleko 23. artikuluko 3. puntuak lurzoru urbanizaezineko erabileren erregimena ezartzen du, lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-matrizearen bidez.

Horregatik guztiagatik, plangintza orokorraren dokumentuak berak eta HAPOn jatorria duten baldintzatzaile gainjarriek mugaketa doitu edo osa dezakete antolamendu xehatuaren bidez.

1.4.3. KBAPBren LEGE-ESPARRUA

KBAPB hau egiteko lurralde-antolamenduaren arloan eta ingurumen-arloan indarrean dagoen araudia hartu da kontuan.

Maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoak, Euskadiko lurralde-antolamenduaren oinarritzko ildoak ezartzen ditu, baita antolamendu-tresnak eta lurraldean eragina duten ekintzak koordinatzeko beharrezkoak diren irizpideak eta prozedurak zehazten eta arautzen dituen esparru juridikoa ere.

Ingurumen-arloko araudiak ingurumen-helburuetara bideratzen du plana hasiera-hasieratik; helburu horiek plangintzakoekin integratzen ditu, jasangarriagoa izan dadin.

Ingurumen-araudia betez, KBAPB hau egiteaz gain, Planen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozedurari buruzko dokumentazioa idatzi da, eta 9. dokumentu gisa erantsi zaio.

KBAPBren lege-esparrua osatzen duen arau-multzoa jarraian aipatzen diren araudietan txertatuko da azken finean.

Europako legeak eta arauak

Natura-ondarea eta Biodibertsitatea

- Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzkoa.
- 2009/147/EE Zuzentaraua, basa-hegaztiak kontserbatzeari buruzkoa.

Urak

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentaraua, 2000ko urriaren 23koa, uren politikaren alorrean Europako Erkidegorako jarduketa esparru bat ezartzen duena.

Airearen kalitatea eta zarata

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/76/EE Zuzentaraua, 2000ko abenduaren 4koa, hondakinak errausteari buruzkoa.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/50/EE Zuzentaraua, 2008ko maiatzaren 21koa, giroko airearen kalitateari eta Europan aire garbiagoa izateari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentaraua, azaroaren 24koa, industria-isurpenei buruzkoa (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratua).
- Batzordearen 2017/1442 Betearazpen Erabakia (EB), 2017ko uztailaren 31koa, zeinaren bidez ezartzen baitira teknika erabilgarri onenei buruzko ondorioak, errekuntza-instalazio handietarako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentaruaren arabera.

Ingurumen-ebaluazioa

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/92/EB Zuzentaraua, 2011ko abenduaren 13koa, zenbait proiektu publiko eta pribatuk ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/52/EB Zuzentaraua, apirilaren 16koa, proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Zuzentaraua aldatzen duena.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentaraua, 2008ko azaroaren 19koa, hondakinei buruzkoa eta zenbait zuzentarau indargabetzen dituena.

Klima-aldaketa

- Kontseiluaren 94/69/EE Erabakia, 1993ko abenduaren 15koa, klima-aldaketari buruzko esparru-hitzarmena egiteari buruzkoa.
- Kontseiluaren 2002/358/EE Erabakia, 2002ko apirilaren 25koa, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren Kyotoko Protokoloa Europako Erkidegoaren izenean onartzeari eta protokolo horren arabera hartutako konpromisoak batera betetzeari buruzkoa.
- Batzordearen 2006/944/EE Erabakia, 2006ko abenduaren 14koa, Kyotoko Protokoloaren arabera Erkidegoari eta estatu kide bakoitzari esleitutako igorpen-mailak zehazten dituena, Kontseiluaren 2002/358/EE Erabakiaren arabera.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/28/EE Zuzentaraua, 2009ko apirilaren 23koa, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabilera sustatzeari buruzkoa eta 2001/77/EE eta 2003/30/EE Zuzentaruak aldatzen eta indargabetzen dituena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/2001 (EB) Zuzentaraua, 2018ko abenduaren 11koa, iturri berriztagarrietatik sortutako energien erabilera sustatzeari buruzkoa.

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/2002 (EB) Zuzentaraua, 2018ko abenduaren 11koa, energia efizientziari buruzko 2012/27/EB Zuzentaraua aldatzen duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1999 (EB) Erregelamendua, Energiaren Batasunaren eta Klimaren aldeko Ekintzaren gobernantzari buruzkoa.

Estatuko legeak eta arauak

Ingurumen-integrazioko arau-esparrua

Natura-ondarea eta Biodibertsitatea

- 42/2007 Legea, 2007ko abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- 1432/2008 Errege Dekretua, abuztuaren 29koa, goi-tentsioko linea elektrikoetako hegaztien elektrokuzioaren eta talken ondoriozko heriotzak murrizteko neurriak ezartzen dituena.
- 41/2010 Legea, abenduaren 29koa, itsas ingurunea babesteari buruzkoa.
- 139/2011 Errege Dekretua, otsailaren 4koa, Babes bereziko erregimenean dauden espezie basatien zerrenda eta arriskuan dauden espezieen Espainiako katalogoa garatzekoa, eta ondorengo aldaketak.
- 33/2015 Legea, irailaren 21ekoa, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legea aldatzen duena.

Urak

- 849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duena, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atarikoak eta I., IV., V., VI. eta VII. tituluak garatuz.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, uren legearen testu bategina onartzen duena.

Airearen kalitatea eta zarata

- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa.
- 430/2004 Errege Dekretua, errekontza-instalazio handietatik datozen agente kutsatzaile jakin batzuk atmosferara igortzea murrizteari buruzko arau berriak ezartzen dituena.
- 508/2007 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, E-PRTR Erregelamenduko eta ingurumen-baimen bateratuetako isurpenei buruz eman beharreko informazioa arautzen duena.
- 34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, airearen kalitatearena eta atmosferaren babesarena.
- 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonifikazio akustikoari, kalitatearen helburuei eta emisio akustikoei dagokienez.

- 100/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duena eta bera ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituena.
- 102/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, airearen kalitatea hobetzeari buruzkoa.
- 815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzeko Erregelamendua –zeina, aldi berean, industriako emisioei buruzkoa baita– onartzekoa.
- 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 1042/2017 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, Errekuntza instalazio ertainetatik atmosferara zenbait agente kutsatzaileen isurtzea mugatzeari buruzkoa, eta Airearen kalitatearen eta atmosferaren babesaren azaroaren 15eko 34/2007 Legearen IV. eranskina eguneratzeari buruzkoa.

Ingurumen-ebaluazioa

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.
- 9/2018 Legea, abenduaren 5koa, honako hauek aldatzen dituena: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 21/2015 Legea, uztailaren 20koa, Mendien azaroaren 21eko 43/2003 Legea aldatzen duena; eta 1/2005 Legea, martxoaren 9koa, Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketa-erregimena arautzen duena.
- 23/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa, zeinaren bidez ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen baitira.
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak

- MAM 304/2002 Araua, otsailaren 8koa, hondakinen balorizazio eta deuseztapen ekintzak eta Europako hondakinen zerrenda argitaratzen dituena.
- 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen deklaraziorako estandarrak eta irizpideak ezartzen dituena.
- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.
- 5/2013 Legea, ekainaren 11koa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea eta hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea aldatzen dituena.

Klima-aldaketa

- Berreste Agiria, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren Kyotoko Protokoloarena, Kyoton egina 1997ko abenduaren 11n.

Lurzoruak eta Hirigintza Plangintza

- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena.
- Lurzoruari buruzko Legearen Balorazio Erregelamendua, 2011ko urriaren 24ko Errege Dekretuaren bidez onartua (1492/2011 Errege Dekretua).

Euskadiko legeak eta arauak

Lurraldea antolatzeko arau-esparrua

Esparru orokorra

- 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)

- 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.

Lurralde Plan Sektorialak (LPS)

- 104/2002 Dekretua, maiatzaren 14koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duena.
- 231/2012 Dekretua, urriaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzeko Dekretua aldatzeko dena.
- 449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, EAEko Kantauriko eta Mediterraneo isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa behin betiko onartzen duena (Kantauriko eta Mediterraneo isurialdeak).
- 177/2014 Dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez behin betiko onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala.

Lurralde Plan Partzialak (LPP)

- 86/2005 Dekretua, apirilaren 12koa, Eibarko (Debabarreneko) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana behin betiko onartzen duena.

Ingurumen-integratioko arau-esparrua

Natura-ondarea eta Biodibertsitatea

- 167/1996 Dekretua, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa arautzen duena, eta ondorengo aldaketak

(bereziki 2011ko urtarrilaren 10eko Agindua, 2013ko ekainaren 18ko Agindua eta 2020ko martxoaren 2ko Agindua).

- 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako mendiena.
- 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoa.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- Agindua, 2016ko maiatzaren 6koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena. Haren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira, eta hegazti-faunaren babes-eremuak argitaratzen dira, non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatzeko edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira.

Urak

- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.

Airearen kalitatea eta zarata

- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen.
- Agindua, 2012ko uztailaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, zeinaren bidez 278/2011 Dekretua garatzeko jarraibide teknikoak zehazten baitira.
- Agindua, 2012ko irailaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena. Honen bidez, Teknologia Garbien EAEko Zerrenda onartzen da.

Ingurumen-ebaluazioa

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

Hondakinak eta lurzoru kutsatuak

- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.

Klima-aldaketa

- Gaur egun, Euskadin Euskal Autonomia Erkidegoko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Lege-proiektua dago, behin betiko onartzeko dagoena.

Paisaia

- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.

Lurzoruak eta Hirigintza Plangintza

- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
- 2008ko ekainaren 3ko premiazko neurriei buruzko dekretua, aurreko legearen garapen gisa sustatua (105/2008 Dekretua).

Generoa

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

Toki-administrazioa

- Eusko Legebiltzarraren 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.

1.4.4. DOKUMENTUAREN EDUKI FORMALA

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69.2 artikulua araberan, «Plan berezien antolamendua, hain zuzen, planon xederako beharrezko diren zehaztapenen bidez egiten da, betiere dena delako plan orokorrak, hala badagokio, ezarritakoa betez». Era berean, honako hau dio Lege beraren 69.3 artikulua: «Plan partzialetarako aurreikusitakoen antzekoetan formalizatuko dira plan berezien zehaztapenak ere; agiriaren edukia, ordea, beren xedera moldatuko dute plan bereziek».

Batetik, plan partzial batek zer agiri izan behar dituen zehazten du Lege beraren 68. artikulua.

68. artikulua.— Plan partzialetako agiriak. Plan partzialen edukia agiri hauetan egongo da jasota:

*a) **Memoria informatiboa eta justifikatiboa.** Plangintza-ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen-elementuak dakartzan informazio guztia jaso beharko du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta plan orokorrak ezarritako egiturazko eta zuzentarauzko antolamenduari egokitzea. + b) **Informazio-planoak.** + c) **Antolamendu xehatuaren planoak.** + d) **Egikaritzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterketa** + e) **Plan orokorreko arauak garatzeko hirigintza-arauak** + f) **Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.***

Bestalde, Plan Bereziaren zehaztapenak «bere berariazko xederako beharrezkoak direnak» izango dira (2/2006 Legearen 69.2 artikulua), eta sartu beharreko dokumentuetan jasoko dira, izaeraren arabera.

Azkenik, «Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren» 22.1 artikulua ezartzen duenez (Estatukoa), Plan Bereziak «hirigintza-antolamenduko tresna» den heinean, bete behar duen **ingurumen-ebaluazioari** dagokion dokumentazioa jaso behar du.

Herritarren parte-hartzeari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 108. artikulua eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren (lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena) 3. artikulua aplikatuz, **egiturazko hirigintza-antolamenduko tresna** guztiek partaidetza-programa bat izan beharko dute.

Dagokigun kasu zehatzean, Plan Berezi bat denez –**antolamendu xehatuko tresna** bat–, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 32.6 artikulua aplikatuz, auzo finkatuei eragiten dieten eta eragindako biztanleriari eragiten dioten hiri-berroneratzeko plan bereziek soilik izan beharko dute herritarren partaidetzarako programa bat.

Beraz, proposamen honen xede den **lurzoru urbanizaezina babesteko eta antolatzeko Plan Bereziak ez du herritarren partaidetzarako programa bat izateko lege-betebeharrik.**

Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.7 artikulua arabera, «udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen» plan eta proiektuetan nahitaezkoa izango da **euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua** ebaluatzea. Lege hori azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak garatu du (Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeko), eta ebaluatu behar diren planak eta proiektuak arautzen ditu 50. artikuluan eta hurrengoetan, baita plan edo proiektu bakoitzean baloratu behar diren prozedura eta adierazleak ere.

Azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 50.1.a) artikulua hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa behar duten hirigintza-planak zerrendatzen ditu. Honako hauek dira:

- Hiri-antolamenduko plan orokorrak.
- Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana.
- Sektorizatze-plana.
- Plangintzako arau subsidiarioak.
- Plan partzialak.
- Hiri-antolamenduko plan bereziak.
- Turismo-planak.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 70. artikulua honela definitzen ditu hiri-antolamenduko plan orokorrak:

«Plan orokorraren egiturazko antolamendua garatzea da hiria antolatzeko plan bereziaren xedea, eta hori, hain zuzen, plan orokorrak egiturazko antolamendua atzeratzea baimentzen duen **hiri-lurzoruko eremuetan antolamendu xehatua ezarrita** egiten du. Hiri-lurzoruari buruz plan orokorraren agirietan jasotako antolamendu xehatua aldatzeko ere erabil daiteke hiria antolatzeko plan berezia».

Dokumentu hau Lurzoru Urbanizaezina –eta ez hiri-lurzorua– Antolatzeko eta Babesteko Plan Berezia da, eta beraz, **EZ du behar hizkuntza-inpaktuaren ebaluaziorik.**

Azkenik, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena) 22.4 artikulua ezartzen duenez, Plan Berezietan, «hirigintza-eraldaketako jarduketak antolatzeko tresnak» direnean, **«ekonomia-jasangarritasunari buruzko txosten edo memoria bat** sartu beharko da; txosten edo memoria horretan, bereziki neurtuko da beharrezko azpiegiturak ezarri eta mantentzeak nahiz haien ondoriozko zerbitzuak martxan jarri eta emateak ukitu dituen ogasun publikoetan jarduketak izandako inpaktua, bai eta ea ekoizpen-erabileretarako xedaturiko lurzorua aski eta egokia den ere».

Plan Berezi honen xedea lurzoru urbanizaezineko gune bat babestu eta antolatzea denez, **ez da beharrezkoa ekonomia-jasangarritasunari buruzko txostena idaztea.**

Horregatik guztiagatik, Plan Berezi hau 2/2006 Legearen 68. eta 69. artikuluetan aipatzen diren dokumentuetan egituratuko da, baita 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 22.4 eta 22.1 artikuluek behartzen dituzten dokumentuetan ere. Hona hemen dokumentu horiek:

- 1. dokumentua: KONTZEPTU OROKORRAK
- 2. dokumentua: INFORMAZIO MEMORIA
- 3. dokumentua: JUSTIFIKAZIO MEMORIA
- 4. dokumentua: ARAUDIA
- 5. dokumentua: ANTOLAMENDURAKO ETA KUDEAKETARAKO GIDALERROAK
- 6. dokumentua: PLANAREN BIDERAGARRITASUNA
- 7. dokumentua: HERRITARREN PARTE-HARTZEA
- 8. dokumentua: HIZKUNTZA-INPAKTUARI BURUZKO TXOSTENA
- 9. dokumentua: GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKO TXOSTENA
- 10. dokumentua: PLANOAK
- 11. dokumentua: INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKO SINPLIFIKATUA

Dokumentu horien eta haien proposamenen informazio-, interpretazio- eta/edo arauizaera aipatutako IV. Dokumentuan («Araudia») horri buruz ezarritako aurreikuspenen emaitza da.

1.4.5. KBAPB IZAPIDETZEA

Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen 46/2020 Dekretuak, besteak beste, honako hau dio 6. artikuluko 1. puntuan: «Lurralde-antolamenduko eta hirigintza-antolamenduko planak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende jarri beharko dira».

Beraz, plan berezi honek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura bete beharko du, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuak (lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena) 32. artikuluan (Plan bereziak egiteko eta onesteko prozedura) ezartzen duen moduan. Honako hau dio, hain zuzen ere:

32. artikulua.– *Plan bereziak egiteko eta onesteko prozedura.*

1. *Plan bereziak dekretu honetan plan partzialetarako ezarritakoaren arabera egin eta onetsiko dira.*
5. *Lurzoru urbanizaezinei eragiten dieten plan bereziei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txostena egin beharko du planoari buruz.*

31. artikulua.– *Plan partzialak egiteko eta izapidetzeko prozedura.*

1. *Plan partziala egitea udalei dagokie edota edozein pertsona fisiko edo juridiko publikori edo pribaturi; kasu horretan, udal-administrazioak, betiere arrazoiak emanda, erabaki edo ukatuko du planaren hasierako onspena proposatutako dokumentuaren hutsuneek plana baldintzatzen badute eta hutsune horiek ezin badira plana izapidetu bitartean konpondu.*
2. *Ekimen partikularreko plan partzialen kasuan, **ekimenaren sustatzaileak udalean aurkeztuko du plan partziala, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren hasierako eskabidearekin batera, eta ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzko araudian aurreikusitakoaren arabera osatutako ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera. Udal-ekimeneko plan partzialen kasuan, udalak idatziko du dokumentazio hori, eta zuzenean bidaliko du ingurumen-organora.***
3. *Bai ekimen partikularreko plan partzialen kasuan bai administrazio publiko eskudunak ofizioz egiten dituenen kasuan, **ingurumen-txosten estrategikoa egin eta ingurumen-organoak hura jaso aurretik, hasierako onarpena eman ahal izango zaie plan partzialesi, bai eta***

jendaurrean jartzeko izapidea bete dela egiaztatu ere. Halakoetan, plana hasieran onartzeko erabakiak adieraziko du onarpena ingurumen-txosten estrategikoaren emaitzaren baitan daqoela.

4. *Baldin eta ingurumen-organoak erabakitzen badu ez dela aurreikusten plan partzialak ingurumenean ondorio nabarmenik izango duenik, planaren izapidetzeak aurrera egingo du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.*
5. *Bestela, txostenak xedatuko du plana ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren eraginpean jarri behar dela. Ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egingo du eta dokumentu horren berri emango dio udalari, edo hala badagokio, udalari eta sustatzaileari, eta haiek jarraitu beharko dute ondorengo apartatueta aurreikusitako izapideak egiten:*
 - a. *Udalak, edo, hala badagokio, sustatzaileak plan partzialaren hasierako onespren-dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa egingo ditu irismen-dokumentua kontuan hartuta, eta plan partzialaren hasierako onesprena gauzatuko du.*
 - b. *Ondoren, udalak, onspren horrekin batera, jendaurreko informazioaren nahitaezko izapidearen mende jarriko du plana, berrogeita bost egun baliaduneko epean, iragarkia dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratzen denetik aurrera; plana, era berean, tirada handieneko egunkarian edo egunkarietan argitaratuko da; horrez gain, eta aldi berean, eraginpeko administrazio publikoen eta alde zurretik kontsulta egin zaien pertsona interesdunen kontsulta-izapidearen mende ere jarriko du plana.*
 - c. *Udala, aurreko izapideen alegazioak kontuan hartuta, behin-behingo onetsiko du, eta espedientea ingurumen-organora bidaliko du ingurumen-adierazpen estrategikoa egiteko. Adierazpen hori bi hilabeteko epean egin eta jakinarazi beharko da, eta epe horretan egiten ez bada, izapideak egiten jarraitu ahal izango da.*
6. *Hiru mila biztanleko edo gutxiagoko udalerrak direnean, behin-behineko onspena emateko erabakia hartu ondoren, hamar eguneko epea egongo da –erabakia hartu denetik– espedientea dagokion foru-aldundira bidaltzeko, behin betiko onar dezan.*

7. *Plan partzialaren behin betiko onspena Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 96. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera ebatziko da.*

1.4.6. INGURUMEN-PROZEDURA

A.- Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko eskaera.

Organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko eskaera aurkeztuko dio ingurumen-organoari, KBAPBren zirriborroarekin, Ingurumen Dokumentu Estrategikoarekin eta legeria sektorialak eskatutako dokumentazioarekin batera.

Hogei egun balioduneko epean, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko eskaera jasotako egunetik zenbatzen hasita, ingurumen-organoak ez onartzea erabaki dezake, honako arrazoi hauetako batzuk direla eta:

- a) Argi eta garbi iritziz gero plan edo programa nabarmen bideraezina dela, ingurumen-arrazoiengatik.
- b) Ingurumen-agiri estrategikoak kalitate-baldintza nahikoak ez dituela betetzen iritziz gero.

Ingurumen-organoak eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egingo die, ingurumen-agiri estrategikoa eta planaren hasierako dokumentua haien eskura jarrita.

Eragindako administrazio publikoek eta kontsultatutako pertsona interesdunek gehienez ere **berrogeita bost egun** balioduneko epean eman beharko dute irizpena, txostenaren eskaera jasotako egunetik zenbatzen hasita.

Epe horretan haien adierazpenik jaso ez bada, prozedurak aurrera jarraituko du, baldin eta ingurumen-organoak ingurumen-txosten estrategikoa egiteko irizpen-elementu nahikoak baditu. Kasu horretan, lehen aipatutako adierazpenak geroago jasotzen badira, ez dira kontuan hartuko.

B.- Ingurumen-txosten estrategikoa.

Ingurumen-organoak **hiru hilabeteko** epean egingo du ingurumen-txosten estrategikoa, hasteko eskaera eta hari erantsi beharreko dokumentuak jasotako egunetik zenbatzen hasita.

Ingurumen-organoak, egindako kontsulten emaitzak kontuan hartuta, eta V. eranskinean ezarritako irizpideak jarraituz, ingurumen-txosten estrategikoaren bidez erabaki ahal izango du:

a) Planari **ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaio, ingurumenean ondorio adierazgarriak eragin ditzakeelako**. Kasu horretan, ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egingo du, egindako kontsulten emaitzak kontuan hartuta.

Erabaki hori sustatzaileari jakinaraziko zaio, **irismen-dokumentuarekin** eta egindako kontsulten emaitzekin batera, ingurumen-azterketa estrategikoa egin dezan eta izapideekin aurrera jarrai dezan.

b) Plan edo programak ez ditu ondorio adierazgarriak eragiten ingurumenean, ingurumen-txosten estrategikoan ezarritakoari jarraiki.

1.4.7. HIRIGINTZA- ETA INGURUMEN-PROZEDURA

- **Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko eskaera.**
- **Ingurumen Txosten Estrategikoa***, ingurumen-izapideei amaiera ematen diena. *Kasu horretan, ingurumen-txosten estrategikoa egin eta ingurumen-organoak hura jaso aurretik, hasierako onespena eman ahal izango zaie plan partzialei, bai eta jendurrean jartzeko izapidea bete dela egiaztatu ere. Halakoetan, plana hasieran onartzeko erabakiak adieraziko du onarpena ingurumen-txosten estrategikoaren emaitzaren baitan daqoela.*
- **Hasierako onespena:** Elgoibarko Udalak erabaki beharrekoa.
- **Jendurrean jartzea:** hasierako onespeneren ondoren, dokumentua jendurrean jarriko da, eta hasierako onespeneren erabakia Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aldizkari ofizialean eta lurraldean gehien argitaratzen den egunkarian edo egunkarietan argitaratuko da, gutxienez 20 eguneko epean, azken argitalpenetik kontatzen hasita.

- **Txosten sektorialak:** jendaurreko informazioarekin batera, Elgoibarko Udalak txostena eskatuko die eragindako administrazio sektorialeiei: Aldundiko errepideak, Uraren Euskal Agentzia (URA), Ondarea, AENA eta abar.
- **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea (EAELAB):** proposamena indarrean dagoen lurralde-antolamenduan txertatzeari buruzko nahitaezko txostena.
- **Behin betiko onespena:** Elgoibarko Udalak dokumentua behin betiko onartuko du aurreko prozeduratik eratorritako doikuntzekin, eta araudia GAOn argitaratuko du.



2

Informazio Memoria




ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

2.1.- INGURUNE FISIKOAREN LURRALDE-ESPARRUA

Elgoibarko udalerrria, lehen Villamayor de Markina zena, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mendebaldeko zatian dago, Debabarreneko eskualdearen erdian.

Villamayor de Marquina 1346ko abenduaren 20an fundatu arren, goiz okupatu zuten gaur egun Elgoibarko udal-mugartea osatzen duen lurraldea, Karakate-Irukurtzeta gailur-lerroko monumentu megalitikoek eta hilobi-monumentuek erakusten duten moduan.

Karakateko Landa Parkea Elosua-Plazentzia mendilerroan dago. Hark Gipuzkoako Deba eta Urola ibaien arroak bereizten ditu, Soraluze-Placencia de las Armas, Elgoibar, Bergara eta Azkoitia udalerrien artean. Landa Parkea Karakate/Kortazarretik (750 m) Agirrebururaino (830 m) hedatzen da eta, tontor horiez gain, Akillar (760 m), Pagomuneta (750 m), Gizaburua (765 m), Atxolin (850 m), Kurutzebakar (901 m), Irukurtzeta (898 m) eta horien arteko lepoak eta bizkarrak hartzen ditu barne. Katea basaltzoko materialez osatuta dago, baina mendebaldeko adarrean badira beste arroka batzuk ere, hala nola tuparriak eta tuparri-kareharriak.



Erliebeak malda handiak ditu gailur-lerroaren bi isurialdeetan, eta higakin handiak daude mendi-hegalen eta bizkarren artean.

Gailurrerian ugariak dira azaleratzeak, kuxin-labak eta basalto-puskak, fenomeno efusiboen eta basalto-masen higaduraren ondorioz. Basalto-formazioen forma ganbilak eta azaleratze ugariak direla eta, zaila da oso agerikoak ez diren egiturak identifikatzea.

Karakate eta Irukurutzeta arteko paisaian pagadi-masa handiak daude, batzuetan konifero-plantazioek eteten dituztenak. Gailurreria estaltzen duen belar-mantuaren gainean iratzeak ugaritzen dira, eta horiek otadiarekin, txilardiarekin eta larre-guneekin (zaldi- eta ardi-taldeak ikus daitezke bertan) konbinatzen dira. Leku batzuetan, batez ere Pagobedeinkatu eta Irukurutzeta artean, lurraren hondoratze txikiak daude, eta horietan ihi-masa txikiak ugaritu dira hezetasunaren eta uraren eraginez.

Karakateko Landa Parkea Elgoibarko hego-ekialdean dago, eta Soralezerekin muga egiten du. Ekialdean, berriz, parkeak Azkoitia du mugakide.

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA



TOPOGRÁFICO
TOPOGRAFIKOIA

MAPAREN ZENBAKIA

6

DATA

21/06/2022



SUSTATZAILEA




IDAZLE TALDEA




INFORMAZIO KARTOGRAFIKOIA

Proiektzioa: UTM 30N
Datum: ETRS 89



MAPAREN ESKALA

1:10.000



Administrazio-mugak
Límites administrativos

- Elgoibar udalerria
- Udalerrien muga

Toponimoak
Topónimos

- Populazio entitateak
- Auzoak
- Parajeak
- Erreka, erreka-astoa, erreka-zubia
- Baserriak

Toponimoak
Topónimos

- Eraikina
- Eraikin hondatua
- Eraikin-erlijiosoak
- Negutegia
- Markesina
- Zubia
- Hilerria
- Kirol-instalazioa
- Hezkuntza-instalazioa

Hidrologia
Hidrología

- Erreka, erreka-astoa, erreka-zubia
- Urzalea
- Altimetria
- Altimetría
- Sinetra kurbak nagusiak

Errepide sarea
Red viaria

- Lehentasuna duen errepidea
- Errepide nagusia
- Eskualde errepidea
- Udal errepidea
- Beste bide batzuk
- Beste bide batzuk

Senderos
Bideak

- Oinezkoen ibilbideak (PR)
- Bizikleta ibilbideak (BTT)

2.2.- INGURUNE FISIKO BIOTIKOA

2.2.1. OROGRAFIA ETA MALDAK

Elgoibar malda handiko mendi-hegalak dituen udalerrria da (% 30-50 bitarteko tartekak), eta % 50-100 bitarteko malda ugari ditu. Malda horiek udalerriko mendi garaienei dagozkie, hala nola Karakate gailur-lerroari, Peto mendiaren hegalei, Moru mendiari eta Kalamuako inguruari.

Malda gutxiagoko malda-tartekak (% 10-20 eta % 20-30) Debako ibai-haranetan eta udalerrria zeharkatzen duten lur gaineko ibilguetan kokatzen dira, eta toki horietan finkatzen dira, hain zuzen ere, udalerriko biztanle-guneak eta nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak.

Karakateko Landa Parkeko eremuak malda handiak ditu –baita % 75etik gorakoak ere–, Karakate-Irukurutzeta gailur-lerrorantz gora doazen mendi-hegalak baititu. Orografia malkartsua desitxuratu egiten da, parke ia osoa basoa delako. Gune lau bakarra Karakateko gailurra eta Irukurutzeta lotzen dituen gailur-lerroa da.

Eremuko malden azterketa bat egin da GIS teknologia erabiliz (LIDARetik eratorria) eta, azterketa horretan, 8 tarte bereizi kartografiatu dira, erantsitako irudian ikus daitekeen moduan.

MALDA	Eremua (Ha)	Parkearen %
% <3	0,25	0,05
% 10-20	7,89	1,42
% 20-30	25,89	4,67
% 3-5	0,39	0,07
% 30-50	202,48	36,54
% 5-10	1,59	0,29
% 50-100	315,58	56,96



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA



PENDIENTES (%)
MALDAK (%)

MAPAREN ZENBAKIA

7

DATA

17/06/2022



2.2.2. GEOLOGIA-GEOMORFOLOGIA

Morfologiari dagokionez, Planak barne hartzen duen eremua Bizkaiko Sinklinorioaren iparraldean dago. Azaleratzen diren materialak Goi Kretazeoko (Turoniarra-Santoniarra) jatorri bolkanikoko litologiez osatuta daude, «multzo bolkaniko» gisa ezagutzen direnak. Material horiek potentzia aldakorreko NW-SE norabideko banda osatzen dute, adin bereko tuparri beltz eta gris estratifikatuen artean.

Iparaldean, zenbait material azaleratzen dira flysch modura txandakatuta (multzo sedimentario supraurgoniarreko hareharriak eta lutitak).

LITOESTRATIGRAFIA

Litoestratigrafiari dagokionez, Karakate Landa Parkean Goi Kretazeoko materialak azaleratzen dira, multzo bolkanikokoak nahiz flysch karedunekoak.

Goi Kretazeokoa izanik, RATEk (1959) material-multzo bat definitzen du multzo supraurgoniarreko lur-formazioetako gainaren eta Paleozenoko kareharri-tarteetako oinaren artean. Material horiek oso ezaugarri desberdinak dituzte Bilboko antiklinorioaren bi aldeetan. Egituraren hegoaldean (Gorbeia unitatea) plataforma karbonatatu material-multzo batek osatzen du Goi Kretazeoa haren iparraldean (Oizko eta Donostiako unitateak), baina «flysch» moduko materialen segida handiagatik bereizten da, karbonatatu edo detritiko-karbonatatu. Bertan, Leitzako failari lotutako metamorfismoko arroka bolkaniko eta bolkanoklastikoko zenbait gorputz tartekatzen dira.

GOI KRETAZEOKO «FLYSCH»

Materialen segida indartsu hori Bizkaiko Sinklinorioaren bi aldeetan agertzen da, baita haren segidan ere, Aralar mendilerroaren iparraldean, eta Euskal Arkuaren iparraldeko zatian, Andutz failaren (Debaren ekialdean) eta Hondarribiaren artean. Ipar Pirinioetako «flysch» deiturikoa da, bi multzo handi barne hartzen dituena: bata basala, edo «flysch» kareduna, eta bestea goikoa edo «flysch» detritiko kareduna. Turbidito-izaerako segida indartsu eta monotonoa da, jatorria Pirinioetan duten axio-fluxuduna; tuparri eta kareharri hemipelagikoak tartekatzen ditu, baita Goi Kretazeoko multzo bolkanikoko materialak ere.

Goi Kretazeoko materialen kokapen geometrikoa oso adierazgarria da, batez ere Bortzirietako mendigunearen inguruan; izan ere, ez daude aurrekoak bezala kokatuta, eta deformazioak zigilatzen dira.

- FLYSCH KAREDUNA

«Flysch» kareduna MATHEYk (1983) «flysch karedunen sistema» deiturikoaren multzokoa da, zehazki «Bizkaiko Sinklinorioko Flysch-ekoa». Oro har, kalkarenita eta kaltzimolita beigeak eta grisak tartekatzen dira, lodiera oro har zentimetrikoa duten bankuetan; kareharrizko oheak ere agertzen dira, normalean 10 zentimetrotik beherako lodiera dutenak. Autore horren arabera, kalkarenita- eta kaltzita-mailek Bouma-sekuentziak dituzte, eta, beraz, turbidita-serieak dira. Tarte horren metaketa, argi eta garbi urratzailea, mugarri garrantzitsua da Arroaren sedimentu-historian; beraz, ekialdeko sektoreetan metakin kaotikoen maila jarraituak osatzen du oinarria, hala nola megaturbiditek, olistoiek eta bereizi gabeko beste grabitazio-metakin batzuek. Dena den, Bizkaiko Sinklinorioaren alboetan dauden mendebaldeko sektoreetan pixkanaka igarotzen da litologia horietara, eta Debako eta Durangoko formazioetako lurreko litologia karbonatatuak karbonatatu egiten dira pixkanaka, gainerantz. Tarte tuparridun basal horren eduki mikropaleontologikoa Goi Zenomaniarretik Santoniarra bitartekoa da.

Karakateko Landa Parkeak flysch kareduneko formazio litologiko hauek ditu bereizgarri:

- **Tuparri gris ilun eskistodunak, kareharri hareatsuak tartekatuta** (Goi Zenomaniarra-Santoniarra)

«Flysch» karedun horretan nagusi den litologia tuparri eta tuparri-kareharri gris eta ilunek osatzen dute; masiboak dira oro har (60 zentimetroko batez besteko bankuetan geruzatuta ager daitezke), oso eskistodunak, eta pirita zertxobait barreiatuta dute.

Batzuetan, kareharri buztintsuen bankuak tartekatzen dira, eta horiek markatzen dute estratifikazioa. Gainazalean tonu gris argia eta zuri lurtarra dira nagusi, eta, beraz, oso gida ona da lurlean.

Maila gogorrenak biomikritak eta biomikrita buztintsuak dira, mikrofauna ugarikoak (askotan herrestan eramanda); 20 zentimetrotik beherako bankuetan agertzen dira, baina, batzuetan, 1 edo 2 metroko potentziara ere irits daitezke. Gainerantz gero eta ohikoagoak dira turbidita distalen sekuentziak dituzten kareharri hareatsuen bankuak. Era berean, ohikoa da kareharri mikritiko beltz, tuparri-kareharri eta lutiten tartekatzeak aurkitzea, baita formazio barruko bretxa batzuk ere.

Multzo bolkanikoa formazio horretan sartzen den inguruetan, tartekatuta edo, besterik gabe, arroka bolkanikoekin kontaktuan dauden tuparri-mailek izokin-kolorea dute, ziurrenik burdinak eragindako kutsadura diagenetikoaren ondorioz, material bolkanikoek eraginda. Tuparrietan tartekatzen diren maila gogorrek kareharri buztintsuen mikrofazieak dituzte, meheki birkristalatuak, batzuetan ijeketarekin eta, beste batzuetan, ertz askoko kuartzozko limo eta/edo harea

finarekin (% 5 arte), burdin oxidoekin eta materia organikoarekin. Mikrofazieak biopelmikritak, biomikritak eta pelmikrita fosiliferoak dira.

Terrigenoak urriak dira oro har, eta tuparrietan tartekatutako hareharrizko maila txikiak irudikatzen dituzte. Maila horien tamaina eta maiztasuna handitu egiten da formazioaren gainerantz eta, beraz, hurrengo unitate kartografiko bereziko («flysch detritiko kareduna») flysch-materialekiko kontaktua mailakatua da.

- **Kareharri mikritiko beltzak** (*Goi Zenomaniarra-Santoniarra*)

Udalerrian hainbat altueratan tartekatzen diren kareharri mikritiko beltzen mailak (246) Villabonako (64-III) eta Eibarko (63-III) koadranteetako kartografietan banatu dira; izan ere, nolabaiteko jarraitutasuna dute alboetan.

San Lorentzon, Eibarko koadrantearen hego-ekialdeko muturretik gertu, eta Barinaga inguruan, 20 metrotik beherako potentzia duten lentejoi karbonatatu bana kartografiatu dira.

- **GOI KRETAZEOKO MULTZO BOLKANIKOA**

Goi Kretazeoko multzo bolkanikoa «flysch» kareduna osatzen duen tuparri-formazioaren barruan dago. Formazio hori osatzen duten materialak potentzia irregularreko banda batean azaleratzen dira, Bizkaiko Sinklinorioaren itxitura marratuz; inguru horretan erregistratzen dira potentzia maximoak, 2.000 eta 2.500 metro inguruan, Soraluze-Placencia de las Armas seriean. Dimentsio horiek oso txikiak dira ipar-mendebalderako norabidean eta hegoaldeko hegal osoan, hor 250 metro ingurukoak baitira potentziak. Multzo bolkanikoko horma-tuparrien artean adin-jauzi handiak daude; datatutako terminorik baxuenak Erdi Zenomaniarrekoak dira, eta gainekoak, berriz, Goi Kanpaniarrekoak. Denbora-tarte horretan, arroak ezegonkortasun handiko unea bizituko zuen seguruenik, eta material bolkanikoen bolumen handia jariatuko zen Eibarrekoaren gisako eremuetan. Multzo horretan hainbat termino bereizi dira, irizpide litologikoei nahiz litologiei lotutako egitura bolkanikoei erreparatuta.

Adierazi behar da kartografian berezita dauden terminoek, askotan, zehaztutako kontaktuen barruan nagusi diren litologiak adierazten dituztela, beste litologia batzuen presentzia (gutxiengoa) baztertu gabe. Mota horretako arroken izaeragatik eta azaleratzeen kalitateagatik gertatzen da hori.

Karakateko Landa Parkean multzo bolkanikoko formazio litologiko hauek bereizten dira:

- **Oinarrizko sill arrokak** (*Goi Albiarra-Koniaziarra*)

Sill arrokak oinarrizko izaera duten arroka plutonikoak dira (doleritak, pikritak). Gainurgoniarreko goi-mugetan (lutitak eta hareharriak) nahiz Goi Kretazeoko tuparri-materialetan eta multzo bolkanikoan aurki daitezke, baina ez horien gainetik. Oro har, estratifikazioarekiko modu paraleloan antolatzen dira, baina, batzuetan, geruzak egokitzen dira gorputzetara.

Arrunki, kartografiatutako sill horiek potentzia gutxiko gorputzak dira, metro bat eta hamarnaka metro artekoak, baina badira zenbait salbuespen ere, eta potentzia handiagoa izan dezakete. Gorputz horien azaleratze-baldintzak ez dira oso onak izaten eta, batzuetan, material horien artean bereizgarri den lurzoru gorrixketan hautematen dira.

Arroka horiek plutonikoak direla ondoriozta daiteke, zenbait kasutan, arroka ahokatzailearen kokagune txikiak daudelako. Gorputz horietan oso ohikoa da zonakako banaketa; hori garbi ikus daiteke alearen tamainari –handitu egiten da ertzetatik gorputzaren barrualderantz– eta koloreari –konposizioan gertatzen den aldaketagatik, leukokrato/melanokratoen proportzioa aldatu izanaren ondorioz– erreparatuta. Kutzako materialekiko kontaktua tektonizatuta dagoenean, ohikoa da sulfuro-barreiadurak dituzten potentzia eskaseko kuartzo-zainak ikustea. Gorputz horiek haustura- eta alterazio-maila handia izaten dute –bolotan zatitu eta tipulageruzatan banatzen dira– eta, horregatik, batzuetan zaila izaten da «kuxin-labetatik» edo antzeko alterazioak dituzten harri bolkanoklastikoetatik bereiztea.

Diaklasatzeari dagokionez –oso ohikoa izaten da–, burdin oxidoz, kaltzitaz eta kuartzo kloritadun eta epidotadunetz beteta egoten da, baita manganeso-oxidoak (pirolusita) eta zuntzezko anfibolak (asbestoa) dituzten patinaz ere. Gainazal freskoetan, kolore gris berdexkako arroka mikrobikordun gisa agertzen dira, eta mineral melanokratiko ugari dituzte (biotita, piroxenoak eta anfibolak batez ere), baita feldespato eta plagioklasak ere, leukokrato gisa. Petrografiaren ikuspegitik, diabasek (leukogabroak) plagioklasa eta klinopiroxenoa dituzte mineral nagusi gisa, eta kuartzoa, ortopiroxenoa, opakua, apatitua, errutiloa eta abar mineral osagarri gisa.

Arrokaren alterazio-maila garrantzitsua da, eta plagioklasaren «saussuritizazio» eta melanokratoen epidotizazio prozesu garrantzitsuak gertatzen dira. Gorputz horiek tuparri ahokatzaileekin bat egiten duten lekuetatik gertu ohikoa da eskistositate azpiorizontala aurkitzea, baita tuparriak lehertzeko fenomeno lokalizatuak ere; hala ere, ez da inoiz ikusi ukipen-metamorfismoaren presentziarik, ezta azterketa petrografikoen bidez ere, eta lekuneetan soilik ikus daiteke birkristalizazio txiki bat.

- **Arroka bolkanoklastikoak (Turoniarra-Santoniarra)**

Klastoen izaera aldakorra da, eta eremuan argi eta garbi ikusten dira «kuxin» zatiak, kolada masiboak, trakitak, beira, arroka sedimentarioak (tuparriak eta tuparrikareharriak) eta dolerita-zatiak, besteak beste. Zatiak sortu dituen mekanismoaren

arabera, material horiek jatorri piroklastiko eta epiklastikoko material gisa sailkatzen dira nagusiki.

Zati piroklastikoak leherketa bolkanikoen ondorioz sortzen dira zuzenean, eta metaketa-prozesuan zehar sendotzen dira, deformatuz eta elkarri moldatuz; horrenbestez, matrizea eskasa da. Granulometriaren arabera, material horiek ertz askoko tobek eta bretxek irudikatzen dituzte, eta alearen tamaina oso aldakorra izaten da batetik bestera.

Material horietan ikusten diren egiturei dagokienez, gradazioa da nagusi. Izan ere, serie osoak ikus daitezke: bretxak, material zineritikoak...

Normala da degradazioan bat-bateko etenak ikustea (batzuetan bat baino gehiago serie beraren barruan); elkarren segidan bi leherketa edo gehiago gertatzen direnean gerta liteke hori, material finenak, oraindik esekita daudenak, metatzeko behar adina denbora igaro ez denean. Angelu txikiko ijezketa gurutzatuak ere hauteman dira.

Jatorri epiklastikoa duten materialak osagai bolkanikoz osatutako metakinak – prozesu sedimentarioek atzera eramandakoak– eta jatorrizko osagai sedimentarioak dira. Ondo geruzatuta daude, banku zenti-dezimetrikoetan (10 eta 50 zentimetro bitartekoak); gris- eta krema-kolorekoak dira gainazal freskoan, eta egitura sedimentarioak dituzte, hala nola, ale-hautapena eta, sarritan, ijezketa paralelo finak. Material fin epiklastikoetan oso ohikoa da, halaber, egitura fluidalak dituen ijezketa paralelo kurbatua.

- **Zineritak** dira eskasena, eta granulometria handiko materialekin geruzatutako horizonte finetan kokatzen dira.
- **Tobek** tonalitate berde argia dute bereizgarri; normalean oso meteorizatuta egoten dira, eta beraz, labaingarriak izaten dira. Bilbea askotariko harri bolkanikoz osatuta dago (ertz angeluzuzena nahiz azpibiribildua izan dezakete), hala nola kuxin-zatiez, beira-koladaz eta arroka porfidikoz, eta arroka bera birrintzean sortutako matrize batean egoten dira murgilduta. Toba eta zineritekin batera, arroka karbonatatu mailak (tuparriak eta tuparri-kareharriak) tartekatzen dira; horiek arrosa-kolorekoak izan ohi dira. Maila horien alboko jarraitutasuna mugatua da, eta oso potentzia aldakorak izaten dituzte (zentimetro gutxi batzuk nahiz hainbat metro).
- **Bretxak** oso ugariak dira multzo bolkaniko osoan; ertz heterometrikoak eta angeluz beteak izaten dituzte, ale ertain nahiz lodiko eta tuparri-itxurako matrize batean murgilduta.

Horien ehundurari edo egiturari erreparatuta, esan daiteke arroka horiek *in situ* bretxifikatu izanaren emaitza direla, zati askok ahokatzeko moduko puzzle bat osatzen baitute.

- ***Kolada bolkaniko masiboak eta trakitak (Turoniarra-Santoniarra)***

Material bolkanikoz osatuta daude, kolore arre-arrosa berdexka dute ebaki freskoan, eta jario bolkaniko jarrai eta opari baten emaitza dira.

Material horien potentzia oso aldakorra da, eta metro bat eta ehun bat metro artekoa izan daiteke. Kolada beraren barruan ikusgarriak dira potentzia-aldaketak, eta mehetze nabarmenak jasaten dituzte metro gutxi batzuetan. Koladak modu koordinatuan jarrita daude harri sedimentarioen gainean edo beste gertakari bolkaniko batzuen gainean. Oso harri trinkoak dira, kolore ilunekoak, eta oso hautsita daude. Ehundura porfidikoa dute azaleratzean, eta piroxenozko eta plagioklasazko fenokristalak dituzte matrize mikrokristalinoan. Izaera porfidikoa desagertu egin daiteke eta, orduan, arroak itxura mikrokristalinoa edo beirakara hartzen du, kolada-eremuen arabera (ertz beirakarak eta nukleo kristalinoa).

- ***Bretxa bolkanikoak («kuxin-bretxak») (Turoniarra-Santoniarra)***

Bretxa sindeposizionalak dira; kolada masiboen zatiek eta «kuxin» zatiek osatzen dituzte batik bat, eta, neurri txikiagoan, arroka sedimentario eta piroklastikoen zatiek, matrize fin batean (nahiko eskasa) pilatuta. Klastoak heterometrikoak dira, partzialki biribilduak. Biribiltze horrek mugatua izan behar du, morfologia oboidea eta kontsolidazio-maila ez oso garrantzitsua duten «kuxin» zatiak baitira.

Bretxa horien genesisia koladaren bilakaerarekin eta hoztearekin eta paleoerliebeen presentziarekin lotuta dago. Kolada oraindik mugitzen ari denean sortzen dira; «kuxin-labak» edo kolada-aurrealdeak, oraindik finkatu gabe daudenak, maldan behera lerratuko lirakeke, eta beraz, hautsi eta berriki jarritako matrize zinematiko-piroklastiko batean enbalatuko lirakeke. Zati horien artean, aurrez utzitako beste arroka mota batzuen zatiak utziko lirakeke, neurri txikiagoan bada ere.

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


LITOLOGÍA
LITOLOGIA

MAPAREN ZENBAKIA

8

DATA

18/06/2022



- 02 - Pikor larriko arroka detritikoak (Hareharriak). Nagusia / Rocas detríticas de grano grueso (Areniscas). Dominante
- 08 - Txandatako detritikoak / Detríticos alternantes
- 12 - Kareharriak / Calizas
- 13 - Arroka bolkaniko piroklastikoak / Rocas volcánicas piroclásticas
- 14 - Arroka bolkanikoak isurietan / Rocas volcánicas en coladas
- 17 - Kareharri tupatsuen, tupa karetsuen eta kalkareniten arteko txandakatzea / Alternancia de margocalizas, margas calizas y calcarenitas
- 20 - Arroka igneoak / Rocas ígneas

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


LITOLOGÍA (DESCRIPTIVA)
LITOLOGIA (XEHATUA)

MAPAREN ZENBAKIA

9

DATA

18/06/2022



5.- Areniscas silíceas con escasos niveles de lutitas

6.- Lutitas calcáreas negras. Pasadas de areniscas

7.- Sills básicos

8.- Margas gris oscuro esquistasas, con intercalaciones de calizas arenosas

9.- Intercalaciones areniscosas en margas negras

10.- Calizas micríticas negras

11.- Coladas volcánicas con estructura en "pillow"

12.- Coladas volcánicas masivas y traquitas

13.- Rocas volcanoclasticas

14.- Brechas volcánicas ("pillow-brechas")

EZAUGARRI GEOMORFOLOGIKOAK

Elgoibarko lurraldea osatzen duten material litologikoetan hainbat faktore geologikok izan dute eragina. Faktore geologiko horiei euria gehitu behar zaie, besteak beste, eta faktore horien guztien artean, gaur egun ikus dezakegun erliebe zehatza osatu da.

Karakateko Landa Parkea tarteko erliebeen giro morfodinamikoaren baitan kokatzen da, eta morfologia eta topografia aldakorreko mendi-hegalek irudikatzen dute.

Irukurutzeta mendigunea mendebaldeko tarteko erliebeetan kokatuta dago. Morfologia eta prozesuak malda handiko eta ertaineko mendi-hegaletan bereizgarriak izaten direnak dira. Hegal horiek sakan eta erreka estuek zeharkatzen dituzte, eta higadura-eta ibai-garraioko prozesuek eragiten diete.

- Barne hartzen dituzten landareen eta animalien hondakin organikoak sortzeko eta prozesatzeko (mineralizatzeko) gaitasun ertaina dute, eta, beraz, horien hustubidea dela esan genezake. Ekosistema horietan nolabaiteko edafogenesia dago.
- Airea arazteko gaitasun ertaina dute, gutxi garatutako baso-masa hasiberriak baitira.
- Era berean, karbono atmosferikoa finkatzen dute. Kasu honetan, berotegi-efektuko gasak finkatzeko indize nahiko xumeak dituzte.
- Ziklo hidrológico ere erregulatzeko dute, horien geruza edafikoa dela eta; horrela, prezipitazioak lurrera erori eta pixkanaka bideratzen dira,

higadura-prozesuak saihestuz eta geruza edafikoan erreserba hidriko egokiak mantenduz (bertatik elikatzen dira formazio honetan berezkoak diren landareak).

- Hazi eta biomasa asko ekoizten diren paisaiak dira; oro har, faunarentzako baliabide trofiko onak dituzte eta haziak sakabanatzen dira, landarerik gabeko adabakiak kolonizatzen.
- Oro har, herritarrak sentsibilizatzeko, hezteko eta prestatzeko irakaskuntza- eta pedagogia-baliabide onak dituzte. Kasu honetan, berezko edo basoko leheneratzearekin lotuta, hondamendi natural edo antropiko baten ondoren.

Koniferoen BASO-PLANTAZIOAK

Koniferoen basoberritze gehienak intsinis pinuaren (*Pinus radiata*) espezieari dagozkio. Dena den, badira beste espezie batzuk –*Pinus pinaster*, *Pinus nigra*, sekuoia, izeiak, alertzea, kriptomera, etab.– detektatzen diren enklabe txikiak ere.

Gaur egun, intsinis pinuaren pinudi asko galtzen eta lehortzen ari dira, gaixotasun kriptogamiko batzuen ondorioz. Edonola ere, koniferoen plantazio horiek basoko paisaiari nolabaiteko heterogeneotasuna ematen badiote ere, balio ekologiko oso mugatuak eta urriak dituzte, eta paper-orea ekoizteko erabiltzen dira batik bat.

Horrela, bada, ekoizpenerako bokazioa duten benetako baso-laboreak dira. Horregatik, hornidura-zerbitzu batzuk (paper-orea) dituzte, baina ekologia, ingurumena edo kultura erregulatzeko oso zerbitzu gutxi.

Zorionez, espezie nagusia ez da maiz edo eraginkortasunez basatzen edo hazten, eta, beraz, ezin dira espezie xenofitotzat hartu, baina bai aloktonotzat; horrenbestez, desagerrarazi edo saihestu egin behar dira Karakateko Landa Parkearen gisako ingurune natural edo naturalizatuetan.

Landarediari dagokionez, basoberritze horietan honako espezie hauek aurki ditzakegu: *Pinus radiata*, *P. pinaster*, *Picea abies*, *Chamaecyparis lawsoniana*, *Quercus robur*, *Castanea sativa*, *Robinia pseudoacacia*, *Hedera helix*, *Rubus ulmifolius*, *Crataegus monogyna*, *Smilax aspera*, *Clematis vitalba*, *Brachypodium sylvaticum*, *Pteridium aquilinum*, *Dactylis glomerata*, *Centaurea debauxii*, *Taraxacum officinale* eta abar.

Espezie ornodunak ere ez dira bereziki anitzak: *Bufo spinosus*, *Coronella austriaca*, *Vipera seoanei*, *Buteo buteo*, *Falco tinunculus*, *Asio otus*, *Dendrocopos major*, *Erithacus rubecula*, *Troglodytes troglodytes*, *Sylvia borin*, *Aegithalos caudatus*, *Pica pica*, *Sorex minutus*, *Vulpes vulpes*, *Meles meles* eta *Capreolus capreolus*.

Koniferoen baso-plantazioek hornidura-zerbitzu ekosistemikoak dituzte, funtsean:

- Funtsezko balioa dute, zuraren ekoizpena (kasu honetan, gainera, nahiko biguna eta azkar hazten dena), eta paper-ore gisa erabiltzen da tradizioz. Hala ere, baso-laborantza hori desagertzen ari da infekzio kriptogamikoaren eta paper-orearen prezioaren beherakadaren ondorioz.
- Konektatzeko gaitasun txikia dute eta, beraz, animalia- eta landare-espezie ugari saihestu egiten dituzte adabaki horiek.
- Klima erregulatzeko gaitasun txikia dute. Horien izaera ez-iraunkorrak mugatu egiten du zerbitzu hori.
- Bertan bizi diren landareen eta animalien hondakin organikoak sortzeko eta prozesatzeko (mineralizatzeko) gaitasun txikia dute. Baso horietan nolabaiteko edafogenesia dago, baina oso eskasa; gainera, baso-soilketak egitean eta zura ateratzean, geruza hori arrastan eraman eta kendu egiten da, hein handi batean.
- Aire arazteko gaitasun ertaina dute.
- Era berean, karbono atmosferikoa finkatzen dute. Kasu honetan, berotegi-efektuko gasak finkatzeko indize ertainak dituzte. Hala ere, ohartarazi behar da baso horiek moztu ahala, metatutako karbono hori atmosferara isuriko litzatekeela berriro.
- Ziklo hidrologikoa ere erregulatzen dute, horien geruza edafikoa dela eta; horrela, prezipitazioak lurrera erori eta pixkanaka bideratzen dira, higadura-prozesuak saihestuz eta geruza edafikoan erreserba hidriko egokiak mantenduz. Hala ere, ustiatzen diren bakoitzean (normalean, baso-soilketa bidez) higadura edafikoko prozesu ugari eta sakonak gertatzen dira, eta, beraz, lurzoru horren zati handi bat arrastan eramaten da.
- Ez dute ia kultura- edo aisia-zerbitzurik.

Eukaliptoen BASO-PLANTAZIOAK

Aurrekoek bezala, baso-bokazio argia duten basoko plantazioak edo sailak dira. Gehien erabiltzen den espeziea *Eucalyptus globulus* da. Baso estuak dira, oso landaketa-koadro erregularrekoak, eta fusteak azkar hazten dira, argirantz iristeko asmoz.

Eukalipto substantzia alelopatikoak jariatzeko gai den espeziea da, eta ez die hazten edo aurrera egiten uzten gainerako landare-espezie gehienei; beraz, oso espezie gutxiko teselak sortzen ditu. Era berean, baso-fauna autoktonoa ez da mota horretako plantazioetara ohitu eta, horregatik, ornodun-espezie gutxi bizi dira horietan. Bestalde, lore ugari sortzen ditu, eta horiek ezta ekoizteko aprobetxa daitezke. Eukaliptoaren ezta oso preziatua da bere ezaugarri baltsamikoengatik, eta arnasketa-prozesuetarako erremedio gisa erabil daitezke bere aplikazioengatik.

Hala ere, eukalipto-sailek arrisku nabarmena dute, horiek ugaritzean lekualdatu egiten baitira espezie autoktono asko. Hori gutxi balitz, pirofitoa denez, baso-suteak sortzeko

eta ugaritzeko arriskua eragiten du, eta horixe gertatzen ari da gurearen antzeko lurraldeetan, hala nola Kantabrian eta Galizian.

Eskaintzen dituzten zerbitzu ekosistemiko bakarrak ekoizpena eta hornikuntzara mugatzen dira, batez ere paper-orearenera.

Landarediari dagokionez, eukalipto-sailatan honako espezie hauek aurki ditzakegu: *Eucalyptus globulus*, *Quercus rubra*, *Q. robur*, *Castanea sativa*, *Betula pendula*, *Robinia pseudoacacia*, *Hedera helix*, *Rubus ulmifolius*, *Ulex europaeus*, *Erica vagans*, *Brachypodium sylvaticum*, *Pteridium aquilinum*, *Teucrium scorodonia*, *Betonica officinalis*, *Pseudarrhenatherum longifolium* eta abar.

Espezie ornodunak ere ez dira bereziki anitzak: *Bufo spinosus*, *Podarcis muralis*, *Vipera seoanei*, *Tyto alba*, *Dendrocopos major*, *Erithacus rubecula*, *Troglodytes troglodytes*, *Sylvia atricapilla*, *Aegithalos caudatus*, *Parus major*, *Crocidura russula* eta *Vulpes vulpes*.

Eukaliptoen baso-plantazioek hornidura-zerbitzu ekosistemikoak dituzte. Horien artean, honako hauek dira nagusi:

- Funtsezko balioa dute, zuraren ekoizpena (kasu honetan, gainera, nahiko biguna eta azkar hazten dena), eta paper-ore gisa erabiltzen da tradizioz. Hala ere, paper-orearen prezioak behera egin duenez, galtzen ari da baso-laborantza horren lehiakortasun ekonomikoa.
- Baso horietatik eukalipto-eztia atera daiteke; izan ere, oso preziatua da hark dituen gaitasun balsamikoengatik.
- Dizerbitzu argia du, jariatzen dituen substantzia alelopatikoek desagerrarazi egiten baitituzte landare-espezie autoktonoak.

Biodibertsitatearen murrizketa hori gutxi balitz, erraz ugaritzen da eta, moztu ondoren, modu independente eta automatikoan ernamuntzen da. Xenofita bihur daiteke, oso erraz.

- Pirofitoak direnez, beste dizerbitzu bat dute, baso-sute larriak eragiten eta zabaltzen baitituzte.
- Konektatzeko gaitasun oso txikia dute, eta, beraz, animalia- eta landare-espezie ugarik saihestu egiten dituzte adabaki horiek (oraindik ez dira horietara ohitu).
- Klima erregulatzeko gaitasun txikia dute. Horien izaera ez-iraunkorrak mugatu egiten du zerbitzu hori.
- Bertan bizi diren landareen eta animalien hondakin organikoak sortzeko eta prozesatzeko (mineralizatzeko) gaitasun txikia dute. Baso horietan nolabaiteko edafogenesia dago, baina oso eskasa; gainera, baso-soilketak egitean eta zura ateratzean, geruza hori arrastan eraman eta kendu egiten da, hein handi batean. Gainera, lurra azidotzen dute zertxobait.
- Aire arazteko gaitasun ertaina dute.

- Era berean, karbono atmosferikoa finkatzen dute. Kasu honetan, berotegi-efektuko gasak finkatzeko indize ertainak dituzte. Hala ere, ohartarazi behar da baso horiek moztu ahala, metatutako karbono hori atmosferara isuriko litzatekeela berriro.
- Ziklo hidrogikoa ere erregulatzen dute, horien geruza edafikoa dela eta; horrela, prezipitazioak lurrera erori eta pixkanaka bideratzen dira, higadura-prozesuak saihestuz eta geruza edafikoan erreserba hidriko batzuk mantenduz. Hala ere, planifolioak direnez eta behar hidriko moderatua dutenez, ur edafikoaren aparteko erauzketa egin dezakete. Bestalde, ustiatzen diren bakoitzean (normalean, baso-soilketa bidez) higadura edafikoko prozesu ugari eta sakonak gertatzen dira, eta, beraz, lurzoru horren zati handi bat arrastan eramaten da.
- Ez dute kultura- edo aisia-zerbitzurik. Pertsona batzuek hostoak hartzen dituzte, arnas eritasun jakin batzuen aurkako erremedioak egiteko.

Koniferoen eta hostozabalen BASO-PLANTAZIOAK

Plantazio mistoko koadroak dituzten orban txikiak dira: koniferoak eta hostozabalak. Esaterako, beste planifolio-espezie batzuekin txandaka ditzakete pinazeoak (*Pinus radiata* eta *Picea abies*), hala nola haritz gorri amerikarrekin (*Quercus rubra*), pagoarekin (*Fagus sylvatica*) eta eukaliptoekin (*Eucalyptus sp.*).

Landarediari dagokionez, plantazio mistoko basoetan honako espezie hauek aurki ditzakegu: *Pinus radiata*, *P. pinaster*, *Picea abies*, *Chamaecyparis lawsoniana*, *Quercus robur*, *Q. rubra*, *Castanea sativa*, *Robinia pseudoacacia*, *Hedera helix*, *Rubus ulmifolius*, *Crataegus monogyna*, *Prunus spinosa*, *Ligustrum vulgare*, *Smilax aspera*, *Clematis vitalba*, *Brachypodium sylvaticum*, *Pteridium aquilinum*, *Dactylis glomerata*, *Centaurea debauxii*, *Taraxacum officinale* eta abar.

Ornodunak ere ez dira bereziki anitzak, eta, hein handi batean, bat dator konifero-plantazioen kasuan adierazitakoarekin: *Bufo spinosus*, *Coronella austriaca*, *Vipera seoanei*, *Buteo buteo*, *Falco tinunculus*, *Asio otus*, *Dendrocopos major*, *Erithacus rubecula*, *Troglodytes troglodytes*, *Sylvia borin*, *Aegithalos caudatus*, *Pica pica*, *Sorex minutus*, *Vulpes vulpes*, *Meles meles* eta *Capreolus capreolus*.

Koniferoen eta hostozabalen baso-plantazioek hornidura-zerbitzu ekosistemikoak dituzte. Horien artean, honako hauek dira nagusi:

- Funtsezko balioa dute, zuraren ekoizpena (kasu honetan, gainera, nahiko biguna eta azkar hazten dena), eta paper-ore gisa erabiltzen da tradizioz. Hala ere, baso mota horrek beste espezie autoktono bat badu, ekosistema emankorragoa sor dezake; izan ere, papera egiteko balio duten espezieak atera eta zur nobleagoak dituztenak mantendu ahal

izango dira, oholeria, altzariak, lanabesak eta abar hornitzeko aukera emango dutenak.

- Konektagarritasun-indize onak dituzte.
- Neurri batean, biodibertsitate-indize onak dituzte, eta gehienetan koniferoak eta planifolioak txandakatzen dituzte. Baso nahiko zarratuak dira, eta basoko faunak asko estimatzen ditu.
- Konektatzeko gaitasun handia dute, eta, beraz, animalia- eta landare-espezie ugari adabaki horiek erabiltzen dituzte.
- Klima erregulatzeko gaitasun ertaina dute. Horien izaera ez-iraunkorrek mugatu egiten du zerbitzu hori.
- Bertan bizi diren landareen eta animalien hondakin organikoak sortzeko eta prozesatzeko (mineralizatzeko) gaitasun ertain-handia dute. Baso horietan nolabaiteko edafogenesia dago, baina oso eskasa; gainera, baso-soilketak egitean eta zura ateratzean, geruza hori arrastan eraman eta kendu egiten da, hein handi batean.
- Aire arazteko gaitasun ertain-handia dute.
- Era berean, karbono atmosferikoa finkatzen dute. Kasu honetan, berotegi-efektuko gasak finkatzeko indize ertainak dituzte. Hala ere, ohartarazi behar da baso horiek moztu ahala, metatutako karbono hori atmosferara isuriko litzatekeela berriro.
- Ziklo hidrológico ere erregulatzen dute, horien geruza edafikoa dela eta; horrela, prezipitazioak lurrera erori eta pixkanaka bideratzen dira, higadura-prozesuak saihestuz eta geruza edafikoan erreserba hidriko egokiak mantenduz. Hala ere, ustiatzen diren bakoitzean (normalean, baso-soilketa bidez) higadura edafikoko prozesu ugari eta sakonak gertatzen dira, eta, beraz, lurzoru horren zati handi bat arrastan eramaten da. Hala ere, normalean planifolioak mantentzen dira eta, neurri handi batean, higadura-prozesu horiek saihesten dituzte.
- Ez dute ia kultura- edo aisia-zerbitzurik. Halere, konifero-espezieak eta planifolioak konbinatzean, mikologia-ekoizpen interesgarria sortzen da.

Haritz gorrien BASO-PLANTAZIOAK

Haritz gorri amerikarra deiturikoa da, hemen «Ipar haritza» (*Quercus rubra*). Izan ere, biztanleriaren zati handi batek uste du ez dela landare aloktonoa, jatorria herrialde eskandinaviarretan baitu. Hala ere, errealitatea beste bat da: taxon holartiko bat da, hau da, Kanadan eta Estatu Batuetan zehar banatuta dago.

Egia da plantazio horiek paisaia-kalitate handiagoa eta biodibertsitate-indize hobekak dituztela exotikoak dituzten gainerako plantazioekin alderatuta, baina, oro har, oso baso urriak dira.

Espezie hori oso ondo egokitzen da EAeko zona atlantikoko bioingurumen-baldintzetara, baita malda handietara eta geruza edafiko eskas edo ezara ere.

Haritzak eta pagoak baino gehiago hazi da, eta maiz erabili izan da lurraldeko gune menditsuenetan. Hala ere, haritz gorriaren ebaketa-txandak koniferoenak eta eukaliptoenak baino luzeagoak dira, eta, beraz, haritz gorri osaturiko baso bat mozteko 30-40 urte behar dira, gutxienez.

ekoizpen- edo ekonomia-bokazioa du, eta haren zuragatik ustiatzen da. Zura, haritz europarrarena baino bigunagoa izan arren, paper-orea baino erabilera nobleagoetarako erabiltzen da, hala nola oholeriarako eta ardo-upeletarako (ardoa ontzeko). Altzari, lanabes eta habeetarako ere erabili izan da landa-eremuko eraikuntzetan.

Landarediari dagokionez, hariztietan honako espezie hauek aurki ditzakegu: *Quercus rubra*, *Q. robur*, *Q. pirenaica*, *Ilex aquifolium*, *Pirus cordata*, *Prunus avium*, *Castanea sativa*, *Betula pendula*, *Frangula alnus*, *Corylus avellana*, *Fagus sylvatica*, *Hedera helix*, *Rubus ulmifolius*, *Hypericum androsaemum*, *Lonicera periclymenum*, *Erica vagans*, *Pteridium aquilinum*, *Brachypodium sylvaticum*, *Deschampsia flexuosa*, *Blechnum spicant*, *Euphorbia amygdaloides*, *Teucrium scorodonia*, *Simethis mattiazzii*, *Stachys officinalis*, *Primula vulgaris*, *Lathyrus montanus* eta abar.

Ornodunei dagokienez, honako hauek ageri dira: *Salamandra*, *Rana temporaria*, *Lacerta viridis*, *Elaphe longissima*, *Buteo buteo*, *Hieraëtus pennatus*, *Strix aluco*, *Dendrocopos major*, *Troglodytes troglodytes*, *Hippolais polyglota*, *Anthus trivialis*, *Sylvia atricapilla*, *Muscicapa striata*, *Phylloscopus Bonelli*, *Regulus ignicapillus*, *Parus caeruleus*, *Garrulus glandarius*, *Fringilla coelebs*, *Erinaceus europaeus*, *Crociodura suaveolens*, *Sciurus vulgaris*, *Lepus europaeus*, *Clerhionomys glareolus*, *Meles meles*, *Sus scrofa* eta *Capreolus capreolus*.

Haritz gorriaren baso-plantazioek hornidura-zerbitzu ekosistemikoak dituzte batik bat. Horien artean, honako hauek dira nagusi:

- Funtsezko balioa dute, zuraren ekoizpena (kasu honetan, gainera, nahiko noblea eta azkar hazten dena), eta ardo-upelak (ardoa ontzeko), altzariak eta abar egiteko erabili da tradizioz.
- Konektagarritasun-indize onak dituzte, fauna horietara ohituta baitago. Hala ere, baso urriak edo ez oso anitzak dira oro har, taxonei nahiz egiturari dagokienez.
- Klima erregulatzeko gaitasun handia dute. Horien izaera ez-iraunkorrak mugatu egiten du zerbitzu hori.
- Bertan bizi diren landareen eta animalien hondakin organikoak sortzeko eta prozesatzeko (mineralizatzeko) gaitasun ertain-handia dute. Baso horietan nolabaiteko edafogenesia dago, baina oso eskasa; gainera, baso-soilketak egitean eta zura ateratzean, geruza hori arrastan eraman eta kendu egiten da, hein handi batean.

- Airea arazteko gaitasun handia dute.
- Era berean, karbono atmosferikoa finkatzen dute. Kasu honetan, berotegi-efektuko gasak finkatzeko indize ertainak dituzte. Hala ere, ohartarazi behar da baso horiek moztu ahala, metatutako karbono hori atmosferara isuriko litzatekeela berriro.
- Ziklo hidrologikoa ere erregulatzen dute, horien geruza edafikoa dela eta; horrela, prezipitazioak lurrera erori eta pixkanaka bideratzen dira, higadura-prozesuak saihestuz eta geruza edafikoan erreserba hidriko egokiak mantenduz. Hala ere, ustiatzen diren bakoitzean (normalean, baso-soilketa bidez) higadura edafikoko prozesu ugari eta sakonak gertatzen dira, eta, beraz, lurzoru horren zati handi bat arrastan eramaten da.
- Ez dute ia kultura- edo aisia-zerbitzurik. Hala ere, nahiko aberatsak dira mikologiaren aldetik eta, nahiko baso «garbiak» direnez eta udazkenean okre-, laranja- eta purpura-tonuak izaten dituztenez, herritarrek horien pertzepzio oso ona dute, erlaxatzeko eta kontenplaziorako balio baitute.

Sasiakaziaren (*Robinia pseudoacacia*) BASO-PLANTAZIOAK

Sasiakaziak (*Robinia pseudoacacia*) Estatu Batuetako ekialdean du jatorria, ZEHAZKI Apalaches mendietan, eta duela mende eta erdi txertatu zuten Euskal Herrian. Zabaldu, ugaritu eta basatu egin den planifolia denez, eta baso atlantikoetan maiz ikusten denez, biztanleriaren zati handi batek autoktonotzat jotzen du. Bestalde, xenofita arriskutsua da eta, beraz, desagerrarazi egin beharko litzateke, bertako flora lekualda baitezake.

Azkar hazten den zuhaitza da, baina, hala ere, zur gogorra du, erraz usteltzen ez dena; horregatik, zelaiak banatzeko hesiak eta hesolak sortzeko ustiatu da tradizioz. Horregatik, lehen sektoreak asko estimatzen eta baloratzen duen espezie da, batez ere abeltzainek. Erlezainek ere asko estimatzen dute, horien loreek ezti ona sortzen baitute erleek horien nektarra xurgatzen dutenean. Oso kolore argiko ezti da, merkatuan asko baloratzen eta estimatzen dena, oso leuna delako eta zapore gozoa duelako.

Ez da baso gisa egituratzen; ale edo unada nahiko isolatu gisa agertzen da, baso mota guztiakin nahastuta, batez ere baso misto atlantiko-hariztira basoberritzeko etapetan. Horregatik, honako espezie hauek hartzen ditu barne: *Fraxinus excelsior*, *Castanea sativa*, *Ilex aquifolium*, *Corylus avellana*, *Ulmus minor*, *Sambucus nigra*, *Salix atrocinerea*, *Prunus avium*, *Acer campestre* eta abar. Baita zuhaixka, mulu eta landare igokariak ere: *Cornus sanguinea*, *Frangula alnus*, *Prunus spinosa*, *Crataegus monogyna*, *Hedera helix*, *Rubus ulmifolius*, *Hypericum androsaemum*, *Tamus communis*, *Rosa gr. canina*, *Clematis vitalba*. Eta landare belarkara hauek: *Pteridium aquilinum*, *Carex sylvatica subsp. sylvatica*, *Pseudarrhenatherum longifolium*, *Eupatorium cannabinum*, *Potentilla erecta*, *Brachypodium sylvaticum*, *Plantago lanceolata*, *Taraxacum officinale*, *Blechnum spicant* eta abar.

Bestalde, baso autoktonoa ez izan arren, ornodun ugari har ditzake, hala nola: *Alytes obstetricans*, *Bufo spinosus*, *Podarcis hispanica*, *Coronella austriaca*, *Elaphe longissima*, *Falco tinunculus*, *Upupa epops*, *Anthus trivialis*, *Troglodytes troglodytes*, *Hippolais polyglota*, *Sylvia atricapilla*, *Prunella modularis*, *Parus major*, *Pica pica*, *Lanius collurio*, *Carduelis carduelis*, *Erinaceus europaeus*, *Crocidura russula*, *Oryctolagus cuniculus*, *Arvicola terrestris*, *Clerhionomys glareolus*, *Meles meles*, *Vulpes vulpes*.

Sasiakaziaren baso-plantazioek hornidura-zerbitzu ekosistemikoak dituzte batik bat. Horien artean, honako hauek dira nagusi:

- Funtsezko balioa dute: zuraren ekoizpena (kasu honetan, azkar hazten da eta oso gogorra da). Zur hori hesolak sortzeko erabiltzen da tradizioz, alanbre arantzadunak erabiliz lurzorua perimetroa hesitzeko.
- Biztanleriak asko estimatzen du horien infloreszentzia, oso ugaria eta lore zuriko lukuduna; izan ere, oso tonu argiko ezti egin daiteke, zapore onekoa eta merkatuan oso preziatua. Ezti asko ematen duen espeziea da.
- Bestalde, dizebitzu argi bat eragiten du, zuhaitz autoktonoen txoko ekologikoa okupatzen duelako (horiek lekualdatu edo ordeztu ondoren). Gainera, erraz basatzen eta naturalizatzen da, beraz, desagerrarazi egin beharko litzatekeen xenofita bat bihurtu da.
- Hala ere, tokiko fauna ornoduna guztiz ohitu da sasiakaziara, eta ez du inolako arazorik sortzen zentzu horretan; biodibertsitate-indize onak mantentzen ditu eta ezin hobeto funtziona dezake etenik gabeko konektore ekologiko gisa.
- Klima erregulatzeko gaitasun handia dute. Horien izaera ez-iraunkorrak mugatu egiten du zerbitzu hori.
- Horien unadetan hazten diren animalien eta landareen hondakin organikoak sortzeko eta prozesatzeko (mineralizatzeko) gaitasun handia dute. Unada horietan edafogenesi egokia dago, baina horiek moztean eta erauztean, pixkanaka sortu den geruza edafikoa hondatzea gerta liteke. Nolanahi ere, baso nahiko zabalak eta trinkoak sortzen ez direnez – unadak baino ez–, mozketa eta erauzketa nahiko selektiboa egin behar da eta, beraz, ez da edafogenesia galtzen.
- Aire arazteko gaitasun handia dute.
- Era berean, karbono atmosferikoa finkatzen dute. Kasu honetan, berotegi-efektuko gasak finkatzeko indize altuak dituzte. Hala ere, ohartarazi behar da unada horiek moztu ahala, metatutako karbono hori atmosferara isuriko litzatekeela partzialki.
- Ziklo hidrogikoa ere erregulatzen dute, horien geruza edafikoa eta sustrai-sistema direla eta; horrela, prezipitazioak lurrera erori eta pixkanaka bideratzen dira, higadura-prozesuak saihestuz eta geruza edafikoan erreserba hidriko egokiak mantenduz. Hala ere, ustiatzen diren

bakoitzean (normalean baso-soilketa bidez), higadura edafiko nahiko puntuala eragiten duen prozesuren bat edo beste sor daiteke.

- Onespen eta pertzepzio nahiko ona dute biztanleriaren aldetik, ez-exotikotzat jotzen baitute. Edonola ere, espezie xenofitoek sortzen duten problematika irakasteko baliabide gisa erabil daiteke.

SASTRAKAK, OTADIAK ETA LARREAK

Antzinako soro landuak, zelaiak edo bota egin zituzten basoak dira. Dinamika naturalaren ondorioz, eta gizakiak ez erabili, kudeatu eta/edo mantendu izanaren ondorioz, ekosistemek euren egoera potentzialerantz eboluzionatu dute eta, beraz, gaur egun sastraka nahiko itxiak daude. Pixkanaka, sastraka horiek baso gazteak bihurtuko dira, eta hasieran nahasi samarrak izan arren, kudeaketa antropikorik ez badago, euren oreka-egoerara iritsiko liriateke baso misto-harizti gisa, aurrez deskribatutako edozein modutan.

Mota horretako paisaiak ez dira oso ugariak eta biodibertsitate-balio apalak dituzte, baina, aldi berean, ingurumen-balio jakin bateko landare-taxon eta animalia-taxon askoren babesleku dira.

Sastraka, otadi eta larre mota horiek honako espezie hauek hartzen dituzte: *Ulex europaeus*, *U. gallii*, *Erica vagans*, *Daboecia cantabrica*, *Cornus sanguinea*, *Frangula alnus*, *Prunus spinosa*, *Crataegus monogyna*, *Hedera helix*, *Rubus ulmifolius*, *Hypericum androsaemum*, *Tamus communis*, *Rosa gr. Canina*, *R. arvensis*, *Clematis vitalba*, *Pteridium aquilinum*, *Carex sylvatica subsp. sylvatica*, *Pseudarrhenatherum longifolium*, *Eupatorium cannabinum*, *Potentilla erecta*, *Brachypodium sylvaticum*, *Plantago lanceolata* eta abar.

Bestalde, ondo garatutako baso heldua ez izan arren, ornodun ugari hartzen dituzte, hala nola: *Alytes obstetricans*, *Bufo spinosus*, *Podarcis hispanica*, *Coronella austriaca*, *Elaphe longissima*, *Natrix natrix*, *Falco tinunculus*, *Upupa epops*, *Anthus trivialis*, *Troglodytes troglodytes*, *Hippolais polyglota*, *Anthus trivialis*, *Sylvia atricapilla*, *Cuculus canorus*, *Phylloscopus bonelli*, *Prunella modularis*, *Parus major*, *Lanius collurio*, *Carduelis carduelis*, *Carduelis cannabina*, *Erinaceus europaeus*, *Crocidura russula*, *Pipistrellus pipistrellus*, *Oryctolagus cuniculus*, *Arvicola terrestris*, *Clerthionomys glareolus*, *Glyx glyx*, *Meles meles*, *Vulpes vulpes* eta *Sus scrofa*.

Sastraka, otadi eta larreek honako zerbitzu ekosistemiko hauek dituzte:

- Balio handiko habitatak dituzte, eta formazio nahiko nahasiak, baina horiei lotutako flora- eta fauna-espezie bereziak dituzte.
- Ez dute konektagarritasun onik; izan ere, askotan atomizatuta egoten dira, baina balio handiko korridore ekologikoak sor ditzakete baso-orban helduagoen artean.

- Klima erregulatzeko gaitasun ertaina dute, eta muturreko tenperaturak arindu, hezetasun erlatiboaren indize moderatuak mantendu eta prezipitazioak erregulatu dituzte, horiek uholdeak sortzeko modukoak izan arren. Itxiak direnez, higadura-prozesuak saihesten laguntzen dute.
- Barne hartzen dituzten landareen eta animalien hondakin organikoak sortzeko eta prozesatzeko (mineralizatzeko) gaitasun ertaina dute, eta, beraz, horien hustubidea dela esan genezake. Zakardi horietan edafogenesia moderatua da.
- Airea arazteko gaitasun txiki-ertaina dute, sastraka-masa gisa konfiguratu baitira.
- Era berean, karbono atmosferikoa finkatzen dute. Kasu honetan, berotegi-efektuko gasak finkatzeko indize nahiko xumeak dituzte.
- Ziklo hidrogikoa ere erregulatu dute, horien geruza edafikoa dela eta; horrela, prezipitazioak lurrera erori eta pixkanaka bideratzen dira, higadura-prozesuak saihestuz eta geruza edafikoan erreserba hidriko egokiak mantenduz (bertatik elikatzen dira formazio honetan berezkoak diren landareak). Formazioa bera nahiz bertan bizi diren espezieen gailu erradikularrak nahasiak direnez, babesleku hona dira lurzoruentzat.
- Biomasa asko ekoizten dituzten paisaiak dira; oro har, faunarentzako baliabide trofiko onak dituzte eta haziak sakabanatzen dira, landarerik gabeko adabakiak kolonizatzeko.
- Oro har, herritarrak sentsibilizatzeko, hezteko eta prestatzeko irakaskuntza- eta pedagogia-baliabide onak dituzte. Kasu honetan, berezko edo basoko leheneratzearekin lotuta daude, nekazaritzako praktika tradizionalak bertan behera utzi ondoren.

BELARDIAK

Ekosistema eta paisaia erabat kulturalak dira, eta gizakiak ezinbestean mantendu eta kudeatu behar ditu lurraldearen tesela horiek. Sektore horiek nekazaritzako ekoizpena bideratuta egon ohi dira, kasu honetan, abereen ustiapen estentsibotik eratorriak.

Gizakiak landare-pantailen aldeko hautua egin du soroak inguratuz, eta horrek ekosistema mistoak sorrarazi ditu. Hori dela eta, landaredia eta fauna mistoa agertu da, heliofiloa nahiz esziofiloa, basokoa nahiz espazio irekietan bereizgarri dena.

Biodibertsitate-maila handia eta balorazio sozial altua dute. Horrela, bada, identitate-izaerako eremuak dira, eta biztanleek pertzepzio- eta bizipen-lotura nabarmena dute horiekin.

Belardiak zuhaixka-landarez, zuhaixkaz eta zuhaitzez inguratuta egoten dira, eta honelako espezieak aurki daitezke: *Fraxinus excelsior*, *Laurus nobilis*, *Castanea sativa*, *Ilex aquifolium*, *Corylus avellana*, *Ulmus minor*, *Sambucus nigra*, *Salix atrocinerea*,

Prunus avium, Juglans regia, Acer opalus, A. campestre, Robinia pseudoacacia, Cornus sanguinea, Frangula alnus, Euonymus europaeus, Prunus spinosa, Crataegus monogyna, Hedera helix, Rubus ulmifolius, Hypericum androsaemum, Tamus communis, Rosa gr. canina, R. arvensis, Clematis vitalba eta abar.

Bestalde, ekosistema horretan landare belarkarak dira nagusi. Normalean, abereak berak edo gizakiak hala aukeratuta, horientzat erakargarrienak diren espezieak bilatzen dira, batez ere gramineoen taldekoak, eta horien artean honako hauek nabarmentzen dira: *Trifolium pratense, T. repens, T. dubius, Ranunculus acris, Plantago lanceolata, Rumex conglomeratus, R. acetosa, R. bucefaloforus, R. pulcher, Leucanthemum crassifolium, Vicia sativa subsp. cordata, Taraxacum officinale, Carex divulsa subsp. divulsa, Calystegia sepium, Gallium mollugo, Holcus lanatus, Dactylis glomerata, Bromus hordeaceus, Lolium multiflorum, Daucus carota, Cerastium fontanum subsp. vulgare, Conopodium majus, Geranium colombinum, Anthoxanthum odoratum, Festuca arundinacea subsp. arundinacea, Lathyrus pratensis, Sonchus oleraceus, Veronica chamaedrys, Poa pratensis, Mentha suaveolens, Verbena officinalis, Picris hieracioides, Linum bienne* eta abar.

Faunari dagokionez, eremu horiek bereziki bioanitzak dira, basoko edo erdibasoko espezieek nahiz eremu irekietako espezieek dituzten beharrei erantzuten baitiete.

Horregatik, unitatearen barruan taxon ugari biltzen dira: *Alytes obstetricans, Bufo spinosus, Anguis fragilis, Lacerta viridis, Podarcis muralis, Natrix natrix, Buteo buteo, Falco tinnunculus, Coturnix coturnix, Columba livia, Streptopelia decaocto, Tyto alba, Upupa epops, Hirundo rustica, Motacilla alba, Prunella modularis, Erithacus rubecula, Phoenicurus ochuros, P. phoenicurus, Turdus merula, T. philomelos, T. viscivorus, Lanius collurio, Passer domesticus, P. montanus, Falco tinnunculus, Muscicapa striata, Parus caeruleus, Carduelis caruelis, Serinus serinus, Carduelis cannabina, Emberiza citrinella, Erinaceus europaeus, Crocidura russula, C. suaveolens, Oryctolagus cuniculus, Arvicola terrestris, Microtus arvensis, Mus domesticus, Mustela nivalis, Vulpes vulpes, Martes foina, Capreolus capreolus* eta abar.

Belardien paisaiak honako ekosistema-zerbitzu hauek ditu:

- Nolabaiteko balioa duten habitatak dituzte, eta paisaia- eta biodibertsitate-kalitate nabarmenak dituzte.
- Paisaia heterogeneizatzen dute, zuhaitz-estaldurarik gabeko eremu irekiak baitituzte, eta horrelako eremuak behar-beharrezkoak dira basokoak ez diren ornodun askok bizirik irauteko.
- Ezinbestekoak diren baliabideak eskaintzen dituzte, esnea, haragia, gazta eta abar ekoitzi ahal izateko.
- Hurbileko biztanleei eta egoiliarrei lanpostuak ahalbidetzen dizkiete.
- Etxe-abereen hondakin organikoak (mindak, ximaurra, gorotza...) prozesatzeko (mineralizatzeko) gaitasun handia dute. Konpostaren eta gainerako hondakin organikoen hustubide ezin hobeak dira.

- Hala ere, paisaia horietan bada dizerbitzu argi bat: larre horiek gehiegi ustiatzeak –abelburu gehiegi sartuta– hura desagerrarazi dezake, baliabidea agortu egin daitekeelako. Era berean, erabiltzen ez badira edo bertan behera uzten badira, larre makal bihur daitezke eta, gero, landa-paisaia bihurtuko lirateke.
- Horrez gain, atmosferako karbonoa finkatzen dute eta, gainera, karbonoa atxikitzen dute, arestian aipatutako hondakinak asimilatuz. Hori gutxi balitz, berotegi-efektuko gasen kopuru handiak isurtzea saihesten du, hurbileko produktuak ematen dituelako eta horiek urrutiko lekuetatik inportatu behar ez direlako.
- Ziklo hidrológicoa ere erregulatzen dute, horien geruza edafiko nahiko sakona eta egituratua dela eta; horrela, prezipitazioak bideratu egiten dira pixkanaka, higadura-prozesuak saihestuz eta geruza edafikoan erreserba hidriko egokiak mantenduz (geruza horretatik elikatzen dira larreak). Hori lurzoruko materia organiko kantitatearen eta landare-estaldura zabalaren arabera izaten da, baina landare belarkarak dira gehienak.
- Oro har, herritarrak sentibilizatzeko, hezteko eta prestatzeko irakaskuntza- eta pedagogia-baliabide onak dituzte. Are gehiago tradiziozko eta artisautzako ekoizpen-moduak murrizten ari direla eta landa-ehuna desagertzen ari dela kontuan hartuta, kultura-ondare handia izan arren.
- Azkenik, aisialdirako baliabide anitzak dituzte. Izan ere, paisaia hori asko baloratzen da paseoan ibiltzeko, kontenplaziorako, ariketa fisikorako eta abarretarako.
- Kalitatezko koltxoia eskaintzen diote hiri-ehunari; hura apaintzen eta «hanpatzen» dute, eta, horrela, berotze globalaren ondorioak saihesten dira, neurri batean muturreko tenperaturak murriztuz eta fosildutako edo hiriko lurzorua bera iragazkor bihurtuz.

2.3.4. BATASUNAREN INTERESEKO HABITATAK

Europar Batasunaren intereseko habitatak Europar Batasunaren lurraldean banaketa natural oso murriztua duten edota nabarmen murriztu diren habitatak dira (zohikaztegiak, txilardiak, dunak, etab.), baita bertako sei eskualde biogeografikoetako batean nabarmenak eta bereizgarriak diren natura-inguruneak ere. Guztira, ia 200 habitat mota jotzen dira Batasunaren intereskotzat, Zuzentarauaren I. eranskinaren arabera.

Batasunaren intereseko habitat moten artean, honako hauek aurki daitezke Karakateko Landa Parkean (letra lodiz adierazi dira):

4. ZONA EPELETAKO TXILARDI ETA SASTRAKAK

4030. Europako txilardi lehorrak

65. BELARDI MESOFILOAK

6510. Altitude baxuetako sega-belardi txiroak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*)

9. BASOAK

91. EUROPA EPELEKO BASOAK

9120. Atlantikoko pagadi azidofiloak, batzuetan Ilex oihanpearekin eta, beste batzuetan, *Taxus oihanpearekin (Quercion robori-petraeae ou Ilici)*

Landa Parkearen eremuan ez dago lehentasunezko intereseko habitatik.

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


BATASUNAREN INTERESEKO HABITATAK
HÁBITATS DE INTERÉS COMUNITARIO

MAPAREN ZENBAKIA

19

DATA

22/06/2022



- 91E0* - *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-en ibarbasoak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*)
- 6510 - Altitude baxuetako segabelardi txiroak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*)
- 6210* - Belardi lehor seminaturalak eta substratu kalkareotako sastraka-eiteko formazioak (*Festuco-Brometalia*) (orkidea garrantzitsuak)
- 6230* - *Nardus*-en formazio belarkarak, espezie ugariarekin, zona menditarreko (eta Europa kontinentaleko zona azpimenditarreko) substr
- 9120- Pagadi azidofilo atlantiarrak, *Ilex* eta batzutan *Taxus*-ekin (*Quercion robori-petraeae* edo *Ilici-Fagenion*)
- 4030 - Txilardi lehor europarrak

2.3.5. FAUNA-ESPEZIEAK BABESTEKO EREMUAK

Euskadin fauna-intereseko eremu ugari daude, batik bat pertsona gutxi bizi diren mendiguneetan eta hostozabalen baso-masa handietan.

Faunarentzat interesgarriak diren beste gune batzuk ibaiak eta errekek dira, batez ere arriskuan dauden espezieak daudelako.

APLIKATU BEHARREKO ARAU-ESPARRUA

- 167/1996 Dekretua, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa arautzen duena.
- Agindua, 2003ko maiatzaren 20koa, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuarena; honen bidez, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezien Euskadiko Zerrenda aldatzen da. Hutsen zuzenketa.
- Agindua, 1998ko uztailaren 10ekoa, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan Euskal Herriko flora baskularreko 130 taxon eta 6 populazio sartzen dituena. Hutsen zuzenketa.
- Agindua, 1997ko uztailaren 8koa; Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezien Euskadiko Zerrendan espezie, azpiespezie eta ornodun populazio berriak sartzeko dena.
- Agindua, 2011ko urtarrilaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena. Honen bidez, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda aldatzen da, eta testu bakarra onartzen.
- Agindua, 2013ko ekainaren 18koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena. Honen bidez, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda aldatzen da.
- Agindua, 2016ko maiatzaren 6koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena. Haren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira, eta hegazti-faunaren babes-eremuak argitaratzen dira, non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatze edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira.

ARRISKUAN DAGOEN ETA ONARTUTAKO KUDEAKETA-PLANA DUEN FAUNA

Karakateko Landa Parkearen eremuan, fauna-espezieak babesteko zona hauek daude:

- ***Mustela lutreola*** (bisoi europarra): Honako hauek dira espezie horrek Europan izan duen atzerkadaren eragile nagusiak: habitataren aldaketa, harrapakin potentzialen murrizketa, ehiza ez-selektiboa eta bisoi amerikarrarekiko lehia.

GALZORIAN dagoen espeziea da, baina ez da hauteman populazioaren beheranzko joerarik; aitzitik, Araban hedatzen ari dela jakinarazi da. Eskura dagoen informazioak adierazten duenez, bisoiaren egoera ahula da Autonomia Erkidegoan.

Galzorian dago Espainian, eta egoera zaugarrian Europan. Habitataren babesak espeziea detektatu den ibaietan oinarritu behar du, eta honako hauek hartuko lituzke barne: ur-bazterreko landaredia kontserbatzea, ibaien eta erreken ertzak leheneratzea eta uraren kalitatea hobetzea.

2004tik, Ermuaranerreka erreka bisoi europarrarentzako interes bereziko eremu gisa kalifikatuta dago Foru Aldundiak 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren bidez onartutako bisoi europarraren kudeaketa-planean. Bertan, ***Mustela lutreola*** (*Linnaeus, 1761*) Bisoi Europarraren Kudeaketa Plana onartzen da, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

FAUNA BABESTEKO BESTE ZONA BATZUK

1432/2008 Errege Dekretuaren arabera (goi-tentsioko linea elektrikoetako hegaztien elektrokuizioaren eta talken ondoriozko heriotzak murrizteko neurriak ezartzen dituen), Euskal Autonomia Erkidegoko babes-zonak identifikatzeko dokumentu bat egin zen.

Bestalde, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira, eta hegazti-faunaren babes-zonak argitaratzen dira, non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatzeko edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira.

Iradokizun honi dagokion eremuan, hegazti-fauna babesteko zona bat dago, «Gipuzkoa Erdialdeko Sektorea» izenekoan.

KANTAURI EKIALDEKO PLAN HIDROLOGIKOAREN ARABERA BABESTUTAKO ZONAK

Ingurune urtarrarekin lotuta dauden habitatak edo espezieak babesteko izendatuta dauden zonak dira.

Plan Hidrologikoaren arabera, honako hauek dira ingurune urtarrarekin lotutako habitatak edo espezieak babesteko zonak:

«Habitatak edo espezieak babesteko izendatutako zonak dira, baldin eta uraren egoera mantentzea edo hobetzea babesteko faktore garrantzitsua bada, Batasunaren Intereseko Lekuak (92/43/EEE Zuzentaraua), Hegaztientzako Babes Bereziko Zonak (2009/147/EE Zuzentaraua) eta Natura 2000 Sarean sartutako Kontserbazio Bereziko Zonak (92/43/EEE Zuzentaraua) barne; aurrerantzean, BIL, HBBE eta KBE izendatuko dira, hurrenez hurren. Zona horiek nazio mailan babesteko arau-esparrua Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeak osatzen du».

KBAPBren eremuaren kasuan, Ermuaranerrekari dagokion eremua babestuta dago, bisoi europarrari esleitutako babesak eragiten baitio haren ur-masari.

2.3.6. NATURA-INTERESEKO GUNEAK

Lurralde Antolamendurako Gidalerroek Karakate-Irukurutzeta-Agirreburu (kodea: LAG33) izeneko eremua jasotzen dute **«Natura-intereseko beste eremu batzuk»** kategorian, EAeko azpiegitura berdearen barruan. Aipatutako eremua KBAPBren barruan dago oso-osorik.

Era berean, **«EAeko naturagune garrantzitsuen katalogo irekiak» «Natura Intereseko Gune»** gisa jasotzen du (kodea: 36. zenbakia) **Karakate-Irukurutzeta-Agirreburu** gisa ezagutzen den eremua.

Karakate-Irukurutzeta-Agirreburu izen berarekin, KBAPBren eremua ere **Biodibertsitate Erreserba** gisa hartzen da Geoeuskadiko ingurumen-kartografian.



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


FAUNA BABESTEKO EREMUAK
ÁREAS DE PROTECCIÓN DE FAUNA

MAPAREN ZENBAKIA

20

DATA

22/06/2022



Área de interés especial para el visón europeo

Zona de protección de la avifauna

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA



NATURA INTERESEKO EREMUAK
ESPACIOS DE INTERÉS NATURALÍSTICO

MAPAREN ZENBAKIA

21

DATA

22/06/2022



SUSTATZAILEA



IDAZLE TALDEA




INFORMAZIO KARTOGRAFIKOA

Proiekzioa: UTM 30N
Datum: ETRS 89



MAPAREN ESKALA

1:10.000



 Karakate-Lururutzeta-Agerreburu

2.3.7. KORRIDORE EKOLOGIKOAK

Espezieen joan-etorrietarako iragazkortasun handiagoa duen lerro edo pasabide baten inguruan egituratutako elementuek osatzen dute EAEko korridore ekologikoen sarea.

- Lotura-korridoreak eta lotura-eremuak: habitat naturalak eta erdi-naturalak dituzte. Lotzeko elementu garrantzitsuenak dira.
- Indargetze-eremuak: nekazaritza eta basogintzako erabilerak dira nagusi.
- Leheneratze ekologikoko eremuak: zona degradatuak.
- Lotura-interes bereziko ibai-zatiak: lotura-funtzioa duten ibilguak eta ibaiertzak.
- Leheneratze ekologikoko eremuak: aurreko egitura-elementuetan txertatutako gune degradatuak dira, Korridore Ekologikoen Sarearen eremua osatzen dutenak. Meataritzako erauzketa-guneak dira, higadura edafikoko arazoak dituzten mendi-hegalak eta ibaiertz degradatuak, batik bat.

Elgoibarko zati handi bat (hegoaldeko erdialdean) EAEko Korridore Ekologikoen Sarean dago. Honako eremu hauek bereiz daitezke:

- «*Karakate-Irukurutzeta-Agirreburu*» LAGen natura-intereseko eremuari dagozkion lotura-eremuak.
- Lotura-korridoreak (IZARRAITZ ARNO, R11-R9; IZARRAITZ AIZKORRI ARATZ R9 URKIOLA).
- Indargetze-eremuak.
- Leheneratze ekologikoko eremuak.

R9 eskualdek-korridoreak bi natura-elementu batzen ditu: Izarraizko BIL eta Aizkorri-Arazko BIL, eta Gorostiaga mendia du lotura-eremu gisa, *Karakate-Irukurutzeta-Agirreburu* (azken horrek KBAPBren eremuko zati handi bat hartzen du barne).

Korridore ekologikoez lotutako guneen adierazgarritasunari eta garrantziari dagokienez, nukleo-guneetan dauden xede-espezieentzat eta espezie onuradunentzat interesgarriak diren eremuei dagokienez, AIZKORRI-ARAZKO BILen okil beltzarentzat (espezie onuradunak) eta ferra-saguzar txikiarentzat interesgarriak diren eremuak daude.



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


KORRIDORE EKOLOGIKOAK
CORREDORES ECOLÓGICOS

MAPAREN ZENBAKIA

22

DATA

22/06/2022



SUSTATZAILEA




IDAZLE TALDEA




INFORMAZIO KARTOGRAFIKOA




Proiekzioa: UTM 30N
Datum: ETRS 89



MAPAREN ESKALA

1:10.000



-  Korridore loteslea/ Corredor de enlace
-  Eremu loteslea/Área de enlace
-  Moteltzeko eremuak /Áreas de amortiguación

2.4.- INGURUMEN-ARRISKUAK ETA -ARAZOAK


2.4.1. AIREAREN KALITATEA ETA HOTS-KUTSADURA

AIREAREN KALITATEA

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, Elgoibarren ez dago ingurumen-administrazioak kontrolatzen duen airearen kalitatea neurtzeko estazioirik. AZPEITIKOA da gertuen dagoen estazioa, eta bertan OSO ONA da airearen kalitatearen indizea.

Elgoibarren kasuan, honako hauek dira kutsatzaileen kontzentrazio-mailen mapak:

Eusko Jaurlaritzak emandako informazioan jasotzen diren datuen arabera, NO₂, PM₁₀



NO₂: Eguneko maximoa: 0 µg/m³ **KALITATE OSO ONA**

PM₁₀: Eguneko batezbestekoa: 17,39 µg/m³ **KALITATE OSO ONA**

Ozonoa: O₃ maximoa 8 ordutan: 85,73 µg/m³ **KALITATE ONA**

eta Ozonoaren balioek airearen kalitate oso ona islatzen dute.

KALITATE AKUSTIKOA

213/2012 Dekretuko 20. artikulua araberak, eremu akustikoak lurzoruen erabilera nagusia kontuan hartuta sailkatuko dira, modu honetan:

- a) Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.
- b) Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.
- c) Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.
- d) Aurreko paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.
- e) Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak, hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar dutenak.
- f) Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo haiek behar dituzten beste ekipamendu publiko batzuek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak.
- g) **Gaia arautzen duten legeetan babespekotzat jotako eremu natural diren lurralde-esparru edo -sektoreak eta hots-kutsaduraren kontra modu berezian babestu behar diren eremu naturalak.**

Dekretu horren 32. artikulua kalitate akustikoko helburuak ezartzen ditu naturaguneetarako:

«32. artikulua.- G motako eremuetarako kalitateko helburu-balioak.

g) motako eremuetan aplika daitezkeen kalitate akustikoko helburuak bat etorriko dira e) motako eremuetarako finkatutakoekin, hots, osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar duten lurralde-esparru edo -sektoreetarako zehaztutakoekin».

Tipo de área acústica		Índices de ruido		
		L _d	L _e	L _n
E	Ámbitos/Sectores del territorio con predominio de suelo de uso sanitario, docente y cultural que requiera una especial protección contra la contaminación acústica.	55	55	45
A	Ámbitos/Sectores del territorio con predominio de suelo de uso residencial.	60	60	50
D	Ámbitos/Sectores del territorio con predominio de suelo de uso terciario distinto del contemplado en c).	65	65	60
C	Ámbitos/Sectores del territorio con predominio de suelo de uso recreativo y de espectáculos	68	68	58
B	Ámbitos/Sectores del territorio con predominio de suelo de uso industrial.	70	70	60
F	Ámbitos/Sectores del territorio afectados a sistemas generales de infraestructura de transporte, u otros equipamientos públicos que los reclamen.	(1)	(1)	(1)

KBAPBren eremuko kalitate akustikoko helburuek ezin izango dute 55 db-tik gorako zarata-indizerik gainditi jardun potentzialetarako.

2.4.2. ARRISKU GEOFISIKOAK

AKUIFEROEN ZAURGARRITASUNA

Izaera litologikoaren arabera, akuiferoen ezaugarri hidrogeologikoak nabarmen aldatzen dira.

Material bolkanikoen portaera hidrogeologikoa aldatu egin daiteke batez besteko iragazkortasunean arroka bolkaniko eta bolkanosedimentario guztien kasuan; bestalde, oinarritzko sillek iragazkortasun txikia dute.

Kolada bolkaniko masiboak, erdimasiboak eta kuxinak iragazkorrak dira, hautsita daudelako eta arrokaaren egituragatik beragatik; gainera geruza porotsuak dituzte.

Oro har, arroka bolkanoklastikoek eta bretxa bolkanikoek aurrekoek baino iragazkortasun txikiagoa dute, geruza buztintsuagoak daudelako; horrenbestez, haustura-fenomenoekin lotuta egoten da. Iragazkortasun mota horrek heterogeneotasun handia eragiten du multzo bolkanikoaren portaeran.

Ezaugarri hidrogeologikoak kontuan hartuta, Karakateko Landa Parkearen eremuan oso txikia da akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasuna, baina badira zaurgarritasun txikiko gunek ere (arroka bolkanoklastikoak).

- **Birkarga eta deskargarako zonak**

Material horiek azaleratzean gainean zuzenean prezipitatzeko direnean kargatzen dira. Kasu batzuetan, eta toki batzuetan bakarrik, nolabaiteko infiltrazioa gerta daiteke, topografikoki gainean jarrita dauden beste material batzuen ondorioz; baina, oro har, ez da ohikoa. Izan ere, arroka bolkanikoak oso gogorrak direnez, horiek finkatzen dute erliebea, eta inguruko materialen gainetik kokatzen dira.

Jabari osoan ez da emari handiko iturbururik inbentariatu.

Agertzen diren iturburuek 1 l/s inguruko emariak dituzte. Baina oso ugariak dira, baita material horien drainatzea jasotzen duten lur gaineko hartuneak ere.

Domeinuari lotutako baliabidea 55 Hm³-koa da, guztira, urte erdian.

ARAZO GEOTEKNIKOAK

Alderdi horren azterketak lehendik dauden material geologikoen ezaugarri mekanikoei buruzko alde zuzeneko informazioa ematen du, eta sor daitezkeen eraikuntza-arazoak saihezteko erantzun bat ematen du, kasu honetan, kalitatekoa.

Hautemandako arazoak honako aldagai geotekniko hauei erantzuten die:

- **% 30etik gorako maldak**

Muga-balioa % 30ean ezarri da, erabilera arrunteko hainbat arautan jarraitutako irizpidearen arabera. Eraikuntzarako muga bat da, obraren izaera kontuan hartuta. Gainera, higadura-prozesuak errazten ditu, grabitate-fenomenoengatik nahiz jariatze-uren fenomenoenengatik. KBAPBren eremuan horixe da arazo geotekniko nagusia. Landare-estalkiak funtsezko eginkizuna betetzen du arazo geotekniko horri lotutako arriskuak minimizatzeko orduan.

- **Mendi-hegalen ezegonkortasuna**

Fenomeno eta prozesu natural horiek mugimenduan jartzen dituzte lur-masak edo aldatu egiten dituzte mendi-hegalen oreka-baldintzak, egoera kritikoa eraginez. Horregatik, baldintza horiek zertxobait aldatuta aldaketa handiak gerta daitezke.

Hainbat ezegonkortasun mota daude. Honako hauek dira garrantzitsuenak:

- Luiziak: Tamaina aldakorreko blokeen erortzeak dira, malkarretan, itsaslabarretan edo malda handiko lekuetan. Arroka gogorak disgregatzean gertatzen dira, haien eten edo euskarri diren material baten higaduraren ondorioz.
- Lur-irristadurak: Lurraren masa-mugimenduak dira, plano baten edo batzuen bidez. Oro har, lurzoruen eta arroka meteorizatuen deposituei eragiten diete, malda handietan. Uraren eragina erabakigarria izaten da, hark eragiten baitu lurraren saturazioa. Hemen sartzen dira buztinezko kolada-formazioak edo «solifluxioa», eta ekarpen plubiometriko garrantzitsuekin lotuta daude.
- Narraste sakonak eragindako deformazioa (topling): Arroka meteorizatuei eragiten die. Malda handiko mendi-hegaletan gertatzen da, etengune-planoak (estratifikazioa, diaklasak, eskistositate) mendi-hegalekiko paraleloak direnean, eta horien kontrako okerdurak gertatzen direnean. Grabitazio-ekintzen bidez, saturazio-prozesuak lagunduta, tortzio- eta luizi-fenomenoak gertatzen dira maldaren noranzkoan.

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


ARRISKU GEOTEKNIKOAK
RIESGOS GEOTÉCNICOS

MAPAREN ZENBAKIA

23

DATA

23/06/2022



- Istiltzea, Encharcamiento
- Malda biziak (> %30), Pendientes fuertes (> 30%)
- Maldaren ezegonkortasuna, Inestabilidad de ladera
- Uriola, Inundación
- Zama-gaitasuna eta ezarguneak, Capacidad portante y asientos

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


IRRISTATZEKO ARRISKUA
RIESGO DE DESLIZAMIENTO

MAPAREN ZENBAKIA

24

DATA

23/06/2022



- 1. Bajo/Urria
- 2. Medio-bajo/ Ertaina-bajua
- 3. Medio/Ertaina
- 4. Medio-alto/ Ertaina-altua
- 5. Alto/ Altua

HIGADURA-ARRISKUA. HIGADURA-ARRISKUA DUTEN EREMUAK

Lurzoruaren higaduraren definizioa ondorengo hau izan daiteke: hainbat eragileren ondorioz, lurrazalak dituen osagaien galera, bat-batekoa edo etengabekoa. Natura-eragile nagusiak euria eta haizea dira, eta beraz, higadura hidrikoa eta eolikoak izango lirateke kasu honetan. Lurrazaletik dabilela, urak higadura sor dezake, eta horri higadura laminarra edo errekaetakoak deitzen zaio; lurrazen barrualdeko ebakiduretatik dabilela, ura bildu egiten da eta lubaki edo sakanetako higadura eragiten du; ibaietatik dabilela, ordea, arroetako higadura sortzen du. Higadura bat-batekoa bada lurzorua profilean ura geratzen delako, eta higadurak eragindakoa handia bada, lurra dena batera mugitzen dela esango dugu.

Euskal Autonomia Erkidegoko higaduraren mapak urak eragindako higadura laminarra ebaluatzen du. Higadura horren eragilea euri-ura da, eta lurzoruko partikulak astiro-astiro desagerrarazten ditu, baina horren eragina ez da agerikoa epe laburrean.

Euri-ura hegaletatik dabilela, ur-jarioa sortzen da. Ur-emari horrek partikulak arrastaka daramatza eta poliki-poliki desagerrarazten ditu. Ur-jarioa puntu zehatz batean biltzen denean eta hortik aurrera ubide naturaletik jarraitzen duenean, higadura ez da laminarra izango.

Fenomeno hori iragartzea eta kuantifikatzea oso garrantzitsua da; izan ere, lurzoruen degradazio-prozesu honek ez du ohartarazten, edo higadura-mailak handiak direnean bakarrik ohartarazten du. Lurzoruan eragina nabarmena denean, higadura-mekanismoa handiagoa izan da, eta horrek eragingo ditu gerora lubaki edo sakanak. Higadura laminarra iragartzeak prebentziozko politikak ezartzeko aukera ematen du. Hala, lurzoru baliabidea ez da galduko degradazioaren aztarnak agerikoak ez direnean.

Higadura-arriskua RUSLE ekuazioaren arabera ebaluatzen da: Universal Soil Loss Equation, hau da, Lurzoruaren Galeren Ekuazio Unibertsala (berrikusia). Epe luzera lurzoruak batez beste zenbateko galera izango duen (urtean) adierazten du batez beste.

Higadura agerikoa dela esaten dugunean, ulertu behar da ez dagoela lurzorua azalera aldarazten duen lanik, nekazaritza-lanetarako erabiltzen ez dela adibidez, kasu horretan estalita geratuko bailirateke ustezko ebidentziak.

Lurzoruaren galera hektareako eta urteko 10 tonakoa balitz, lurzorua azalak milimetro bat galduko luke urteko, gutxi gorabehera. Baina, galdu ahala, arroka amatik material fina sortzen da –sorrera hori aldatu egin daiteke hainbat faktoreren arabera– eta, beraz, galerak sortutako partikula fin horiekin konpentsatuko lirateke, eta balantze globalean ezin da galera garbiez hitz egin.

LURZORUAREN GALERAK	INTERPRETAZIOA
0 (t/ha eta urteko)	Ez dago higadura-prozesurik; adibidez, hiri eta herrietan, errepideetan, urtegietan eta abarretan.
0-5 (t/ha eta urteko)	Higadura oso txikia da eta lurzoruen galerak onargarriak dira. Ez dago higadura garbirik.
5-10 (t/ha eta urteko)	Higadura txikia da eta lurzoruen galerak onargarriak izan daitezke. Beharbada ez dago higadura garbirik.
10-25 (t/ha eta urteko)	Higadura arina da. Higadura egon badago, baina ez da agerikoa.
25-50 (t/ha eta urteko)	Higadura ertaina da. Higadura egon badago, baina baliteke agerikoa ez izatea.
50-100 (t/ha eta urteko)	Higadura larria da. Higadura agerikoa da.
100-200 (t/ha eta urteko)	Higadura oso larria da. Higadura oso nabaria da.
200 baino gehiago (t/ha eta urteko)	Higadura muturrekoa da. Higadura nabarmena da.

EAEko lurzoruen higaduraren mapak urteko eta hektareako zenbat lur tona galtzen diren ebaluatzen du.

USLEren «Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruen higaduraren maparen» (Eusko Jaurlaritzak, 2005) azterketak emandako datuen arabera, KBAPBren eremuan lurzorugalera arinak dituzten eremuak dira nagusi (zuhaitz-estalkiaren ondorioz).

Lurraldean oso gutxi dira higadura-prozesu oso larriak edo muturrekoak izan ditzaketen lurralde-eremuak.

Muturreko higadura-prozesuak dituzten guneak substratu litologikoak agerian geratu diren lurraldeko zatietan daude, eta ez dago ia zuhaitz-estalkirik.

Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak higadura-arriskua duten eremu horiek jasotzen ditu antolamenduari gainjarritako baldintzatzaile gisa, eta honela definitzen ditu: «*Eremu hauetan, beren ezaugarri litologikoen eta erliebearen ondorioz, higadura-fenomenoak agertzeko erraztasun handiagoa dago*».

Gainera, % 50etik gorako maldak dituzten guneak identifikatu dira. KBAPBren eremuaren orografia malkartsua denez, lurzoruen zati handi bat higadura-arriskuaren eraginpean dago, lurzoru horietan egiten den erabileraren arabera.

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


HIGADURA ERREALA. USLE EREDUA
EROSIÓN REAL.MODELO USLE

MAPAREN ZENBAKIA

25

DATA

23/06/2022



SUSTATZAILEA



IDAZLE TALDEA




INFORMAZIO KARTOGRAFIKOA

Proiekzioa: UTM 30N
Datum: ETRS 89



MAPAREN ESKALA

1:10.000



- 1- Zonas no susceptibles al proceso erosivo, 0 (t/ha y año)
- 2- Zonas con niveles de erosión muy bajos y pérdidas de suelo tolerables. No hay erosión neta 0 a 5 (t/ha y año)
- 3- Zonas con niveles de erosión bajos y pérdidas de suelo que pueden ser tolerables. Probablemente no hay erosión neta. 5 a 10 (t/ha y año)
- 4- Zonas con procesos erosivos leves. Existe erosión, aunque no es apreciable a simple vista. 10 a 25 (t/ha y año)
- 5- Zonas con procesos erosivos moderados. Existe erosión, aunque puede no ser apreciable a simple vista. 25 a 50 (t/ha y año)
- 6- Zonas con procesos erosivos graves. Existe erosión y es apreciable a simple vista. 50 a 100 (t/ha y año)
- 7- Zonas con procesos erosivos muy graves. Existe erosión y es manifiesta a simple vista. 100 a 200 (t/ha y año)
- 8- Zonas con procesos erosivos extremos., Más de 200 (t/ha/año)

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


HIGADURA-ARRISKUA
RIESGO DE EROSIÓN

MAPAREN ZENBAKIA

26

DATA

23/06/2022




 Higadura jasatzeko arriskua duten tokiak (LPS)/ Areas erosionables (PTS)

Maldak/Pendientes

 50-100%

2.4.3. SISMIKOTASUNA

EAEko Arriskuen Maparen arabera, Elgoibar V. arrisku sismikoko zonan dago (ANPLIFIKAZIO ERTAINA-ALTUA) eta, beraz, ez da beharrezkoa larrialdi sismikoko plan bat egitea. Dena den, eraikuntza sismorresistentearen araua bete behar du (997/2002 ED, irailaren 27koa).



2.4.4. SALGAI ARRISKUTSUEN GARRAIOTIK ERATORRITAKO ARRISKUAK

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 1eko 10/2001 Ebazpenaren bidez (Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia argitaratzea xedatzen duena), Euskal Autonomia Erkidegoko errepideez eta trenbideez salerosgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskuagatik sor daitezkeen larrialdie aurre egiteko Plan Berezia onartu zen.

GEOEUSKADIren zerbitzarian eskura dagoen kartografiaren arabera, AP-8 errepideko afekzio-bandek eragiten diote KBAPBren eremuari. Errepide horrek ARRISKU OSO HANDIA du, salgai arriskutsuak garraiatzean gerta daitezkeen istripuengatik.

Landa Parkearen eremuan ez dago ia bizitegi-eraikinik eta, beraz, pertsonen osasunerako arrisku hori minimizatu egiten da. Era berean, eremuaren topografia, haren izaera malkartsua eta haran txiki ahokatuen eta zuhaitz-estaldura trinkoaren presentzia direla eta, eremu horretan arindu egiten dira istripu kimiko baten balizko ondorioak.

2.4.5. BASO-SUTEEN ARRISKUAK

Ingurumen-arrisku hori baloratzeko, dokumentu hau GEOEUSKADIren kartografian oinarritzen da. Kartografia horren informazioa «FORRISK: arrisku naturalak baso-masa atlantikoetan» proiektuaren emaitza da. Proiektu hori 2012ko urritik 2014ko abendura bitartean egin zen, eta aurreikusitako eta identifikatutako baso-arriskuak kudeatzean hartu beharreko neurriak ezagutzea izan zen haren helburu nagusia.

Arriskuaren azterketa egiteko, honako faktore hauek hartu ziren kontuan:

- a) EAEko Baso Inbentarioa.
- b) Erregaitasun-mapa.
- c) Ezaugarri topografikoak.
- d) Aldagai meteorologikoen estatistikak.
- e) Maiztasunari eta kausalitateari buruzko estatistikak.

Nazioartean erabilitako metodologiari jarraituz, EAEko baso-erregaien sailkapena egin da.

Sua zabaltzearen arabera egindako sailkapen horrek, oinarritzko lau erregai-talde zehazten ditu: belarrak, sasiak, zuhaitz azpiko orbela eta basoak moztearen ondorioz bertan geratutako hondakinak. Lau talde horiek 13 erregai motatan banatzen dira:

GRUPOS BÁSICOS DE COMBUSTIBLE	CARACTERÍSTICAS	TIPOS
HERBACEAS	Pequeña talla, consistencia fina y carga ligera.	1
	Acompañadas hasta de 2/3 de matorral o arbolado.	2
	De mayor talla, alrededor de 1 m	3
MATORRALES	Maduros de más de 2 m y repoblados jóvenes.	4
	Mezclados con herbáceas, son los de menor talla y continuos.	5
	Talla intermedia entre los anteriores, con discontinuidades de herbáceas.	6
	Inflamables bajo coníferas, generalmente talla entre 0,6 y 2 m	7
HOJARASCA Y ACICULAS BAJO ARBOLADO	Bastante compactada.	8
	No compactada, procede de coníferas de acícula larga y de frondosas.	9
	Grandes acumulaciones de combustibles, procedentes de bosques enfermos y árboles derribados.	10
RESTOS O DESECHOS DE BOSQUES	Restos procedentes de cortas parciales, hasta 25 t/ha.	11
	De cortas intensas o talas rasas, hasta 80 t/ha.	12
	Talas de bosques maduros, hasta 450 t/ha.	13

Baso-suteen ondorioz sor daitekeen **arriskua Tokiko Arrisku-indizearen** balioespenaren arabera kalkulatu da. Tokiko arrisku-indizeak kontuan hartzen ditu eremu bakoitzeko orografia, klimatologia, bertako basoen azalera eta dentsitatea, zuhaitzez nahiz sasiz beteta egon, eta, batez ere, azken urteetan bertan erregistratutako sute kopurua.

Baso-suteen sorreran eragin gehien duten arrazoiak honako hauek dira: mendian dagoen baso-erregaiaren ezaugarriak, sutea eragiten duten ohiko arrazoiren bat gertatzeko probabilitatea eta une bakoitzeko baldintza meteorologikoak. Basoko erregaiaren arriskugarritasun handiagoan edo txikiagoan honako ezaugarri hauek eragiten dute: bertan nagusitzen den espeziea, haren egoera eta pilaketa, masa gaztea edo zaharra den, inausita dagoen edo ez, entresaka eginda dagoen edo ez, duela gutxi sasiak kendu diren edo ez, eta jatorri naturaleko egoeretan gerta daitezkeen erlazio guztiak. Honako hau da baso-sutea gertatzeko arriskugarritasunaren definizioa: eremu batean sute bat sortzeko aukera. Suteen maiztasuna, kausen arriskugarritasuna eta erregaiaren arriskugarritasuna adierazten duten hiru indizeren bidez balioesten da.

Baso-suteen faktore adierazgarrietako bat basoko erregaiaren arriskugarritasuna da. Arriskua kalkulatzeko orduan landaredia zein garrantzitsua den irudikatzen du indize horrek. Kontuan hartutako eremuan erregai mota bakoitzak estaltzen duen azaleraren arabera kalkulaten da, baita su hartzeko, erretzeko eta zabaltzeko duen probabilitatearen arabera ere.

Erregai mota	Arriskugarritasuna (v)
Larren multzoa (1, 2 eta 3)	10
Sastraken multzoa (4, 5, 6 eta 7)	10
Zuhaitzen multzoa (8, 9 eta 10)	5
Hondakinen multzoa (11, 12 eta 13)	1

Horrenbestez, ulertzen da larreek eta sastrakek arrisku handiagoa dutela baso-masek eta inausketek baino.

Eusko Jaurlaritzaren baso-suteen arrisku-maparen arabera (Geoeskadin dago eskuragarri), KBAPBren eremuak sute-arrisku txikia du; arrisku handiko eta oso handiko zona txikiak ditu, hain zuzen ere intsinis pinuaren landaketa batzuk eta mendi zakarren formazio autoktonoak dauden lekuan.

2.4.6. ENERGIA BERRIZTAGARRIEKIKO ZAURGARRITASUNA

EAEko lurraldearen zonakatzearen kartografiari (energia berriztagarriei dagokienez) esker, ingurumenaren ikuspegitik proiektu horiek eskualdean ezartzeko ingurumen-baldintza onenak zein lurralde-eremurik betetzen dituzten identifika daiteke. Horretarako, lurralde-eredu bat erabiltzen da eta, horren emaitza gisa, bertan dagoen ingurumen-sentsibilitatearen maila zonifikatzen da.

Hurbilketa metodologiko orientagarri bat da, lurraldea eskualde-mailako ikuspegi integratzaile batetik ezagutu ahal izateko, eta proiektu potentzialen kokapenekin lotutako ingurumen-baldintzatzaileak fase goiztiarretatik detektatzeko.

Hala eta guztiz ere, ingurumen-ebaluazioaren izapidea bete behar da eta kasu bakoitzaren inpaktuak zehaztu behar dira, ezarri nahi den energia berriztagarriko proiektu bakoitzerako kokapen espezifiko bakoitzean.

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


BASO SUTE ARRISKUA RIESGO DE INCENDIO FORESTAL

MAPAREN ZENBAKIA

27

DATA

23/06/2022



- Bajo /Txikia
- Alto /Handia
- Muy alto /Oso handia

KBAPBren eremuko ingurumen-zonifikazioko bi mapa erantsi dira, 4 sentikortasun-kategoriatan sailkatuta, bata instalazio eolikoak ezartzeko eta bestea instalazio fotovoltaikoak ezartzeko. Morfologia- eta lurralde-konfigurazioa dela eta, ezin da beste energia berriztagarriak aztertu.

Ingurumen-sentikortasun maximoaren kategoria: Ingurumen-sentikortasun maximoko inguruetan, printzipioz, ez litzateke komeni parke eolikoak edo instalazio fotovoltaikoak ezartzea, garrantzi handiko ingurumen-elementuak daudelako. Eremu hauek proiektu eoliko edo fotovoltaiko handi samarren eraginaren aurrean oso zaurgarriak dira; izan ere, kontserbatu beharreko balio ekologikoak eta oso fauna-espezia baliotsuak aterpetzen dituzte.

Ingurumen-sentikortasun handiaren kategoria: Ingurumen-sentikortasun handia duten eremuek ingurumen-baldintzatzaile esanguratsuak dituzte. Hori dela eta, eremu hauetan aurretiko ikerketa zehatzak egin behar dira toki-mailan garapen eolikia edo fotovoltaikoa gomendagarria den edo zein baldintzatan egin litekeen jakiteko.

Ingurumen-sentikortasun ertainaren kategoria: Ingurumen-sentikortasun ertaina duten eremuek neurrizko sentikortasuna duten ingurumen-balioak dituzte. Hauek zehazki aztertu behar dira edozein garapen eoliko edo fotovoltaiko ezartzea gomendatu aurretik. Printzipioz, harrera-ahalmen handiagoa duten eremuak dira, nahiz eta hor dauden ingurumen-balioak aintzat hartu behar diren.

Ingurumen-sentikortasun txikiaren kategoria: Printzipioz, ingurumen-sentikortasun txikiko eremuak, ingurumenaren ikuspuntutik, parke eoliko edo fotovoltaikoak garatzeko harrera-ahalmen handiena dutenak dira, proiektu-mailan azterketak egiteko baldintzapean.

Karakateko Landa Parkeak energia eoliko eta fotovoltaikoekiko sentikortasun handia-maximoa du. Azaleraren zatirik handienean, honako hauek izango lirateke sentikortasun maximoko eremuak: baso autoktonoak eta «Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoaren» zona arkeologikoa.

Horregatik guztiagatik, Karakateko Landa Parkearen eremuan, ingurumenaren eta kulturaren ikuspegitik ez dira bateragarriak energia eolikoko edo fotovoltaikoko instalazioen elementuak (tamaina dena dela), horrelako azpiegiturekiko eta horiekin lotutako inpaktuekiko ingurumen-arloko sentikortasun eta zaurgarritasun handiagatik.



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


BERRIZTAGARRIETARAKO
KALTEBERATASUNA (EOLIKOA)
SENSIBILIDAD A LAS RENOVABLES (EOLICA)

MAPAREN ZENBAKIA

28

DATA

23/06/2022



- Baja / Txikia
- Alta / Handia
- Máxima / Maximoa

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


BERRIZTAGARRIETARAKO
KALTEBERATASUNA (FOTOVOLTAIKOA)
SENSIBILIDAD A LAS RENOVABLES
(FOTOVOLTAICA)

MAPAREN ZENBAKIA

29

DATA

23/06/2022



SUSTATZAILEA




IDAZLE TALDEA



INFORMAZIO KARTOGRAFIKOA

Proiekzioa: UTM 30N
Datum: ETRS 89



MAPAREN ESKALA

1:10.000



- Baja / Txikia
- Media / Ertaina
- Alta / Handia
- Máxima / Maximoa

2.4.7. KLIMA-ALDAKETAREKIKO ZAURGARRITASUNAREN AZTERKETA ETA ARRISKUA

KLIMA-ALDAKETAK IZAN DITZAKEEN AGERTOKIAK

Eskualdeko klima-agertokiak erreferentziako informazioa dira, eta zaurgarritasuna eta inpaktuak ebaluatzeko prozesuan eta klima-aldaketara egokitzeko neurrien definizioan erabili behar dira.

Atal honetarako, 2021ean argitaratutako «Klima-aldaketaren inpaktua eta harekiko kalteberatasuna Gipuzkoan txostena» erabili da (<https://www.naturklima.eu/documentos/documentos/Klima-aldaketaren-inpaktua-eta-Kalteberatasuna-EUS.pdf>).

Aztertutako agertokiek honako emaitza hauek ematen dituzte:

- **Batez besteko tenperaturaren igoera:** batez besteko tenperaturaren proiektzioek 3 °C eta 4 °C arteko igoera orokorra aurreikusten dute XXI. mendean zehar, 1971-2000 erreferentzia-aldiarekin alderatuta, mendearen amaierarako, agertokirik okerrenean. Proiektatutako berokuntza uniforme da lurralde osoan, eta ez da desberdintasun handirik hautematen leku batetik bestera. Epe luzera (2071-2100) eta, agertokirik okerrenean, tenperaturaren igoerarik handiena udazkenerako espero da (2,6 °C - 6,4 °C] eta txikiena, berriz, udaberrirako (1,4 °C - 4,7 °C). Urteko batez besteko tenperatura maximoetarako proiektatutako aldaketak, agertokirik okerrenean, bat datoz batez besteko tenperaturarekin, hau da, 2 °C inguruko igoera bigarren aldirako (2041-2070) eta igoera orokor eta nabarmenagoa (2,5-4,5 °C) mende amaierarako, 1971-2000 erreferentzia-aldiarekin alderatuta. RCP4.5 agertokian, baliteke tenperatura maximoak 2 °C inguru igotzea mende amaierarako. Era berean, bero-boladen iraupen eta maiztasun handiagoa proiektatzen da, RCP4.5 nahiz RCP8.5 agertokietarako.
- **Prezipitazioen beherakada txikia:** Prezipitazioen kasuan, baliteke urteko batez besteko prezipitazioen kopurua % 11 inguru jaitea mende amaierarako, agertokirik okerrenean, eta % 5 RCP4.5 agertokian, 1971-2000 erreferentzia-aldiarekin alderatuta. Prezipitazioaren jaitsiera zertxobait txikiagoa izango da Bidasoa Beherean, Donostialdean edo Urola Kostan. Urtarokotasunari dagokionez, aurreikusitako prezipitazio-jaitsierak handiagoak dira udarako; XXI. mendean gora egingo du beherakadak, 2041-2070 aldiaren batetik, eta % 35eko beherakada izango da agertokirik okerrenean. Egun hezeen kopuruak pixkanaka behera egingo duela aurreikusten da (Pr > 1 mm); RCP8.5 agertokian % 16ko jaitsiera gertatuko da hirugarren aldiaren, 1971-2000 erreferentzia-aldiarekin alderatuta. Urteko urtaro guztietan beherakada izango da XXI. mendean.

amaierarako; jaitsiera hori handiagoa izango da udarako, % 35 ingurukoa. Egun heze horien batez besteko prezipitazioetarako, ordea, oro har XXI. mende osorako igoera aurreikusten da, nabarmenagoa udazkenean. Prezipitazio-egunen kopurua murriztuko denez, baina egun horietan prezipitazioak handituko direnez, litekeena da prezipitazioak egun gutxiagotan kontzentratzea (prezipitazio handiagoeekin) eta prezipitaziorik gabeko aldiekin jarraitzea. Horrela, elkarren segidako egun lehorren kopuruak gora egingo duela aurreikusten da, % 10 inguru agertokirik okerreanean, 1971-2000 erreferentzia-aldiarekin alderatuta.


Temperatura maximoak eta minimoak igotzean, erreferentziazko ebapotranspirazioa areagotu egingo litzateke mende osoan zehar. Igoera hori nabarmenagoa izan zen mendearen amaieran, RCP8.5 agertokian. Agertoki horretan –prezipitazioek behera egingo dute, batez besteko temperatura igoko da eta erreferentziazko ebapotranspirazioa igoko da–, hainbat azterlanek baliabide hidrikoen eskuragarritasunaren beheranzko joera islatzen dute.

KLIMA-ALDAKETAREKIN LOTUTAKO ARRISKU-ALDAGAIEN BILAKAERA


Klima-aldagaien bilakaera prospektiboaren grafiko erantsiak egiteko, IHOBEn webgunean dauden Euskadiko klima-aldaketaren agertokiei eta horien datu-serieei buruzko datuak kontsultatu dira (<https://www.ihobe.eus/klima-aldaketa>).

Elgoibarko udalerrriaren kasuan, honako grafiko hauetan islatzen dira agertoki horiek:


- **Batez besteko temperatura**




- **Temperatura minimoa**




- **Temperatura maximoa**




- **35 °C -tik gorako temperaturen bero-boladen egunak**




- Eguneroko prezipitazioa




- ≤ 1 mm-ko euri-egunak



- Ondoz ondoko egun lehorrak



- Erreferentziako ebapotranspirazioa



ELGOIBARREN KLIMA-ALDAKETAREN AURREAN DUTEN ZAURGARRITASUN ETA ARRISKUARI BURUZKO AZTERKETA

Epigrafe honetan agertzen diren datuak 2017an Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) 251 udalerrietarako egindako klima-aldaketarekiko zaurgarritasun eta arriskuari buruzko azterketa baten datuak dira, zehazki Elgoibarko udalerriri buruzkoak².

2050erako klima-aldaketaren Euskadiko estrategian identifikatutako klima-mehatxuak eta inpaktu klimatiko nagusiak jaso ditzaketen sektoreak edo eremuak (EAEko Klima Aldaketa Egokitzeko Lehentasunen Planean ere azaltzen dira, 2009) erreferentziatatz hartuta, Elgoibarko zaurgarritasun eta arriskuaren azterketa lau inpaktu-katetan ardatzuta da:

- Bero-boladen inpaktua gizakion osasunean
- Ibai-uholdeen inpaktua hiri-ingurunean
- Lehortea handitzearen inpaktua jarduera ekonomikoetan (batez ere nekazaritzan eta abeltzaintzan)
-

Azterketa kuantitatibo bat da, eta hainbat adierazle hartzen ditu oinarritzat lau inpaktukate horietako bakoitzerako: mehatxua, esposizioa, sentsibilitatea eta egokitzeko gaitasuna. Ondorengo tratamenduak eta agregazioak, estatistika-metodoetan oinarrituta, zaurgarritasun- eta arrisku-indize konposatu batzuk eman ditu, baita arriskuaren osagai bakoitzarenak ere. Udalerrri guztien arteko emaitzak alderatu ahal izateko, indize horiek normalizatu eta berreskalatu dira; indize horien balioak gutxieneko balioaren (1. balioa) eta gehieneko balioaren (2. balioa) artean kokatzen dira beti.



² EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa.

IHOBE. Eusko Jaurlaritza, 2017

<https://ihobe.maps.arcgis.com/apps/MapSeries/index.html?appid=37eb444e36fb42cca42c0bbac2d512de>

Elgoibar

Impacto por olas de calor sobre la salud humana



Índices de vulnerabilidad de las cadenas de impacto

		Territorio	Índices			Posición relativa en la CAPV (deciles)		
			Sensibilidad	Capacidad adaptativa	Vulnerabilidad	Sensibilidad	Capacidad adaptativa	Vulnerabilidad
Escenario	Años de referencia 1971-2000.	Municipio	1,5860	1,6683	1,3713	5	7	3
		Comarca	1,6085	1,7494	1,3667			
		Euskadi	1,6203	1,5938	1,4445			
	Escenario RCP 4.5. Años 2011-2040.	Municipio	1,5860	1,6683	1,3713	5	7	3
		Comarca	1,6085	1,7494	1,3667			
		Euskadi	1,6203	1,5938	1,4445			
	Escenario RCP 4.5. Años 2071-2100.	Municipio	1,5860	1,6683	1,3713	5	7	3
		Comarca	1,6085	1,7494	1,3667			
		Euskadi	1,6203	1,5938	1,4445			
	Escenario RCP 8.5. Años 2011-2040.	Municipio	1,5860	1,6683	1,3713	5	7	3
		Comarca	1,6085	1,7494	1,3667			
		Euskadi	1,6203	1,5938	1,4445			
Escenario RCP 8.5. Años 2071-2100.	Municipio	1,5860	1,6683	1,3713	5	7	3	
	Comarca	1,6085	1,7494	1,3667				
	Euskadi	1,6203	1,5938	1,4445				

* Dezila: «Behaketen ehuneko jakin bat zein balioren azpitik dagoen adierazteko erabiltzen den estatistika-neurria. Dezil bakoitza aztertutako lagin guztien % 10 da. Bosgarren dezila (D5) 50. pertzentilari (P50), 2. kuartilari (Q2) eta medianari (Me) dagokio».

Índices de riesgo de las cadenas de impacto

Impacto por olas de calor sobre la salud humana

	Territorio	Índices				Posición relativa en la CAPV (deciles)				
		Vulnerabilida d	Amenaz a	Exposició n	Riesgo	Vulnerabilida d	Amenaz a	Exposició n	Riesgo	
Escenario	Años de referencia 1971-2000.	Municipio	1,3713	1,0188	1,0332	1,1861	3	3	9	4
		Comarca	1,3667	1,0166	1,0154	1,1845				
		Euskadi	1,4445	1,0302	1,0040	1,2118				
	Escenario RCP 4.5. Años 2011-2040.	Municipio	1,3713	1,1988	1,0332	1,2787	3	3	9	4
		Comarca	1,3667	1,1943	1,0154	1,2764				
		Euskadi	1,4445	1,2136	1,0040	1,3072				
	Escenario RCP 4.5. Años 2071-2100.	Municipio	1,3713	1,4787	1,0332	1,4058	3	3	9	4
		Comarca	1,3667	1,4697	1,0154	1,4022				
		Euskadi	1,4445	1,4980	1,0040	1,4373				
	Escenario RCP 8.5. Años 2011-2040.	Municipio	1,3713	1,1925	1,0332	1,2757	3	3	9	4
		Comarca	1,3667	1,1885	1,0154	1,2736				
		Euskadi	1,4445	1,2065	1,0040	1,3022				
	Escenario RCP 8.5. Años 2071-2100.	Municipio	1,3713	1,6346	1,0332	1,4697	3	3	9	4
		Comarca	1,3667	1,6268	1,0154	1,4669				
		Euskadi	1,4445	1,6518	1,0040	1,5013				

* Dezila: «Behaketen ehuneko jakin bat zein balioren azpitik dagoen adierazteko erabiltzen den estatistika-neurria. Dezil bakoitza aztertutako lagin guztien % 10 da. Bosgarren dezila (D5) 50. pertzentilari (P50), 2. kuartilari (Q2) eta medianari (Me) dagokio».



Elgoibarrek zaurgarritasun txikia du (1. dezila, D1, hau da, EAEko udalerrien % 10ek bakarrik dute Elgoibarrek baino zaurgarritasun txikiagoa).

Arriskuari dagokionez, arrisku ertaina du (D4 dezila / % 40) gainerako udalerriekin alderatuta, bero-boladek gizakion osasunean duten inpaktuari dagokionez. Hala ere, egokitzeko gaitasuna eskualdearena eta Euskadiko gainerako udalerriena baino handiagoa da (udalerrien % 70etan baino handiagoa).



Elgoibar

Inundaciones fluviales sobre el medio urbano



Índices de vulnerabilidad de las cadenas de impacto

Inundaciones fluviales sobre el medio urbano

	Territorio	Índices			Posición relativa en la CAPV (deciles)			
		Sensibilidad	Capacidad adaptativa	Vulnerabilidad	Sensibilidad	Capacidad adaptativa	Vulnerabilidad	
Escenario	Años de referencia 1971-2000.	Municipio	1,5039	1,7258	1,2350	5	9	2
		Comarca	1,5051	1,6134	1,2941			
		Euskadi	1,5201	1,5561	1,3517			
	Escenario RCP 4.5. Años 2011-2040.	Municipio	1,5039	1,7258	1,2350	5	9	2
		Comarca	1,5051	1,6134	1,2941			
		Euskadi	1,5201	1,5561	1,3517			
	Escenario RCP 4.5. Años 2071-2100.	Municipio	1,5039	1,7258	1,2350	5	9	2
		Comarca	1,5051	1,6134	1,2941			
		Euskadi	1,5201	1,5561	1,3517			
	Escenario RCP 8.5. Años 2011-2040.	Municipio	1,5039	1,7258	1,2350	5	9	2
		Comarca	1,5051	1,6134	1,2941			
		Euskadi	1,5201	1,5561	1,3517			
	Escenario RCP 8.5. Años 2071-2100.	Municipio	1,5039	1,7258	1,2350	5	9	2
		Comarca	1,5051	1,6134	1,2941			
		Euskadi	1,5201	1,5561	1,3517			

Índices de riesgo de las cadenas de impacto

Inundaciones fluviales sobre el medio urbano



	Territorio	Índices				Posición relativa en la CAPV (deciles)				
		Vulnerabilidad	Amenaza	Exposición	Riesgo	Vulnerabilidad	Amenaza	Exposición	Riesgo	
Escenario	Años de referencia 1971-2000.	Municipio	1,2350	1,2832	1,5008	1,4438	2	6	7	5
		Comarca	1,2941	1,2814	1,4226	1,4576				
		Euskadi	1,3517	1,2529	1,4286	1,4681				
	Escenario RCP 4.5. Años 2011-2040.	Municipio	1,2350	1,2864	1,5008	1,4459	2	6	7	5
		Comarca	1,2941	1,2830	1,4226	1,4582				
		Euskadi	1,3517	1,2742	1,4286	1,4683				
	Escenario RCP 4.5. Años 2071-2100.	Municipio	1,2350	1,3253	1,5008	1,4707	2	6	7	5
		Comarca	1,2941	1,3046	1,4226	1,4825				
		Euskadi	1,3517	1,2945	1,4286	1,4889				
	Escenario RCP 8.5. Años 2011-2040.	Municipio	1,2350	1,2903	1,5008	1,4484	2	6	7	5
		Comarca	1,2941	1,2840	1,4226	1,4588				
		Euskadi	1,3517	1,2653	1,4286	1,4692				
	Escenario RCP 8.5. Años 2071-2100.	Municipio	1,2350	1,3492	1,5008	1,4857	2	6	7	5
		Comarca	1,2941	1,3398	1,4226	1,5007				
		Euskadi	1,3517	1,3180	1,4286	1,5077				

* Dezila: «Behaketen ehuneko jakin bat zein balioren azpitik dagoen adierazteko erabiltzen den estatistika-neurria. Dezil bakoitza aztertutako lagin guztien % 10 da. Bosgarren dezila (D5) 50. pertzentilari (P50), 2. kuartilari (Q2) eta medianari (Me) dagokio».

Hiri-ingurunean **ibai-uholdeekiko** zaurgarritasuna arriskua (ertaina) bera baino txikiagoa da EAEko gainerako udalerriekin alderatuta. Elgoibarrek eskualdeak eta Euskadiko gainerako udalerriek baino egokitzeko gaitasun handiagoa du.

Sentikortasun hori honako faktore hauen ondorio da: ibai-ibilguk hartzen duten lurraldearen azalera, eraikinen antzintasuna, eta kutsatuta egon daitezkeen eta ibai-uholdeak jasan ditzaketen lurzoruen azalera.

Hiri-inguruneke ibai-uholdeen aurrean egokitzeko gaitasuna asko baldintzatzen dute jabetzan dauden etxebizitzien ehunekoak eta bizilagunen errenta pertsonalak, bestek beste.



Índices de vulnerabilidad de las cadenas de impacto

Aumento de los periodos de mayor sequía sobre las actividades económicas (agropecuario)

		Territorio	Índices			Posición relativa en la CAPV (deciles)		
			Sensibilidad	Capacidad adaptativa	Vulnerabilidad	Sensibilidad	Capacidad adaptativa	Vulnerabilidad
Escenario	Años de referencia 1971-2000.	Municipio	1,6712	1,3771	1,4419	8	7	7
		Comarca	1,5766	1,3293	1,3895			
		Euskadi	1,5842	1,3468	1,4012			
	Escenario RCP 4.5. Años 2011-2040.	Municipio	1,6712	1,3771	1,4419	8	7	7
		Comarca	1,5766	1,3293	1,3895			
		Euskadi	1,5842	1,3468	1,4012			
	Escenario RCP 4.5. Años 2071-2100.	Municipio	1,6712	1,3771	1,4419	8	7	7
		Comarca	1,5766	1,3293	1,3895			
		Euskadi	1,5842	1,3468	1,4012			
	Escenario RCP 8.5. Años 2011-2040.	Municipio	1,6712	1,3771	1,4419	8	7	7
		Comarca	1,5766	1,3293	1,3895			
		Euskadi	1,5842	1,3468	1,4012			
	Escenario RCP 8.5. Años 2071-2100.	Municipio	1,6712	1,3771	1,4419	8	7	7
		Comarca	1,5766	1,3293	1,3895			
		Euskadi	1,5842	1,3468	1,4012			

Índices de riesgo de las cadenas de impacto

Aumento de los periodos de mayor sequía sobre las actividades económicas (agropecuario)


	Territorio	Índices				Posición relativa en la CAPV (deciles)				
		Vulnerabilidad	Amenaza	Exposición	Riesgo	Vulnerabilidad	Amenaza	Exposición	Riesgo	
Escenario	Años de referencia 1971-2000.	Municipio	1,4419	1,1031	1,8623	1,4851	7	6	8	7
		Comarca	1,3895	1,0836	1,8155	1,4265				
		Euskadi	1,4012	1,0827	1,7990	1,4375				
	Escenario RCP 4.5. Años 2011-2040.	Municipio	1,4419	1,1600	1,8623	1,5183	7	7	8	7
		Comarca	1,3895	1,1378	1,8155	1,4640				
		Euskadi	1,4012	1,1332	1,7990	1,4658				
	Escenario RCP 4.5. Años 2071-2100.	Municipio	1,4419	1,1789	1,8623	1,5292	7	6	8	7
		Comarca	1,3895	1,1598	1,8155	1,4798				
		Euskadi	1,4012	1,1611	1,7990	1,4790				
	Escenario RCP 8.5. Años 2011-2040.	Municipio	1,4419	1,1253	1,8623	1,4982	7	6	8	7
		Comarca	1,3895	1,1070	1,8155	1,4407				
		Euskadi	1,4012	1,1222	1,7990	1,4505				
Escenario RCP 8.5. Años 2071-2100.	Municipio	1,4419	1,2490	1,8623	1,5682	7	6	8	7	
	Comarca	1,3895	1,2323	1,8155	1,5230					
	Euskadi	1,4012	1,2348	1,7990	1,5197					

* Dezila: «Behaketen ehuneko jakin bat zein balioren azpitik dagoen adierazteko erabiltzen den estatistika-neurria. Dezil bakoitza aztertutako lagin guztien % 10 da. Bosgarren dezila (D5) 50. pertzentilari (P50), 2. kuartilari (Q2) eta medianari (Me) dagokio».

Lehorraldi kopuruaren igoerak nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorean eragindako ondorioei dagokienez, Elgoibarrek sentikortasun eta zaurgarritasun handia du gainerako udalerriekin eta eskualdearekin alderatuta (% 80 eta % 70, hurrenez hurren), eta egokitzeko gaitasun handia du (% 70).

Elgoibar

Cuadro resumen de vulnerabilidad y riesgo del municipio ante el cambio climático



Horrenbestez, ondoriozta daiteke Elgoibarren klima-aldaketatik eratorritako arriskurik handiena lehorraldiak handitzearekin lotuta dagoela (nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretan), gainerako udalerrien % 70ek baino balio handiagoa.

AURREIKUS DAITEZKEEN KLIMA-ALDAKETAREN ONDORIOZKO INPAKTUAK

Jarraian, Elgoibarko udalerrian eragina izan dezaketen hainbat faktoretan klima-aldaketaren ondorioz aurreikus daitezkeen erasanak jasotzen dira.

- **Natura-ingurunearen gaineko erasanak**

Espezie mehatxatuak, hau da, gaur egun dagoeneko hauskortasun-egoeran daudenak, egoera are zaurgarriagoan egon litezke, ekosistema guztietara hedatuko diren aldaketak espero baitira. Batetik, aldaketak aurreikusten dira pisu bioklimatikoaren banaketan; horrela, onbrotipo azpihezearen hedapena areagotuko da eta onbrotipo hezea eta hiperhezea duten eremuak gutxituko dira. Horren ondorioz, zenbait zuhaitz-espeziez osaturiko eremu potentziala murriztuko da, hala nola pagoz (*Fagus sylvatica*) eta haritzez (*Quercus robur*) osaturik dagoena, eta Mediterraneoan ohikoak diren espezieena handituko da, hala nola artearena (*Quercus ilex*) eta ametzarena (*Quercus pirenaica*), gaur egun Gipuzkoan modu mugatuan banatuta dagoena. Baso- eta flora-espezie mehatxatuen berariazko aberastasun potentziala galtzea aurreikusten da.

- **Klima-aldaketak Elgoibarko herritarren osasunean izango dituen erasanak**

Zenbatespenek erakusten dutenez, bero-boladen eraginak areagotu egingo du efektu horrekiko arriskua, eta fenomeno horiekin lotutako hilkortasuna handitu egin daiteke. Hotzarekiko esposizioaren ondorioak ere garrantzitsuak izan daitezke, bereziki kolektibo jakin batzuen pobrezia- eta zaurgarritasun-egoerei dagokienez. Tenperatura altuetara egokitzeak areagotu egin lezake hotz-gertakariak osasunean eragindako efektua.

Temperaturen igoera orokorrak, eta urtaroen desplazamendu eta iraupen-aldaketak ondorioak izango ditu asma-krisietan eta alergietan.

Tenperatura-igoerak bektore bidezko gaixotasunen transmisioa eragin dezake (Covid-19arekin gertatu den bezala).

- **Nekazaritza- eta basozaintza-sektorean aurreikusitako erasanak**

Klima-aldaketaren aurrean baso-espezieek dute arrisku gehien; arriskua handiagoa da *Pinus radiata* eta eukaliptoaren plantazio intentsiboen kasuan, eta zertxobait txikiagoa gainerako baso-espezieen kasuan.

Baso-plantazio intentsiboen arrisku handiago horren arrazoia honako hau da, funtsean: oso homogenezat eta biodibertsitate txikikotzat (monolaborantzak) jotzen dira, eta are zaurgarriago bihurtzen dira klima-mehatxuen aurrean. Baso-

lurretan ere gauza bera gertatzen da: oro har, landare-biomasa gehiago dutenez, suteekiko sentikorragoak direla uste da.

Larre guztiek (belardiek eta bestelako larreek) arrisku txiki-ertaina dute; arriskua zertxobait handiagoa da belardietan, horietan biodibertsitatea txikiagoa delako eta, beraz, klima-aldaketaren aurrean zaurgarriagoak direlako. Oro har, adituek uste dute, bai basoetan bai larreetan, altitudeak eta maldak zertxobait arintzen dutela sentikortasuna eta egokitzeko gaitasuna.

Izurrien eta gaixotasunen intzidentzia, adibidez, murriztu egiten da altitude altuetan; gainera, altitude horietan murriztu egiten da gizakion esku hartzeko gaitasuna. Beste adibide bat higadura-arriskuaren igoera izan daiteke, malda handietan.

Belar-laboreen eta zurezko laboreen arriskua nahiko aldakorra da. Arriskua txikiagoa da barazki askorentzat, oso ziklo laburrekoak direlako; izan ere, ez dute lurzoruko materia organikoaren mineralizazioarekiko mendekotasun handiegirik elikatzen, edo negutegietan ekoizten dira neurri handi batean, eguraldi txarretik hobeto babestuz.

Baso-espezieen eta fruta-arbolen izaera iraunkorra zaurgarritasun handiagoarekin balioesten da, oro har; izan ere, une jakin batean eragindako balizko kalteek urteko landare baten kasuan baino gehiago iraun dezakete, eta sail bat beste batekin ordeztzeko iraupen luzeagoa behar da eta ustiapenaren bideragarritasuna baldintza dezake.

Oro har, ganadu estentsiboena (haragitarako behi, ardi, ahuntz, zaldi eta erleena) intentsiboa (esnetarako behi, txerri, hegazti eta untxiena) baino zaurgarriagozat jotzen da, azken horiek sentikorragoak baitira klima-aldaketaren ondorioekiko (ez dira horren landatarrak eta anitzak); dena den, egokitzeko gaitasun handiagoa dute, gizakiak esku hartzeko aukera handiagoa dutelako (ukuiluratzea, osasun-kontrola, kanpoko elikadura erosteko aukera eta abar).

KBAPB ETA KLIMA-ALDAKETA

Plan Bereziaren izaeratik, eta Elgoibarrek klima-aldaketaren aurrean dituen arriskuak kontuan hartuta, a priori positibotzat jotzen dira antolamendu berriak klima-aldaketari dagokionez izan ditzakeen ondorioak.

Landare-estalkia (batez ere basokoa) mantentzearen aldeko apustu irmoak, etorkizuneko birpopulaketetan hazkuntza motelagoko espezieak erabiltzeko proposamenak (garatzeko eskakizun hidriko gutxiago dituztenak) eta KBAPB garatzen

den lurralde-errealitatera egokitutako erabilerak erregulatzeak klima-aldaketaren ondorioak arintzen laguntzen du.

2.5.- PAISAIA

2.5.1. PAISAIA-UNITATEAK

Aztergai dugun inguruko paisaiak baliabide gisa aprobetxatzeko potentzial handia du, elementu naturalen (ingurune abiotikoa eta biotikoa) zein elementu kulturalen (ondare historiko-artistikoa...) aberastasun handia baitu.

Paisaiaren landare-osagaiak identifikatzeko, deskribatzeko eta baloratzeko, honako irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Osagai fisikoak: naturaltasuna, aniztasuna, ugaritasuna, dentsitatea, egitura, eskala, berezitasuna, bakantasuna, espezie erorkorren eta iraunkorren arteko erlazioa, eta espezie autoktonoen eta aloktonoen arteko erlazioa.
- Osagai plastikoak: konposizio bolumetrikoa, forma, ehundura, kromatismoa, dinamismoa, urtarokotasuna eta inguruko paisaiarekin duten erlazioa.

Horrela, honako paisaia-unitate hauek bereiz daitezke:

BASO-PLANTAZIOAK IBAI-EREMUAN

Pinus radiata plantazioak zuhaitz-masak izan arren, horien ekologia- eta paisaia-komplexutasuna baso autoktonoena baino askoz txikiagoa da. Mota horretako formazioak oso ohikoak dira paisaian, nekazaritzarako marjinalak diren eremuetan.

Estetikari dagokionez, oso masa homogeenak dira kromatikoki, eta oso ehundura trinkoa dute; horietan, lerro bertikalak eta ertz askoko profilak nagusitzen dira. Mugei dagokienez, paisaiari naturaltasuna eta harmonia kentzen dieten lerro zuzenak nabarmentzen dira. Horregatik guztiagatik, unitate honen kalitatea **balio txikikoa** eta **hauskortasun txikikoa** da.

BASO-MOSAIKOA IBAI-EREMUAN

Gipuzkoako gainerako ibaiertzetan bezala, arroko landaredi potentziala oso eraldatuta dago, batez ere kanalizazioen eta baso-galeraren ondorioz, fabrikak, etxebizitzak eta baratzeak kokatu direlako. Landarediak irauten duen kasu bakanetan, hura ilara mehe batzuetara mugatzen da, eta gehienetan kanpoko espezieak bakarrik geratzen dira.

Estetikoki, baso autoktonoak elementu argi eta garbi positiboak dira paisaian. Horietan ezaugarri bereizgarriak dira dibertsitate kromatikoak (urtarokotasun nabarmenak areagotua, koloreak aldatu eta hostoak erori izanaren ondorioz), lerro kurbatu eta bihurrien nagusitasuna (ertzetan nahiz barruan nagusi) eta ehundura zimurtsu eta irregularra.

Paisaian baso autoktonoen formazioak eta baso-plantazioak agertzen dira, belardiekin eta laboreekin tartekatuta, eta horrek areagotu egiten du patroik kromatikoen eta ehundura- eta geometria-patroien aniztasuna, naturaltasuna murriztuz.

Horregatik guztiagatik, unitate honen kalitatea **balio handikoa** eta **hauskortasun handikoa** da.

HOSTOZABAL HOSTOERORKORRAK IBAI-EREMUAN

Paisaia hori Karakate-Irukurutzeta-Agirreburu eremuari dagokio, eta bere paisaia- eta ingurumen-balioagatik da bereziki garrantzitsua.

Gailur-lerroaren iparraldeko goialdean dagoen pagadia nabarmentzen da. Oso masa zahartua da, ia zurik gabea, baina balio handikoa da, jatorrizko landaredi-masa bakarra baita koniferoen baso-plantazioen ingurune horretan. Flora batez ere azidofiloa da. Gailur-lerro osoan zehar iratzeak, otadiak, txilardiak eta larreak zabaltzen dira. Fauna baso-inguruneetako berezkoa da, eta ez da garrantzi handiko espezierik nabarmentzen. Mendizaleek maiz erabiltzen dute gailur-lerrotik igarotzen den bidea. Badira monumentu megalitikoak ere: dolmenak eta tumuluak.

Paisaiari dagokionez, basoen kudeaketarekin lotuta dago inpakturik handiena. Baso-soilketen, terrazen eta pisten ondorioz, eta euri-jasen ondorioz, higitutako azalera handiak daude. Linea elektrikoaren ugartasuna ere nabarmena da.

Hiriguneko ikuseremuan dagoenez, Karakate-Irukurutzeta-Agirreburuk eta bere inguruak **babesteko bokazio** argia du.

BASO- ETA SASTRAKA-MOSAIKOA IBAI-EREMUAN

Askotan, suaren, baso-mozketen edo larratze intentsiboaren ondorioz sastrakek basoetako soilguneak kolonizatzen dituztenean agertzen da mosaiko hori.

Kalitate ertaineko eta hauskortasun txikiko paisaia-unitatea da.

SASTRAKA IBAI-EREMUAN

Isurialde atlantiko osoko mendietan, hedadura aldakorreko sastraka-orbanak ageri dira. Txilardiz, otadiz eta iratzez osaturikoa da formaziorik ohikoena. Gune askotan, gizakiak areagotu egiten du iratze arrunta, eta forma monoespezifiko trinkoetan agertzen da.

Paisaia-unitate hori kalitate ertainekoa da, eta hauskortasun txikikoa.


2.5.2. PAISAIA-INTERESEKO ZONAK

Elgoibarko HAPOk paisaia-intereseko zona gisa sailkatzen du Karakate-Irukurutzetako gailur-lerroa.

Paisaiaren ikuspegitik interesgarriak izan daitezkeen guneek honako ezaugarri hauek izaten dute:

- Kalitate intrintseko handiko eta bista ugariko parajeak.
- Ikuseremu zabaleko puntuak, bisten sakonera eta ikuspen handikoa.
- Ikusmen-intrusiorik gabeko lekuak dira, batez ere antropikoak.

Karakate-Irukurutzetako gailurreria ipar-mendebaldetik hego-ekialderantz hedatzen da, eta bigarren tontorretik hegoalderantz jotzen du, Agirrebururantz. Zenbait tontorren lerrokaduraz osatuta dago: Karakate (Kortazar ere deitua), Akelarre, Atxolin eta Irukurutzeta. Horietatik Irukurutzeta da altuena, 900 metro eskasekoa. Trazaduraren leuntasuna dela eta (oso desnibel txikikoa), paseatzeko leku paregabea da.



Karakate eta Irukurutzeta arteko **paisaia** pagadi-masa handiak daude, batzuetan konifero-plantazioek eteten dituztenak.

Belar-mantuaren gainean iratzeak ugaritzen dira, eta horiek otadiarekin, txilardiarekin eta larreguneekin (zaldi- eta ardi-taldeak ikus daitezke bertan) konbinatzen dira.

Leku batzuetan, batez ere Pagobedeinkatu eta Irukurutzeta artean, lurraren hondoratze txikiak daude, eta horietan ihi-masa txikiak ugaritu dira hezetasunaren eta uraren eraginez.

Ikuspegi geologikotik, gailur-lerroak jatorri bolkanikoko arroken lagin interesgarria du, «pillow-laba» deituriko kuxin-egiturez osatua. Egitura horiek Sorluzerantz doan mendigalaren behealdean daude, San Andres auzoan, Argarate baserrira joateko pistaren ondoan.

Arroka bolkanikoz osaturiko substratu geologiko bat da: esplitak eta basaltoak, eta kareharri- eta tuparri-interakzioak. Material ilunak dira, gehienak lurzoruz eta landarez estaliak, eta Goi Kretazeokoak dira (Bizkaiko Sinklinorioko arroka efusiboak).

Inguru honetan dolmen eta tumulu ugari daude, eta Eneolito-Brontze Aroko artzain-kulturari lotutako hilobi-monumentu horiek paisaia-interes handiagoa ematen diote lekuari.

Dolmenak banakako edo taldekako ehorzketak dira, eta bertikalki jarritako lauza batzuek osatzen dituzte. Lauza horiek beste lauza bat eusten dute estalki gisa eta, horrela, hilobi-ganbera bat osatzen dute. Ganbera osoa harri-pilaketa batekin estaltzen zen: tumulua.

Gailur-lerro hori isurialdeen banalerroa da, eta oso ohikoa zen mota horretako egiturak eraikitzeke, erraz ikusteko moduko eremu altuak aukeratzen baitziren horietarako. Inguru horretan, honako **dolmen** hauek ditugu: *Iruia, Atxolin, Irukurutzeta, Aizpuruko Zabala, Keixeta, Keixetako Egia, Agirreburu eta Arribiribilleta*. Baita **tumulu** hauek ere: *Atxolin, Txiki, Aizkoin, Pagobedeinkatu, Nahasiko Goena, Kutzebakaar, Keixetako Egia eta Marketa*.

2.5.3. ONDORIOAK. KARAKATEKO LANDA-PARKEAREN PAISAIA-INTERESA

Paisaiaren ikuspegitik, Karakateko Landa Parkea baso-izaerakoa da batik bat; nabarmena da baso naturalen presentzia, eta horiek natura- eta paisaia-balio handia ematen diote eremuari.

Baso-paisaia horretan koniferoak dira nagusi, batik bat parkearen behealdean eta mendebaldeko muturrean.

Karakate-Irukurutzeta gailur-lerroraino igotzen diren haran ahokatuen eta malkartsuen topografiak balio erantsia ematen dio landa-parkeari, eta udalerriko paisaia-, natura- eta kultura-interes handieneko kokaguneetako bat da.

Karakate-Irukurutzeta tontorrean aztarna arkeologikoak daude eta, beraz, kultura-paisaia gisa balioesten da.

Azkenik, gailur-lerroak berak talaia bat egituratzen du, eta bertatik eskualdearen zati handi bat ikus daiteke.

Deskribatutako natura-, kultura- eta paisaia-balio guztiek kontserbatu, babestu eta antolatu beharreko naturagune bihurtzen dute parkea, Elgoibarko udal-azpiegitura berdearen gordailu aktiboa.

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA



PAISAIA UNITATEAK
UNIDADES DE PAISAJE

MAPAREN ZENBAKIA

29

DATA

24/06/2022



- Eremu antropogenikoan hiria, Urbano en dominio antropogénico
- Eremu antropogenikoan industria, Industrial en dominio antropogénico
- Eremu flubialean baso-landaketak dituen nekazaritza-mosaiko, Mosaico agrario con plantaciones forestales en dominio fluvial
- Eremu flubialean baso-landaketak, Plantaciones forestales en dominio fluvial
- Eremu flubialean baso-mosaikoa, Mosaico forestal en dominio fluvial
- Eremu flubialean belardiak eta atlantikoaldeko laborantzak nagusi dituen nekazaritza, Agrario con dominio de prados y cultivos atlánticos en dominio fluvial
- Eremu flubialean hosto erorkorreko hostozabalak, Frondosas caducifolias en dominio fluvial
- Eremu flubialean sastrakadia, Matorral en dominio fluvial
- Eremu flubialean sastrakadiko baso-mosaikoa, Mosaico forestal matorral en dominio fluvial

2.6.- ONDAREA

Iradokizun honen xede den eremuaren zati handi bat **Elosua-Plazentzia Estazio Megalitikoan** dago, eta **Monumentu Multzoaren** kategorian sailkatuta dago (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2003ko uztailaren 8koa, 133. zk.*).

Elementu batzuk argi zehaztuta ez egon arren, inguru horretan **ia hogei megalito daude, dolmen eta tumulu artean**. Lur horiek Debako eta Urolako haranen arteko igarobide gisa erabili izan dira historian; duela gutxira arte ezagutu dira bertan egindako hiletarrituak, monumentu megalitikoekin edo haien ingurukoekin lotuta.

Elgoibarko udalerrian, honako monumentu megalitiko hauek dagozkie estazio horri: Atxolin Txikiko mendixka, Gizaburuko mendixka, Aizingo mendixka eta Atxolingo dolmena.

Hala ere, estazioa bere osotasunean hartu behar da, hura osatzen duten 4 udalerrien mugak kontuan hartu gabe. Izan ere, honako hauek hartzen ditu barne:

- Dolmenak: Agirreburu, Aitzpuruko Zabala, Atxolin, Iruyiya, Irukurutzeta eta Keixetako Egiya Hegoa.
- Tumuluak: Aizkoin, Atxolin Txiki, Keixeta, Keixetako Egiya Iparraldea, Kutzebakaar, Maurketa, Naasiko Goena, Pagobedeinkatu eta Gizaburua.

AGIRREBURU DOLMENA


Tipologia: Erlijiosoa edo hiletakoa. Monumentu megalitikoa. Dolmena

Garaia: Kalkolitoa/Eneolitoa, Brontzea

Kategoria: Monumentu Multzoa. Gipuzkoako estazio megalitikoak. 10 Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa

Babes-maila: Kalifikatua

Azken buletina: EHAA, 133. zk. (03-07-08)



Dolmenaren tumuluak 11,50 m-ko diametroa eta 0,75 m-ko altuera ditu. Erdiko kraterrak 2 m inguruko diametroa eta 0,60 m-ko sakonera ditu, eta bertan, hiru lauza daude. Lauza horiek ganbera zaharraren hondarrak dira, eta honela jarrita daude: horietako bat tente iparraldean, hegoaldean beste bat barrualdera kulunkatuta eta mendebaldean beste bat, kanpoaldera kulunkatuta. Tumuluaren gainean beste lauza batzuen hondarrak daude. Egituran erabilitako materialak: lurreko basaltoak eta tuparrikareharriak.

AITZPURUKO ZABALA DOLMENA

Tipologia: Erlijiosoa edo hiletakoa. Monumentu megalitikoa. Dolmena

Garaia: Kalkolitoa/Eneolitoa, Brontzea


Kategoria: Monumentu Multzoa. Gipuzkoako estazio megalitikoak. 10 Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa

Babes-maila: Kalifikatua

Azken buletina: EHAA, 133. zk. (03-07-08)



Dolmenaren tumuluak 13 m-ko diametroa eta 1,15 m eta 0,40 m bitarteko altuera ditu. Erdiko kraterrak 3,50 m inguruko diametroa eta 0,40 m-ko sakonera ditu, eta bertan, 1 x 0,30 x 0,30 m-ko lauza bat dago. Eraikuntzan erabilitako materialak lurreko basaltoak dira.



ARANZADI, BARRANDIARAN, EGUREN (1922)

ATXOLIN DOLMENA

Tipologia: Erlijiosoa edo hiletakoa. Monumentu megalitikoa. Dolmena

Garaia: Kalkolitoa/Eneolitoa, Brontzea


Kategoria: Monumentu Multzoa. Gipuzkoako estazio megalitikoak. 10 Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa

Babes-maila: Kalifikatua

Azken buletina: EHAA, 133. zk. (03-07-08)



Dolmenaren tumuluak 7 m-ko diametroa eta 0,80 m-ko altuera ditu. Erdiko kraterrak 2-3 m-ko diametroa eta 0,45 m-ko sakonera ditu, eta bertan, 1 x 0,60 m-ko lauza bat dago. Egituran erabilitako materialak: lurreko basaltoak.



IRUIYA DOLMENA

Tipologia: Erlijiosoa edo hiletakoa. Monumentu megalitikoa. Dolmena


Garaia: Kalkolitoa/Eneolitoa, Brontzea

Kategoria: Monumentu Multzoa. Gipuzkoako estazio megalitikoak. 10 Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa

Babes-maila: Kalifikatua

Azken buletina: EHAA, 133. zk. (03-07-08)

Dolmenaren tumuluak 9,50 m-ko diametroa eta 0,75 m-ko altuera ditu. Erdiko kraterrak 4,50 m-ko diametroa eta 0,55 m-ko sakonera ditu, eta bertan, 2,00 x 1,70 x 0,20 m-ko lauza bat dago. Egituran erabilitako materialak: lurreko basaltoak.



IRUKURUTZETA DOLMENA

Tipologia: Erlijiosoa edo hiletakoa. Monumentu megalitikoa. Dolmena


Garaia: Kalkolitoa/Eneolitoa, Brontzea

Kategoria: Monumentu Multzoa. Gipuzkoako estazio megalitikoak. 10 Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa

Babes-maila: Kalifikatua

Azken buletina: EHAA, 133. zk. (03-07-08)

Dolmenaren tumuluak 19 m-ko diametroa eta 1,80 m-ko altuera ditu. Erdiko kraterrak 5 eta 4 m bitarteko diametroa eta 0,65 m-ko sakonera ditu, eta bertan, 1,50 x 1,10 x 0,30 m-ko lauza bat dago. Egituran erabilitako materialak: lurreko basaltoak.



KEIXETAKO EGIYA HEGOA DOLMENA

Tipologia: Erlijiosoa edo hiletakoa. Monumentu megalitikoa. Dolmena


Garaia: Kalkolitoa/Eneolitoa, Brontzea

Kategoria: Monumentu Multzoa. Gipuzkoako estazio megalitikoak. 10 Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa

Babes-maila: Kalifikatua

Azken buletina: EHAA, 133. zk. (03-07-08)

Dolmenaren tumuluak 17 m-ko diametroa eta 1,80 m-ko altuera ditu. Erdiko kraterrak 6 m-ko diametroa eta 1,80 m-ko sakonera ditu, eta 3 m zabaleko zanga formakoa da, tumuluaren ekialdeko muturreraino. Kraterraren barruan 2,30 x 2,10 x 0,35 metroko harlauza handi bat dago, eta haren azpian beste bat, lauzaz egindako zenbait zatirekin batera. Egituran erabilitako materialak: lurreko basaltoak.



AIZKOIN TUMULUA

Tipologia: Erlijiosoa edo hiletakoa. Monumentu megalitikoa. Tumulua


Garaia: Kalkolitoa/Eneolitoa, Brontzea

Kategoria: Monumentu Multzoa. Gipuzkoako estazio megalitikoak. 10 Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa

Babes-maila: Kalifikatua

Azken buletina: EHAA, 133. zk. (03-07-08)

Tumulua oso nahasia da, 16 m-ko diametrokoa eta 1,20 eta 0,75 m arteko altuerakoa. Erdiko kraterrak 3,25 m-ko diametroa eta 0,75 m-ko sakonera ditu. Egituran erabilitako materialak: lurreko basaltoak.



ATXOLIN TXIKI TUMULUA

Tipologia: Erlijiosoa edo hiletakoa. Monumentu megalitikoa. Tumulua


Garaia: Kalkolitoa/Eneolitoa, Brontzea

Kategoria: Monumentu Multzoa. Gipuzkoako estazio megalitikoak. 10 Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa

Babes-maila: Kalifikatua

Azken buletina: EHAA, 133. zk. (03-07-08)

Tumulu oso nahasia da, 16 m-ko diametrokoa eta 1,20 eta 0,75 m arteko altuerakoa. Erdiko kraterrak 3,25 m-ko diametroa eta 0,75 m-ko sakonera ditu. Egituran erabilitako materialak: lurreko basaltoak.



KEIXETA TUMULUA

Tipologia: Erlijiosoa edo hiletakoa. Monumentu megalitikoa. Tumulua


Garaia: Kalkolitoa/Eneolitoa, Brontzea

Kategoria: Monumentu Multzoa. Gipuzkoako estazio megalitikoak. 10 Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa

Babes-maila: Kalifikatua

Azken buletina: EHAA, 133. zk. (03-07-08)

Tumuluak 17 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko altuera ditu. Erdiko kraterrak 2,20 m-ko diametroa eta 0,50 m-ko sakonera ditu, eta haren hegoaldean 1,40 x 0,90 x 0,25 m-ko lauza bat dago. Lauza hori dolmen-ganbera batekoa izan liteke. Egituran erabilitako materialak: lurreko basaltoak.



KEIXETAKO EGIYA IPARRA TUMULUA

Tipologia: Erlijiosoa edo hiletakoa. Monumentu megalitikoa. Tumulua


Garaia: Kalkolitoa/Eneolitoa, Brontzea

Kategoria: Monumentu Multzoa. Gipuzkoako estazio megalitikoak. 10 Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa

Babes-maila: Kalifikatua

Azken buletina: EHAA, 133. zk. (03-07-08)

Tumuluak 9 eta 11 m bitarteko diametroa eta 0,80 m-ko altuera ditu. Kraterra ondo zentratu gabe dago, eta 2,50 eta 4 m bitarteko diametroa eta 0,70 m-ko sakonera ditu. Egituran erabilitako materialak: lurreko basaltoak.



KURUTZEBAKAR TUMULUA

Tipologia: Erlijiosoa edo hiletakoa. Monumentu megalitikoa. Tumulua

Garaia: Kalkolitoa/Eneolitoa, Brontze zehaztugabea

Kategoria: Monumentu Multzoa. Gipuzkoako estazio megalitikoak. 10 Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa

Babes-maila: Kalifikatua

Azken buletina: EHAA, 133. zk. (03-07-08)

Tumuluak 10 m-ko diametroa eta 0,80 m-ko altuera ditu. Erdiko kraterrak, berriz, 3 m-ko diametroa eta 0,95 m-ko sakonera ditu. Egituran erabilitako materialak: lurreko basaltoak.



MAURKETA TUMULUA

Tipologia: Erlijiosoa edo hiletakoa. Monumentu megalitikoa. Tumulua


Garaia: Kalkolitoa/Eneolitoa, Brontzea

Kategoria: Monumentu Multzoa. Gipuzkoako estazio megalitikoak. 10 Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa

Babes-maila: Kalifikatua

Azken buletina: EHAA, 133. zk. (03-07-08)

Tumuluak 16,50 m-ko diametroa eta 1,60 eta 0,75 m bitarteko altuera ditu. Erdiko kraterrak 5 m-ko diametroa eta 1,30 m-ko sakonera ditu, eta zanga modura zabaltzen da tumuluaren ekialdeko muturreraino. Egituran erabilitako materialak: lurreko basaltoak.



NAASIKO GOENA TUMULUA

Tipologia: Erlijiosoa edo hiletakoa. Monumentu megalitikoa. Tumulua

Garaia: Kalkolitoa/Eneolitoa, Brontze zehaztugabea

Kategoria: Monumentu Multzoa. Gipuzkoako estazio megalitikoak. 10 Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa

Babes-maila: Kalifikatua

Azken buletina: EHAA, 133. zk. (03-07-08)



Tumuluak 9 m-ko diametroa eta 1,50 m-ko altuera ditu. Zanga 7 m luze eta 2 m zabal ingurukoa da iparreko arkutik hegoaldeko muturreraino. Egituran erabilitako materialak: lurreko basaltoak.

PAGOBEDEINKATU TUMULUA


Tipologia: Erlijiosoa edo hiletakoa. Monumentu megalitikoa. Tumulua

Garaia: Kalkolitoa/Eneolitoa, Brontzea

Kategoria: Monumentu Multzoa. Gipuzkoako estazio megalitikoak. 10 Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoa

Babes-maila: Kalifikatua

Azken buletina: EHAA, 133. zk. (03-07-08)



Tumuluak 8,50 m-ko diametroa eta 0,50 eta 0,80 m bitarteko altuera ditu. Erdiko kraterrak, berriz, 3,50 x 2 m-ko diametroa eta 0,50 m-ko sakonera ditu. Egituran erabilitako materialak: lurreko basaltoak.

Bestalde, **2022an**, ARANZADI Zientzia Elkarteak **prospekzio arkeologikoak** egin zituen Karakate-Iruian (Soraluze-Elgoibar). Gailur-lerroaren zati hori modu intentsiboan esploratzea eta aztertzea izan da proiektuaren helburua, estazio megalitikoaren mugetatik kanpo, haren mendebaldeko mugaren eta Karakate/Kortazar gailurraren artean.




Gorritz, miaketa-eremu berria. ARANZADI, 2022

Esku-hartzearen emaitzak oso positiboak izan dira arkeologiari dagokionez. Izan ere:

- «Elosua-Plazentzia mendilerroko megalitoen banaketan hutsune harrigarria betetzen laguntzen dute.
- Bestalde, aurkikuntzek Soraluzeko eta Elgoibarko kultura-ondarea handitzea ahalbidetzen dute, baita Gipuzkoakoa eta, oro har, EAEkoa ere.

- Gainera, aurkitutako monumentu berriak hilobi-egitura motakoak dira (zistak eta tumulu txiki bat), eta horiek antzematea zaila da, tamaina txikikoak direlako. Horregatik, oso gutxi azertu dira gure lurraldean.
- Eta, azkenik, lur gaineko material berriak aurkitzeak berretsi egiten du mendilerro hori maiz erabiltzen zela egunerokoan zein hileta-helburuetarako Historiaurrean, eta haren banaketa aztertzeak aukera ematen du igarobideak, habitat-eremu potentzialak edo monumentu berriak kokatzeko».




2022ko kanpainako katak eta aurkikuntzak. ARANZADI

Horregatik guztiagatik, ARANZADIK honako babes-neurri hauek har ditzatela gomendatzen die tokiko, probintziako eta Autonomia Erkidegoko administrazioei, beren eskumenen arabera:

- **Aurkitutako monumentu berriak kultura-ondasun izendatzea:** Otsoaldasoro I eta II zistak, Gortazarreko zista eta Otsoaldasoro III tumulua.

- Oinarrizko Babes Eremua handitzea (3. eremua), Elosua-Plazentzia estazio megalitikoa mugatzen duena (10. zk., Gipuzkoa), eta Karakate-Kortazar-Muneta gailurra gehitzea, eranskineko planoan adierazten den moduan (700 m itsas mailaren gainean).



KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA


ONDARE ARKEOLOGIKOA
PATRIMONIO ARQUEOLÓGICO

MAPAREN ZENBAKIA

30

DATA

27/06/2022



SUSTATZAILEA




IDAZLE TALDEA




INFORMAZIO KARTOGRAFIKOA

Proiektzioa: UTM 30N
Datum: ETRS 89



MAPAREN ESKALA

1:10.000



- Elosua-Plazentzia Estazio megalitikoak
- Estazio megalitikoak handitzeko proposamena
- Trikuharrien ibilbidea /Ruta de los Dólmenes

Megalitoak

- 1.- ARRIBIRIBILETA TRIKUHARRIA
- 2.- ATXOLIN TRIKUHARRIA
- 3.- IRUIYA TRIKUHARRIA
- 4.- IRUKURUTZETA TRIKUHARRIA
- 6.- AIZKAIN TUMULUA

- 7.- ATXOLIN TXIKI TUMULUA
- 8.- GIZABURUA TUMULUA
- 9.- KUTZEBAKAAR TUMULUA
- 10.- NAASIKO GOENA TUMULUA
- 11.- PAGOBEDEINKATU TUMULUA



3

Justifikazio Memoria



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

3.1.- SARRERA

Askotan, plan berezien xedea proiektuak egitea izaten da, herriak eraberritzeko (multzo historiko-artistikoak birgaitzea, barne-eraberritzea, etab.) eta ondare arkeologikoa edo azpiegiturak eraberritzeko.

Karakateko Landa Parkea Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezi honen garapena eragin duten konnotazio berezi eta espezifikoak direla eta, esan dezakegu ingurumena antolatzeko planen antz handiagoa duela; horrenbestez, metodologia espezifiko bat aplikatu da plana idazteko. Horregatik, eta Planaren berezitasuna kontuan hartuta, lan-sistema bat ezarri da, lurralde-antolamendurako tresnei aplikatutako metodologiak eta Elgoibar udalerraren hegoaldeko ezaugarri espezifikoetara egokitutakoak konbinatzen dituena.

Planak udalerraren barruan dagoen Karakateko eremuaren ingurumen-errealitatea aztertzea planteatzen du, oro har. Oinarri hori abiapuntutzat hartuta, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra garatzen eta osatzen duten antolamendua eta araudia planteatu dira, lurzoru urbanizaezinari dagokionez; horrek paisaia eta natura-ingurunea hobeto babesten eta kontserbatzen lagunduko du, betiere herritarrek hura aprobetxatu eta gozatzeko aukera izan behar dutela ahaztu gabe.

Era berean, eta ingurumen-errealitate horren arabera, oinarritzko helburua lortzeko neurriak eta jarduketak proposatzen dira, hau da, lurraldearen erabilera eta gozamina bateratzea, lurraldearen beraren kontserbazioarekin bateragarria izan dadin.

Plan Bereziaren justifikazio- edo antolamendu-memorian, helburuak, estrategiak eta jarduteko irizpideak adierazten dira, baita Planaren proposamenak eta neurriak ere. Proposamenak azaltzen dituen dokumentu erabakigarria da; bertan, lurralde-eredua ezartzen da eta hartutako antolatzeko aukerak justifikatzen dira. Antolamendu Memorian, diagnostikotik eratorritako zehaztapenak jasotzen dira. «Informazio Memoria».


Proposatutako unitateak identifikatzea, baloratzea eta babestea lurralde-antolamendu gisa ulertu behar da (historian zehar eraikitako lurralde-antolamendu gisa), eta hazkunde jasangarrira egokitzeko gaitasuna izan behar du. Horrela, bada, honela definituko genuke antolamendu-unitatea: lurralde-egitura zabalago bat osatzen duen eremu fisikoki homogenea edo sozialki antolatua.

3.2.- ANTOLAMENDU-EREMUA

Elgoibarko HAPOk esplizituki Karakateko Landa Parkea deitzen dion eremuari dagokio KBAPBren antolamendu-eremua.

Karakateko Landa Parkeak nabarmen handitu du Karakate-Irukurutzeta-Agirreburu natura-intereseko eremua, eta Elgoibarko udalerrriaren hego-ekialdeko erdiaren zati handi bat hartzen du.

Parkearen proposamenak honako hauek hartzen ditu barne: Karakate-Irukurutzeta-Agirreburuko natura-intereseko eremua; Elosua Plazentziako estazio megalitikoak, tumulu eta dolmen ugari dituenak; Karakate-Irukurutzeta-Agirreburuko paisaia berezi eta bikaina; Karakate-Irukurutzeta-Agirreburuko lotura-eremua; eta Izarraitz_Aizkorri-Aratz eta Izarraitz_Arno lotura-korridoreen zati bat. Era berean, bisoi europarrarentzat natura-interes handikoa den eremu bat hartzen du barne.



3.3.- ANTOLAMENDUAREN HELBURUAK

3.3.1. HELBURU OROKORRAK

- **Elgoibarren hirigintza-eredu bat formalizatzea, bere hiri-periferia udalerrriaren zati funtzional gisa jasoko duena (lurraldea barne hartuko duen konfigurazioa). Horretarako:**
 - Karakateko Landa Parkea babestu, kontserbatu eta leheneratuko da.
 - Planaren aplikazio-eremuan eta haren inguruan erabilerak eta jarduerak arautuko dira, haien harrera-gaitasunaren arabera.
 - Karakateko Landa Parkeko irisgarritasuna modu antolatuan arautuko da.
 - Herritarren bizi-kalitatea hobetuko da.
- **Karakateko Landa Parkean dauden paisaia, fauna, flora eta landaredia hobetu, berreskuratu eta birgaitu dadila ahalbidetzea. Horretarako:**
 - Dibertsitate biologikoa babestuko da.
 - Sistema naturalen egonkortasuna mantenduko da (baliabide naturalen kudeaketa eraginkorra).
 - Zaindu beharreko natura-, ingurumen- eta paisaia-balioak mantentzearekin bateragarriak diren ekoizpen-erabilerak eta -jarduerak arautuko dira.
 - Karakateko Landa Parkeko ingurumen- eta paisaia-baldintzak hobetuko dira, baso autoktonoko eremuak berreskuratuz eta basoberrituz.
 - Babes-eremuetan baliabide eta/edo prozesu ekologikoen bizirautea eragozten duten erabilera eta jardura debekatuak katalogatuko dira.
- **Karakateko Landa Parkeko eta haren inguruko kultura-ondarea hobetu, berreskuratu eta birgaitzeko aukera ematea. Horretarako:**
 - Lehendik dagoen kultura-ondarea babestuko da (etnografikoa, arkeologikoa...).
 - Elementurik aipagarrien balioa nabarmenduko da.
 - Inguruko landaguneeen tipologia babestuko da.
 - Baliabide naturalei eta kulturei balioa ematea ahalbidetuko duten ekintza-lerroak ezarriko dira: aisialdirako, jolasarako eta atsedenerako lekuak eta ibilbideak eskainiko dira.
 - Baliabide naturalak zentzuz erabiliko dira, funtzio zientifikoa eta ingurumen-hezkuntza Karakateko Landa Parkearen erabilera sozialarekin eta ingurunearen zaintzarekin bat etorrituz.

3.3.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK

- **Ingurumen-helburuak**
 - Paisaiaren testuinguruan ekosistemekin lotuta dauden landareak eta fauna babestea eta kontserbatzea.
 - Baliabide naturalak lurralde-aktibo gisa balioestea.
 - Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.
 - Baliabide naturalak eta hondakinak arduraz kudeatzea.
 - Natura eta biodibertsitatea babestea.
 - Klima-aldaketaren eragina mugatzea.
 - Biodibertsitate autoktonoa kontserbatzea eta handitzea, faunaren iragazkortasuna bultzatuz.
 - Landaredi potentziala berreskura dadila sustatzea eta landare-formazio autoktonoak mantentzen eta berreskuratzen laguntzea.
 - Elementu geologiko geomorfologikoak eta horien interesguneak kontserbatzea eta balioestea.
 - Urarekin eta haren erabilera eta aprobeixamenduekin lotutako paisaien aberastasuna eta aniztasuna babestea, plangintzan sare hidrikoek paisaiaren konfigurazioan duten funtsezko eginkizuna kontuan hartuta.

- **Ondare- eta nortasun-helburu kulturalak**
 - Nortasuna sortzen duten kultura- eta ondare-baliabideen balioa nabarmentzea.
 - Kultura Intereseko Ondasunak lurralde- eta paisaia-sare batean txerta daitezela sustatzea, pertzepzio-esanahi gehien duten ondasunak bereziki kontuan hartuta, eta haien ikusmen-, funtzio- eta interpretazio-inguruneak zaindu eta antolatu daitezela bultzatuz.
 - Ingurune arkeologikoen paisaiaren hobekuntzari balioa ematea, ikerketa sustatzea eta bultzatzea.

- **Helburu sozioekonomikoak**
 - Balioak, jarrerak eta gaitasunak garatuz gizarte-aldaketa sustatzea, ingurumen- eta gizarte-erantzukizuna bere gain hartzeko.
 - Ingurumen- eta garapen-arazoak faktore fisikoek eta biologikoek bakarrik eragiten ez dituztela ulertzea; izan ere, behar-beharrezkoa da elementu sozial, ekonomiko, politiko, historiko eta kulturelek betetzen duten eginkizuna barne hartzea.

- Haur, nerabe eta gazteek paisaian parte har dezatela sustatzea, bizi-kalitate indibidual eta kolektiboaren ezinbesteko faktore gisa, baita ingurumenarekin lotutako gatazketan eta arazoetan ere.
 - Erakundeetan eta horien artean antolakuntza-egiturak eta koordinazio-mekanismoak ezartzea, eskura dauden baliabideen erabilera optimizatzeko eta Landa Parkearen eremuan ekarpen positiboa egingo duten hobekuntza-planak martxan jar daitezela sustatzeko.
 - Landa Parkearen hobekuntza eta berrikuntza eragingo duten jarraipen, komunikazio eta ebaluaziorako mekanismoak eta tresnak finkatzea.
 - Ingurumenaren eta ingurunearen kontzeptua zabaltzea, gizarte- eta ekonomia-arloarekin eta, beraz, giza portaerarekin lotutako sistemaren jatorri eta ondorio gisa.
 - Komunitatea, bere osotasunean, parte-hartzearen ikuspegitik inplikatzeko, konpromiso indibidual eta kolektiboaren ikuspegitik eta genero-inklusibotasunerako irizpideen ikuspegitik, etorkizun jasangarri eta posible bat lortzeko bidean aurrera egiteko erronkarekin.
 - Sareko lana sustatzea eta beste parke batzuekin esperientziak trukatzeko, etengabe hobetzeko eta ikasteko helburuekin, etorkizun jasangarrirantz aurrera egiteko.
 - Ingurua eta nekazaritza-jarduera estentsiboak mantentzea, ekonomiaren, kulturaren eta paisaiaren aldetik duten dimentsio hirukoitza kontuan hartuta.
 - Baso-, nekazaritza- eta abeltzaintza-paisaiak eta landa-paisaiak mantentzea, hobetzea eta leheneratzea.
 - Lurzorua eskuratzeko eta horrela ondare publikoa areagotzeko kudeaketak abiaraztea Karakateko Landa Parkearen kudeaketan interesgarritzat jotzen diren eremuetan.
- **Azpiegiturekin eta ekipamenduekin lotutako helburuak**
 - Landa Parkearen eremuan ingurumen- eta kultura-balioekin bateraezinez diren azpiegiturek debekatzea.
 - Paisaia baliagarrienak ikusteko, interpretatzeko eta horietaz gozatzeko sarbide publikoa sustatzea eta bultzatzea, paisaia-ibilbideak eta -bideak eta begiratoki-sare bat sortuz, eremu horretako mugarri nagusiak ikusteko.
 - Diskriminaziorik gabeko ikusmenetzko hizkera sustatzea hiri-seinaleetarako oinarri gisa balio duen ikonografian.
 - **Leku eta elementu degradatuekin lotutako helburuak**
 - Hondatuta dauden eremuetan guneak berreskuratzeko edo sortzeko ekintzak sustatzea eta lehenestea.

- Paisaia naturalak gehien degradatzen dituzten prozesuak eta jarduketak ebaluatzea, kontrolatzea eta birbideratzea, berehala nahiz epe ertain eta luzera.
 - Abandonatuta dauden gunek eta hondatuta dauden eraikin edo instalazioak berreskuratzea eta leheneratzea.
- **Paisaian sartzearekin lotutako helburuak**
 - Bisualki desagokiak diren jarduerak identifikatzea, horiek leheneratu eta/edo berreskuratzekeo.
 - Landa Parkean gara daitezkeen jarduera berriak identifikatu eta/edo arautzea eta paisaia-inpaktuak sortzea, horiek debekatzeko edo neurri zuzentzaileak ezartzeko.
- **Aukera-berdintasunarekin lotutako helburuak**
 - Paisaietara irisgarritasun handiagoa sustatzea, haien balioen arabera ezarriko diren irisgarritasun-murrizketei edo-mugei kalterik egin gabe (natura- eta kultura-ondarea kontserbatzea, babes zibila, jabetzarekiko errespetua...).
 - Irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria lurraldeko erabilera berriekin lotzea.
 - Planaren diseinu orokorrean genero-ikuspegia txertatzea.
- **Hezkuntzarekin, prestakuntzarekin eta dibulgazioarekin lotutako helburuak**
 - Herritarrei beren kultura- eta natura-ondarea ezagutzeko aukera ematea, eta ondare hori balioesten eta kontserbatzen parte hartzeko aukera ematea.
 - Gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldiak tokiko kultura eta memoria helaraztea.
 - Jasangarritasuneranzko hezkuntzan aurrerapausoak ematea, Karakateko Landa Parkeko eremu pilotua oinarritzat hartuta.
 - Beste ezagutza-, prestakuntza- eta jarduketa-eremu batzuekin koordinazio- eta harreman-zubiak ezartzea.
 - Ingurumena kontuan izatea, pertsonen beren ingurunearekin duten harremanari buruzko ikuspegi integratuagoa txertatuz, prozesu ekologikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak hobeto ezagutzeko.
 - Hezkuntza arautuaren eremua zabaltzea, jasangarritasuna erkidegoaren garapenerako etengabeko prestakuntza-ardatz gisa har dadin.
 - Ingurumen-hezkuntza arazoak prebenitzeko eta konpontzeko prozesu gisa ulertzea, ikuspegi integral batean eta hezkuntza-ikuspegi modernoetara egokitzeko modu batean oinarrituta.
 - Ezagutzak eta ikaskuntzak eraikitzen laguntzea, jarrera jasangarriak sustatzen dituzten bizipenak bultzatuz.

- Karakateko Landa Parkearen inguruan dagoen natura- eta kultura-ondarearen aniztasuna zabaltzea.

3.4.- ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE OROKORRAK

Honako hau da arauaren xedea: KBAPBren eremuan, habitat naturalak, basoko fauna eta flora, zientzia- eta kultura-intereseko guneak eta paisaia-baliabideak kontserbazio-egoera onean mantentzea edo horiek leheneratzea.

Irizpide hauen aplikazio-eremua Elgoibarko HAPOn «Karakateko Landa Parke» gisa deituriko eremura mugatzen da.

3.4.1. INGURUMEN-IRIZPIDEAK

- Natura-ingurunea babestea eta kontserbatzea, bereziki natura- eta/edo paisaia-interes handieneko eremuak (ibarbideak eta errekek, pagadiak, hariztiak eta haltzadiak, gailur-lerroko larre-eremuak, Karakateko GIL...) eta espezie endemikoen eta/edo babestuen habitatak.
- Zona horietan esku-hartze antropikoa mugatzea.
- Ekosistemak eta fauna asaldatzen dituzten jarduerak kontrolatzea (besteak beste, ehiza-jarduerak debekatzea, baimendu gabeko ibilgailu motordunen zirkulazioa debekatzea eta komunikazio- edo energia-azpiegitura berriak – linealak eta ez linealak– ezartzea, haien tamaina edo edukiera dena dela).
- Jarduera eta/edo presentzia antropikotik eratorritako inpakturik gabeko lekuetan erreserba naturaleko eremuak ezartzea.
- Zoru-landaredi multzoaren egonkortasuna mantentzea.
- Eraldatutako habitatak leheneratzea.
- Hondatuta dauden eremuak berreskuratzea.
- Esku-hartze bigunak: espezie autoktonoak landatzea, egoteko guneak ingurumena berreskuratzeko eremuetan, lehendik dauden pistak eta bideak ibilbideetarako aprobetxatzea, etab.
- Aktibo naturalen eta eskaera sozialen artean bateragarritasuna bermatzeko egokienak diren eremuak aurkitzea.
- Aprobetxamendu jasagarriak sustatzea, erabilitako baliabideak berritzen direla eta ingurunearen balioak babesten direla ziurtatuz.

3.4.2. IRIZPIDE KULTURALAK

- KBAPBren aplikazio-eremuan dauden kultura-intereseko elementuak babestea eta kontserbatzea, horiek katalogatuta edo inbentariatuta egon ala ez.
- Interes gehien duten kultura-elementuak balioestea (*in situ* birgaitu eta interpretatzea).
- Ohiturak eta tradizioak berreskuratzea.
- Natura-, kultura- eta paisaia-baliabideek duten potentzial didaktikoa aprobetxatzea, herritarrak jasangarritasunaren arloan sensibilizatzeko eta hezteko.

3.4.3. IRIZPIDE SOZIALAK

- Mugitzeko desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna erraztea, gune batzuetara gutxienez.
- Planaren proposamenetan beste udal-sail batzuetan egindako iradokizunak kontuan hartzea.
- Inguru bertan dauden mendi-ibilbideekin eta kultura-ibilbideekin lotzea, Dolmenen Ibilbidearekin, esaterako.
- Mendi-ibilbideen eta BTTen sareak bereiztea.
- Atsedene- eta jolas-guneetako ekipamendua hobetzea, horiek egoera onean mantenduko direla bermatuz.
- Ikerketa- eta hezkuntza-jarduerak sustatzea.

3.4.4. IRIZPIDE EKONOMIKOAK

- Baliabideak eta lurzorua erabiltzeko sistema tradizionalak sustatzea.
- Landa Parkearen gailurreko larreetan abeltzaintza estentsiboa mantentzea.
- Landaguneetan inguruarekin oldarkorrek ez diren turismo-zerbitzuak sustatzea (nekazaritza-turismoko establezimenduak, erretegiak...).
- Eraikuntza-, industria- eta/edo hornidura-jarduerak instalatzea debekatzea.
- Enplegua sortzea, zuzenean nahiz zeharka, Parkearen kontserbazio, hobekuntza eta aprobetxamendu jasangarriko lanen bidez.

3.5.- HAPOren ANTOLAMENDU-KATEGORIAK, KBAPBren EREMUARI DAGOKIONEZ

HAPOren arabera, dokumentu honen xede den Karakateko Landa Parkea Babesteko eta Antolatze Plan Berezia idazten ez den bitartean, antolamendu-kategoriak bat etorriko dira Elgoibarko Plan Orokorraren berezko kategoriekin. Ere mu horren kasuan, honako hauek dira antolamendu-kategoriak:

- Babes berezia
- Baso-mendia
- Ingurumen-hobekuntza
- Nekazaritza eta abeltzaintza: Trantsizioko Landa Paisaia
- Lur gaineko uren babesa

Hona hemen unitate horien ezaugarriak:

3.5.1. BABES BEREZIA

Babes-zonak dira natura- eta zientzia-balio garrantzitsuak dituzten eremuak eta hauskortasun handiko eremuak, bertan dauden flora-, fauna- eta/edo kultura-agerpenengatik; izan ere, azken horien ondorioz proposatu zaie babes bereziko kategoria bat, eta horrek murrizketa handiak ezartzen ditu horien erabileran.

Ekologiaren, ingurumenaren eta/edo ondarearen oreka zorrotz babestea eta mantentzea da horien bokaziozko erabilera.

«Natura-intereseko eremuen zerrenda irekian» sartutako eremuak hartzen ditu barne eta, oro har, ekologiaren, kulturaren, paisaiaren eta abarren ikuspegitik baliotsuak diren eremu guztiak.

Antolamendu-kategoria honetan sartzen da «Karakate-Irukurutzeta-Agirreburu» natura-intereseko eremua.

Era berean, Babes Bereziko kategoriaren barruan sailkatzen dira interes handieneko landare-formazioak, hala nola baso-masa autoktonoak (geosail klimazikoak eta formazio paraklimazikoak, sail edafoklimaziko erriparioak eta harkaiztarrak) eta Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak. Formazio horien barruan sartzen dira:

- Atlantikoko pagadi azidofiloak, batzuetan *Ilex* oihanpearekin eta, beste batzuetan, *Taxus* oihanpearekin (*Quercion robori-petraeae* edo *Ilici*). Sail klimazikoak direlako eta udalerrian horrelako gutxi daudelako.
- Harizti azidofiloak, balio ekologikoa duten formazio preklimaziko autoktonoak direlako.
- *Nardus* belar-formazioak, espezie ugaridunak, eremu menditsuetako substratu siseoetan: Lehentasunezko habitata delako.

3.5.2. BASO-MENDIA

Balio ekologiko potentziala izan dezaketen arren, natura-balio handiko ekosistematik ez duten eremuak dira. Hala ere, basogintzarako balio nabarmena dute.

Kategoria honetan sartutako lursailek zuhaitz-estalkia mantentzeko joera argia dute, gehienetan gaur egungo erabileragatik eta, batzuetan, erabiltzeko bokazioarekin lotutako arrazoiengatik (arriskuak, arroen babesa eta abar). Espezie aloktonoen plantazioak hartzen ditu barne; horien artean, *intsinis pinua* nabarmentzen da, hark hartzen duen hedaduragatik.

Izaera tradizionalako lehen sektoreko ekoizpenarekin lotutako lanetarako erabiltzen dira bokazioz, betiere ingurunearen harrera-ahalmena gainditzen ez badute.

Basoan duten produktibitateagatik inbentariatutako ingurumen-unitateak hartzen ditu barne.

3.5.3. INGURUMEN-HOBEKUNTZA

Ingurumen-hobekuntzaren kategoria honetan sartzen dira, degradazio-prozesuen eraginez, potentzial ekologikoaren zati handi bat galdu duten eremuak. Eremu horietan ingurumena leheneratzeko lanak egin behar dira, haien kalitatea hobetu ahal izateko.

Ingurumena leheneratzeko lanek osatzen dute kategoria honetako eremuen bokaziozko erabilera.

Hasierako ingurumen-balioa aldatu zaien eremuak hartzen ditu barne, eta horien helburua da balio handiagoko egonaldi ekologikoetara itzultzea, haietan esku-hartze erabakigarriak eginez.

Kategoria honetan sartzen dira babes bereziko kategorian sartzen ez diren sail subserialak eta landaredi erruderal eta nitrofiloko zonak.

3.5.4. TRANTSIZIOKO LANDA-PAISAIA

Belardiz eta haiekin mosaikoan dauden baso-unada txikiz estalitako landazabaleko eremuak dira. Baso-zona zabalekin kontaktuan daude eta, oro har, horrelako erabilerak izaten dituzte bokazioz.

Izaera tradizionalako lehen sektoreko ekoizpenarekin lotutako lanetarako erabiltzen dira bokazioz, betiere ingurunearen harrera-ahalmena gainditzen ez badute.

Nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabaleko paisaiak osatzen dituzten ingurumen-unitate erosoak barne hartzen ditu.

3.5.5. LUR GAINEKO UREN BABESA

Eremuko ibaiek eta errekek eta horiei dagokien babes-eremuak osatzen dute kategoria hau, eta EAEko Ibaian eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPSan dago jasota.

Honako hauek dira gune horietan jarduteko irizpidearen helburuak: uren kalitatea kontserbatzen laguntzea, ibilgu eta ibaiertzen okupazioa edo aldaketa saihestea, eta arrisku naturalen ondoriozko kalteak ahalik eta gehien gutxitzea.

Funtsean, Ermuaranerrekaren ibilguari dagokio, baina sare hidrografiko osora eta haren babes-eremura zabaltzen da.

3.6.- KBAPBren ANTOLAMENDU-KATEGORIAK

Antolamendu-kategoriek modu homogeanoan jokatzeko duten (gaur egungo erabilera edo jardura jakin batzuk jasateari edo ez jasateari dagokionez) edo eskari potentzial bat izan dezaketen lurzatiak hartzen dituzte barne. Horrela, lurralde-diagnostikoa pragmatikoa izatea lortzen da, eta kategoriak benetako unitate operatibo bihurtzen dira Plana idazteko.

Antolamendu-kategoriak fenomeno egituratzaile eta funtzionalen arteko mendekotasun edo lotura espazialaren isla dira; lehenengoek osagai biologiko, abiotiko eta soziokulturalen lurralde-antolamenduari egiten diote erreferentzia, eta bigarrenak, berriz, ekosistemaren barruko harremanak edo zikloak islatzen dituzte.

Horrenbestez, Plan Berezi honen bidez, Karakateko Landa Parkerako antolamendu-kategoriak osatzea proposatzen da, Elgoibarko HAPOk jasotzen duenari jarraikiz; izan ere, Elgoibarko HAPOk eremuaren antolamendu XEHATUAREN ahalmena esleitzen dio tresna horri.

Plan Berezi honen bidez, lurraldeko ekologia-, ekoizpen-, paisaia, zientzia- eta kultura-balioak kontserbatzeko antolamendu zehatza planteatzen da. Horretarako, 5 antolamendu-kategoriatan banatzen da eremua, batzuetan azpikategoriatan banatuta. Honako hauek dira:

- Babes bereziko zonak
 - Ekologikoa
 - Zientifiko-kulturala eta paisaia babestekoa
- Baso-mendia
 - Baso-mendi babeslea
 - Natura-intereseko eremuan dauden baso-mendietako eremuak
- Ingurumen-hobekuntza
 - Ebolutiboa
 - Leheneratzeko esku hartu behar dena
- Lur gaineko uren babesa
- Erabilera publikoko zonak eta azpiegiturak
 - Telekomunikazio-azpiegituraren ingurunea
 - Bideak eta bidezidorrak

Adierazi behar da antolamendu-kategoriak denboran zehar alda daitezkeela eta aldatu behar direla, kudeaketaren arabera, naturak edo gizakiak berak eragindako arrazoiak direla eta.

Horrela, ingurumen-hobekuntzako zona bat babes zorrotzeko edo baso-mendiko zona bihur daiteke beharrezkoak diren leheneratze-neurriak hartu ondoren, edo horiek ebaluatzeko eta berrikusteko unea iristen denean.

3.6.1. BABES BEREZIA

Babes bereziko zonak dira natura- eta zientzia-balio garrantzitsuak dituzten eremuak eta hauskortasun handiko eremuak, bertan dauden flora-, fauna- eta/edo kultura-agerpenengatik; izan ere, azken horien ondorioz proposatu zaie babes bereziko kategoria bat, eta horrek murrizketa handiak ezartzen ditu horien erabileran.

LAGetan zehaztutakoaren arabera, kategoria hau aplikatuko litzaieke ondo kontserbatutako baso autoktonoei, egoera onean dauden ibai-multzoei, gailurreko eremuei edo landaredi bereziko eremuei eta, oro har, ekologiaren, kulturaren eta paisaiaren, edo horien guztien ikuspuntutik baliagarriak diren elementu guztiei.

Ekologiaren, ingurumenaren eta/edo ondarearen oreka zorrotz babestea eta mantentzea da horien bokaziozko erabilera.

BABES ZORROTZ EKOLOGIKOA

Ekologiaren eta ingurumenaren aldetik balio handia duten zonak dira, lurralde osorako prozesu funtzionalak betetzen dituztenak, edo habitat naturalak edo espezie berezi edo mehatxatuak dituztenak, ahalik eta esku-hartze gutxien behar dutenak; horrenbestez, horietan bilakaera naturala da prozesu nagusia.

Eremu horietan habitaten eta bertan dauden espezie eta prozesu basati edo naturalen bilakaera naturala ikus daiteke. Hala ere, salbuespeneko egoeretan, intentsitate txikiko jarduerak planteatu daitezke, haien eta bertako espezieen bilakaera bizkortzeko (kontserbazio-egoera hobeto baterantz) eta haien jarraitutasuna eta osotasun ekologikoa arriskuan jartzen duten mehatxuak geldiarazteko.

Kategoria honetan, zientzia- eta hezkuntza-jarduketak edo erabilera publikoko jarduketak planteatu daitezke, betiere osotasun ekologikoari eragin gabe. Erabilera publikotzat jotzen da kasuan kasuko Administrazioak hornitu behar dituen programa, zerbitzu, jarduera eta ekipamenduen multzoa, horiek nork kudeatzen dituen kontuan hartu gabe. Bisitarien haren natura- eta kultura-balioak modu ordenatuan eta seguruan hurbiltzea da helburua, balio horien kontserbazioa, ulermena eta estimazioa bermatuz, horretarako informazioan, hezkuntzan eta ondarearen (kulturala eta natural edo ekologikoa) *sensu lato* interpretazioan oinarrituz.

Kategoria honetan sartzen dira honako eremu hauek:

- Lurzoruak babestu, akuiferoak berriz bete eta bestelako funtsezko prozesu ekologikoak iraunarazteko eginkizun garrantzitsua betetzen duten eremuak.
- Kontserbazio-egoera onean dauden habitat naturalen eredu edo erakuskariak, desagertzeko arriskuan daudenak edo nazioarteko hitzarmenen edo berariazko xedapenen arabera babes berezia behar dutenak.
- Espezie mehatxatu gisa katalogatuta dauden animalia- edo landare-populazioak, elementu endemikoen kontzentrazio handiak edo nazioarteko hitzarmenen edo berariazko xedapenen arabera babes berezia behar duten espezieak barne hartzen dituzten eremuak.

Babes Berezi Ekologiko kategoriaren barruan sailkatzen dira interes handieneko landare-formazioak, hala nola baso-masa autoktonoak (geosail klimazikoak eta formazio paraklimazikoak, sail edafoklimaziko erriparioak eta harkaiztarrak) eta Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak. Formazio horien barruan sartzen dira:

- Atlantikoko pagadi azidofiloak, batzuetan *Ilex* oihanpearekin eta, beste batzuetan, *Taxus* oihanpearekin (*Quercion robori-petraeae* edo *Ilici*). Sail klimazikoak direlako eta udalerrian horrelako gutxi daudelako.
- Harizti azidofiloak, balio ekologikoa duten formazio preklimaziko autoktonoak direlako.
- *Nardus* belar-formazioak, espezie ugaridunak, eremu menditsuetako substratu siseoetan: lehentasunezko habitata delako.

(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.3.3 puntua eta 17. eta 18. mapak)

Kategoria hau estrategikoa da Karakateko Landa Parkearen eremuko natura- eta kultura-balioak mantentzeko.

Honako hau da jarduteko irizpidea: basoaren osotasun fisikoa mantentzea, orbanen arteko konektagarritasun ekologikoa sustatzea eta baso-formazioak osatzen dituzten estratuak berreskura daitezela sustatzea, biodibertsitatea bultzatuz.

ZIENTZIA-, KULTURA- ETA PAISAIA-BABES ZORROTZA

Zientziaren, kulturaren eta/edo paisaiaren aldetik balio handia duten zonak dira eta babes-maila handia behar dute, horiek definitzen dituzten ezaugarriak ez aldatzeko.

Kategoria honetan sartzen dira honako eremu hauek:

- Interes zientifikoa eta/edo paisaia ikusteko potentzialtasun berezia duten kultura- eta/edo paisaia-elementuak dituzten eremuak.
- Landa- edo nekazaritza-paisaia harmoniatsuak, aparteko edertasuna edo kultura-balioa dutenak, hala nola aztarnategi arkeologikoak, paleontologikoak, geologia- eta geomorfologia-intereseko guneak, etab.

Babes berezikotzat jotzen da Karakateko gailur-lerroaren multzo osoa. Beraz, haren egitura eta funtzionamendu loteslea mantendu behar dira, bertako balio kultural, arkeologiko eta geologikoekin harmonian.

Zientziaren eta kulturaren ikuspegitik, babes-maila horretan sartzen dira Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoari dagokion eremua (10. zk., Gipuzkoa) eta Oinarrizko Babes Eremua handitzeko eremua (3. eremua), Karakate/Kortazar/Muneta gailurra barne hartu arte. Eremu hau babestea ezinbestekoa da, Aranzadik 2022ko kanpainan egindako aurkikuntza berrien ondorioz (Otsoaldasoro I eta II zistak, Gortazarreko zista eta Otsoaldasoro III tumulua). Babes-eremuaren barruan sartzen da «Dolmenen ibilbide» berria. (Ikus KBAPBren 2.6 puntua eta 30. mapa)

Karakateko Landa Parkearen eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Geologia Intereseko Lekuen Inbentarioko 41. zenbakiko GIL dago, «Karakateko ebaki bolkanikoa». (Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.2.2 puntua eta 10. mapa)

Kategoria hau estrategikoa da Karakateko Landa Parkearen eremuko natura- eta kultura-balioak mantentzeko.

3.6.2. BASO-MENDIA

Balio ekologiko potentziala izan dezaketen arren, natura-balio handiko ekosistemarik ez duten eremuak dira. Hala ere, basogintzarako balio nabarmena dute.

Kategoria honetan sartutako lursailek zuhaitz-estalkia mantentzeko joera argia dute, gehienetan gaur egungo erabileragatik eta, batzuetan, erabiltzeko bokazioarekin lotutako arrazoiengatik (arriskuak, arrozen babesa eta abar). Espezie aloktonoen plantazioak hartzen ditu barne; horien artean, *intsinis pinua* nabarmentzen da, hark hartzen duen hedaduragatik.

BASO-MENDI BABESLEA

Plan Bereziak kategoría hau ezartzen du HAPOren «Baso» kategoriaren garapen gisa, babes handiagoa emateko eta zehaztaperen espezifiko batzuk ezartzeko, betiere Landa Parkeko baso-ustiapenen jasagarritasun handiagoa bermatzeko.

Kategoria honetan sartzen dira lurzorua kontserbatzera eta babestera eta bertan dagoen landaredia hobetzera bideratutako baso-bokazioa duten lurzoruak. Eredu horietan lehentasunezko gaiak dira basoaren funtzio babeslea (higadura-eragileen eta lerradura-arriskuaren aurrean), baliabide hidrikoen erregulazioan duen eginkizuna, edo ekologiaren eta paisaiaren balioa.

Kategoria honetan sartzen dira malda ertain edo handiko mendi-hegaletan kokatutako baso-plantazioak. Horretarako, horiek basoberritzea proposatzen da, inguruko baldintza edafiko eta ekologikoetara egokitutako espezie autoktonoak birlandatuz, hala, lurzorua kontserbatzeko eta landaredi potentziala leheneratzeko.

Zona horietan aplikatu beharreko jarduketak irizpidea baso-masak kontserbatzea eta ingurumena hobetzea da, betiere natura-intereseko landaredia kontserbatuz eta, pixkanaka, ekoizpen-plantazioen ordez KBAPBren helburuarekin bateragarriagoak diren espezieak landatuz. Funtzio babeslea bat dator, salbuespenak salbuespen, abeltzaintza estentsiboaren erabilerarekin, baita mendiaren erabilera sozialarekin eta haren ustiapen jasagarriarekin ere.

Kategoria honetan sartzen dira honako baso-plantazio hauek:

- Douglas izeiaren plantazioak
- Alertze-plantazioak
- Zedro-plantazioak
- Pago-plantazioak
- Larizio pinuaren plantazioak
- Pinaster pinuaren plantazioak
- Intsinis pinuaren plantazioak
- Askotariko hostozabalen plantazioak
- Askotariko hostozabal eta koniferoen plantazioak
- Haritz gorriaren plantazioak
- Sekuoia-plantazioak

Oro har, kategoría honetako irizpideak Baso Plan Estrategikoan (1994-2030) zehaztutakoak dira. Honako hau da jarraitu beharreko oinarrizko irizpidea: mendiko baliabideak modu bateragarrian eta mugagabean antolatu behar dira, baso-masen ekoizpen jasagarria eta abeltzaintza-erabileren biziraupena ziurtatuz, eta, edozein kasutan, inguru horien izaera multifuntzionala nabarmenduz eta baloratuz.

Basogintza-erabilerak lehentasuna izan behar du baso-kategoriako zonetan; izan ere, zona horiek dute horretarako potentzialtasun gehien, eta produktibitatea eta basoei lotutako gizarte-, babes- eta ingurumen-kanpokotasunak barne har ditzakete. Zona horietan areagotu egingo dira baso-masak hobetzeko inbertsioak, hala nola bide-sarea sortuz, suteen aurka borrokatuz edo baso-tratamenduak eginez.

Baso-soilketarekin lotutako arazoan aurrean –habitataz zuzenean galdu direlako edo higadurarekin eta uholde-arriskuarekin lotutako arazoengatik–, mozketa selektiboak egitea komenigarritzat jotzen da kudeaketa-irizpide gisa, zur hilaren zatia mantenduz. Pixkanaka basoberritzea proposatzen da, inguruko baldintza edafiko eta ekologikoetara egokitutako espezie autoktonoekin, lurzorua kontserbatzeko eta landaredi potentziala leheneratzeko.

Zona horretan debekatuta dago eraikin berriak eraikitzea, salbuespenezko kasuetan izan ezik, betiere aurrez behar bezala justifikatzen bada, baso-erabilera nagusiekin lotuta daudelako eta erabilera horiek garatzeko ezinbestekoak direlako.

Eremu horietan, honako hau da aplikatu beharreko irizpidea: mugatu egingo da esku-hartze antropikoa, eta lehendik zegoen egoera mantenduko da; ingurua aprobetxamenduaren mende badago, aprobetxamendu hori modu jasangarrian sustatuko da, erabilitako baliabidea berritzen dela ziurtatuz.

Era berean, zientzia- edo hezkuntza-jarduketak edo erabilera publikoko jarduketak planteatu ahal izango dira, basoen babes- eta ekoizpen-izaerari eragin gabe.

(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.3.3 puntua eta 17. eta 18. mapak)

NATURA-INTERESEKO EREMUAN DAUDEN BASO-MENDIETAKO EREMUAK

Debarreneko Lurralde Plan Partzialaren zehaztapenekin eta haren izaera loteslearekin bat etorriz, eremu honetan sartzen dira, halaber, «Karakate-Irukurutzeta-Agirreburu» natura-intereseko eremuan sartutako baso-mendiko orbanak, LPPan «Babestu beharreko garrantzi bereziko eremu» gisa jasotzen direnak.

(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.3.6 puntua eta 20. eta 21. mapak)

3.6.3. INGURUMEN-HOBKUNTZA

Balio ekologikoak, habitat naturalak eta bertan dauden espezieak nabarmen aldatzen edo hondatzen zaizkien gune degradatuak dira, eta esku-hartzeak proposatzen dira haien funtzionaltasuna berreskuratzeko, bertan dauden balioen biziraupena bermatzeko eta haien kontserbazio-egoera hobetzeko (eboluzio-egoera altuagoetara).

Kategoria honetan bi azpikategoria espezifiko jasotzen dira:

INGURUMENAREN HOBKUNTZA EBOLUTIBOA

Honako hauek sartzen dira ingurumenaren hobekuntza ebolutiboaren kategorian: hondatuta dauden basoko zonak, sastrakadiak eta lurzoru marjinalak, balio handiko eremuetan egoteagatik edo balio handiagoko eremuen ondoan egoteagatik, horien bilakaera kalitate-maila handiagotara aldatzea onuragarritzat jotzen bada.

Ingurumena leheneratzeko lanek osatzen dute kategoria honetako eremuen bokaziozko erabilera, habitata garapen handiagoko sekuentzia ebolutiboetara garatuz.

Honako formazio hauek sartzen dira bertan:

- Zuhaixkak
- Txilardi-otadi-iratze atlantikoa

Landaredi naturala leheneratzea da irizpide orokorra, mozketak selektiboekin, kontrolatutako artzaintzarekin, garbiketekin, landaredia gaika ezabatuta, izurriak eta gaixotasunak tratatuta, birsortzeko itxiturekin, ezpondak birmoldatuta (ezpondak ekologia- eta paisaia-hobekuntzako prozesuak errazteko egiten badira), hidroereinen bidez, inausketa selektiboekin, etab.

Kategoria hau estrategikoa da Karakateko Landa Parkeko eremua hobetzeko.

(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.3.3 puntua eta 17. eta 18. mapak)

BIRSORTZEKO ESKU HARTU BEHAR DIREN INGURUMEN-HOBKUNTZAKO EREMUAK

Birsortzeko esku hartu behar diren ingurumen-hobekuntzako eremuen kategorian sartzen dira espezie xenofitoek landaredi potentziala ordezkatu duten eremuak (espezie horiek lurzoru-azalera handiak inbaditzeko joera izaten dute).

Honako formazio hauek sartzen dira bertan:

- Sasiakazia-plantazioak
- Eukalipto-plantazioak

Honako hau da hobekuntza-irizpidea: espezie horiek desagerraraztea eta mimak landare autoktonoekin ordezkatea.

Kategoria hau estrategikoa da Karakateko Landa Parkeko eremua hobetzeko.

(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.3.3 puntua eta 17. eta 18. mapak)

3.6.4. LUR GAINEKO UREN BABESA

Elgoibarko ibaiek eta errekek eta horiei dagokien babes-zonak osatzen dute kategoria hau, eta EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPSan dago jasota.

Honako hauek dira gune horietan jarduteko irizpidearen helburuak: uren kalitatea kontserbatzen laguntzea, ibilgu eta ibaiertzen okupazioa edo aldaketa saihestea, eta arrisku naturalen ondoriozko kalteak ahalik eta gehien gutxitzea.

(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.2.3 puntua eta 11. mapa)

3.6.5. ERABILERA PUBLIKOKO ZONAK ETA AZPIEGITURA

TELEKOMUNIKAZIO-AZPIEGITURA ETA HAREN INGURUA

Karakateko Telekomunikazio Zentroa dagoen ingurua hartzen du barne; izan ere, eta Soraluzeko lurretan egon arren, Elgoibarko udalerriko lurzorua ere hartzen du, batik bat bertan dagoen aparkalekuaren kasuan.

Kasu honetan, honako hau da irizpidea: gailur-lerroa ikusizko inpaktu handiko azpiegitararik gabe kontserbatzea, antena berriak edo linealak ez diren B motako zerbitzu-instalazio teknikoak instalatu gabe; eta, lehendik daudenen kasuan, handitzea galaraziz.

BIDEAK ETA BIDEZIDORRAK

Landa Parkea zeharkatzen duten bide eta bidezidorren sarea hartzen du barne.



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA



CATEGORÍAS DE ORDENACIÓN DEL
PARQUE RURAL DE KARAKATE
KARAKATEKO LANDA PARKEAREN
ANTOLAMENDURAKO KATEGORIAK

MAPAREN ZENBAKIA


P-1


DATA

17/01/2023



SUSTATZAILEA IDAZLE TALDEA

 **ELGOIBAR**
UDALA | AYUNTAMIENTO

 **KRIPTA**

INFORMAZIO KARTOGRAFIKOA

Proiektzioa: UTM 30N
Datum: ETRS 89

MAPAREN ESKALA

1:10.000 (A-1)

0 0,3 0,6 1,2 Km

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> Zonas de especial protección científico-cultural y paisajística / Babes zientifiko-kultural eta paisajistiko bereziko eremuak Zonas de especial protección ecológica / Babes ekologiko bereziko eremuak Monte forestal protector / Baso-mendi babeslearen eremua Zonas de monte forestal incluidas dentro del área de interés naturalístico / natura-intereseko eremuaren barruan sartutako baso-mendiko eremuak Zonas de mejora ambiental evolutiva / Ingurumenaren hobekuntza ebolutiborako eremuak Zonas de mejora ambiental de intervención regenerativa/ Berroneratze-jarduketaren ingurumen-hobekuntzako eremuak Zona de uso público e infraestructuras/ Erabilera publikoko eremua eta azpiegiturak | <ul style="list-style-type: none"> Área de interés natural (PTP) / Natura intereseko eremua (LPP) Caminos y senderos / Bideak eta bidexkak Protección de aguas superficiales / Lurrazaleko uren babesa |
|---|--|

3.7.- BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK

Arestian aipatutako antolamendu-kategoriei gainjarrita, badira beste baldintzatzaille batzuk ere; horiek ez dute erabilera mugatzen, jarduera jakin batzuk garatzeko modua baizik.

Baldintzatzaille biologikoen, naturalistikoen, arkeologikoen eta geologikoen antolamendu xehatuaren berezko maila dutela dio HAPOK. Horrenbestez, baldintzatzaille gainjarriak Plan Berezi honen bidez arautu ahal izango lirerateke, baina lehen planteatutako antolamendu-kategorien arabera justifikatzen dira.

Ingurune fisikoaren antolamendu-kategoria bakoitzerako ezarritako erabilera-erregimena mugatzen edo baldintzatzaille gainjarriak askotarikoak dira: arrisku naturalen eta klima-aldaketaren baldintzatzaille gainjarriak, eta azpiegitura berdearenak (kultura- eta paisaia-ondarearen eta eremu akustikoen babesari buruzkoak).

3.7.1. ARRISKU NATURALARI ETA KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK

ARRISKU GEOFISIKOAK

Arriskuen sorta zabala biltzen da baldintzatzaille honetan, material geologikoen (mineralak, gatzak, ur errektiboak, lurzoru hedakorrak) eragindakoak zein prozesuek (irristatzeak, subsidentzia eta kolapsoak, higadura, lur gaineko uren dinamikak) eragindakoak.

HIGADURA-ARRISKUA DUTEN EREMUAK jasotzen dira bereziki arrisku geofisikoen lotutako baldintzatzaille gainjarri gisa. Hirigintza- eta lurralde-planek ezartzen dituzten erabilerak antolatzeko eta esleitzeko orduan bereziki garrantzitsua da higadura-fenomenoak agertzeko arrisku handia duten eremuak zehaztea. Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak higadura-arriskua duten eremu horiek jasotzen ditu antolamenduari gainjarritako baldintzatzaille gisa, eta honela definitzen ditu: «*Eremu hauetan, beren ezaugarri litologikoen eta erliebearen ondorioz, higadura-fenomenoak agertzeko erraztasun handiagoa dago*».

Kategoria honetan sartzen dira:

- % 30etik gorako maldak dituzten eremuak
Horien larritasunagatik eta intentsitate-mailagatik, honako kategoria hauek hautatu dira:
 - Muturreko higadura-prozesuak dituzten zonak: 200 (t/ha urtean) baino lurzoru-galera handiagoak dituztenak, higadura dutenak eta higadura agerikoa denean.
 - Higadura-prozesu oso larriak dituzten zonak: 100 eta 200 (t/ha urtean) bitarteko lurzoru-galerak dituztenak, higadura dutenak eta higadura nabarmena denean.
 - Higadura-prozesu larriak dituzten zonak: 50 eta 100 (t/ha urtean) bitarteko lurzoru-galerak dituztenak, higadura dutenak eta higadura bistakoa denean.

(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.4.2 puntua eta 23., 25. eta 26. mapak)

- Baldintzatzaile geofisiko horretan sartzen dira, halaber, LERRADURA-ARRISKUA duten inguruak. Gipuzkoako Foru Aldundiak duela gutxi egin du kartografia hori, klima-aldaketaren ondorioak Gipuzkoako hirigintza-plangintzan txertatzeko tresna lantzearen esparruan. *Lerradura-arrisku handia* duten eremuak sartzen dira.

(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.4.2 puntua eta 24. mapa)

Irizpide orokor gisa, zuhaitz-estalkia mantentzea zainduko da, edo zuhaitz-estalki hori sartu eta hedatzea lurzoru biluzien kasuan, eta lurzoruaren egonkortasunari eragiten dioten jarduerak saihestuko dira. Dena den, lurzoru-galerak areagotu ditzaketen edo prozesuen zuzentasuna zaildu dezaketen jarduerak onargarriak badira, beharrezko zehaztapenak ezarri beharko ditu garapen-plangintzak.

KLIMA-ALDAKETAREKIN LOTUTAKO ARRISKUAK

Multzo honetan sartzen dira ekaitzei edo olatu handiei lotutako arriskuak, lehorte luzeengatik basogintzako alde homogeneoetan suteak gertatzeko arriskuak eta estres termikoagatik arriskuak, bereziki hiriguneetako bero-irlaren fenomenoen ondoriozko arriskuak. Pixkanaka, hirigintza-plangintzak muga nahiz araubide egokiak txertatuko ditu, lurralde-plangintzak arrisku horien tratamenduari ekiten dioen neurrian.

- Ibilguak eta ur-bilketak babesteko eremuak
(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.2.3 puntua eta 11. mapa)
- Interes hidrogeologikoko eremuak
(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.2.3 puntua eta 13. mapa)
- Su-arriskua duten eremuak: Landa-parkearen eremuak sute-arrisku handiko/oso handiko eremuak ditu, gaur egun eskura dugun kartografiaren arabera.
(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.5.5 puntua eta 27. mapa)
- Energia berriztagarriekiko sentikorrak diren guneak (eolikoa eta fotovoltaikoa).
(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.4.5 puntua eta 28. eta 29. mapak)

Lurraldearen plangintza egiteko orduan oso garrantzitsua da klima-aldaketatik eratorritako ingurumen-arriskuak txertatzea, lurraldeko erabilerak eta udalerrietan garatu beharreko baso-politika zehazteko faktore baldintzatzaileak diren heinean. Karakateko Landa Parkean baso-presentzia handia dago, eta tenperaturaren igoerak, lurzorua eta ekosistemak xerifikatzeak eta basoen kudeaketa egokirik ez izateak basosuteak areagotu ditzake datozen hamarkadetan; hori oso arriskutsua izan daiteke lurraldean eta bertan garatzen diren jardueretan.

3.7.2. AZPIEGITURA BERDEARI BURUZKO BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK

ESPEZIE BABESTUEN BANAKETA-EREMUAK ETA BATASUNAREN INTERESEKO HABITATAK

Baldintzatzaile honetan sartzen dira:

- Kudeaketa-plana onartuta duen fauna mehatxatuarentzako intereseko eremuak (biso europarra)
(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.3.5 puntua eta 20. mapa)
- Batasunaren intereseko habitatak
(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.3.4 puntua eta 19. mapa)
- Hegazti-fauna babesteko eremuak (linea elektrikoak)
(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.3.5 puntua eta 20. mapa)

KORRIDORE EKOLOGIKOAK

Korridore ekologikoen sarea da; bertan sartzen dira eguneratzeak edo LPP edo hirigintza-planek gehi ditzaketenak ere, bakoitzak dagokion eskalan.

(Ikus KBAPBren Informazio Memoriaren 2.3.7 puntua eta 22. mapa)

EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen xedea da konektagarritasun biologikoa bermatzea eta biodibertsitatea kontserbatzea. Horregatik, ekosistema baliotsuenak babestea eta degradatuen daudenak leheneratzea izango da jarduketa-irizpidea, fauna onodunaren iragazkortasuna bermatuz.



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA


MAPAREN IZENA
CONDICIONANTES SUPERPUESTOS RELATIVOS A
RIESGOS NATURALES Y CAMBIO CLIMÁTICO
ARRISKU NATURELEI ETA KLIMA-ALDAKETARI
BURUZKO BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK

MAPAREN ZENBAKIA

P-2

DATA

04/07/2022



SUSTATZAILEA




IDAZLE TALDEA




INFORMAZIO KARTOGRAFIKOA

Proiektzioa: UTM 30N
Datum: ETRS 89



MAPAREN ESKALA

1:10.000 (A-1)



- Areas erosionables (PTS) / Higadura jasatzeko arriskua duten tokiak (LPS)/Higadura jasatzeko arriskua duten tokiak (LPS)
- Zona de interés hidrogeológico / Interes hidrogeologikoko eremua
- Riesgo de erosión / Higadura-arriskua
- Riesgo de incendio / Sute arriskua
- Riesgo alto de deslizamiento / Irristatzeko arrisku handia
- Pendientes fuertes / Malda handiak



Hidrología / Hidrología

- Erreka, errekastoa, erreka-zuloa
- Urazala

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA
CONDICIONANTES SUPERPUESTOS
SENSIBILIDAD A RENOVABLES (EÓLICA)
BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK
BERRIZTAGARRIETARAKO
KALTEBERATASUNA (EOLIKOA)


MAPAREN ZENBAKIA
P-3
DATA
04/07/2022





SUSTATZAILEA


IDAZLE TALDEA


INFORMAZIO KARTOGRAFIKOA
Proiektzioa: UTM 30N
Datum: ETRS 89




MAPAREN ESKALA
1:10.000 (A-1)
0 0,3 0,6 1,2 Km

-  Alta / Handia
-  Máxima / Maximoa

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA
CONDICIONANTES SUPERPUESTOS
SENSIBILIDAD A RENOVABLES (FOTOVOLTAICA)
BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK
BERRIZTAGARRIETARAKO
KALTEBERATASUNA (FOTOVOLTAIKOA)


MAPAREN ZENBAKIA
P-4
DATA
04/07/2022




SUSTATZAILEA
ELGOIBAR
UDALA | AYUNTAMIENTO

IDAZLE TALDEA
KRIPTA

INFORMAZIO KARTOGRAFIKOA
Proiektzioa: UTM 30N
Datum: ETRS 89



MAPAREN ESKALA
1:10.000 (A-1)



- Alta / Handia
- Máxima / Maximoa

KARAKATEKO LANDA PARKEA BABESTEKO ETA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA

MAPAREN IZENA



CONDICIONANTES SUPERPUESTOS
INFRAESTRUCTURA VERDE
BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK
AZPIEGITURA BERDEA





MAPAREN ZENBAKIA

P-5

DATA

04/07/2022



-  Área de interés especial para el visón europeo / Biso europarrarentzako interes bereziko eremua
-  Zona de protección de la avifauna / Hegazti-fauna babesteko eremua
-  Hábitats de interés / Intereseko habitatak
-  Corredores ecológicos / Korridore ekologikoak

3.8.- ERABILEREN DEFINIZIOA, ZONAKATZEAREN ARABERA

Plan Berezi hau indarrean dauden plangintza-tresnetara egokitzeko, uztailaren 30eko 128/2019 DEKRETUAREN bidez onartutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen dokumentuan ezarritako erabilerak definitzen dira, horiek Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan ezarritakoak baino beranduago onartu baitziren.

Lurzoru urbanizaezinean araututako erabilerak eta jarduerak honela sailkatzen dira, horien izaeraren arabera:

- Ingurumenaren babesa.
- Aisia eta jolasa.
- Lehen sektoreko baliabideen ustiapena.
- Azpiegiturak.
- Eraikuntza-erabilerak.

3.8.1. INGURUMENAREN BABESA

KBAPBren ondorioetarako, honako erabilera eta jardura hauek sartzen dira kategoria honetan:

KONTSERBAZIOA

Egungo ezaugarriak eta egoera bere horretan uztea, gizakiak bertan esku hartu gabe edo, kasurik naturalizatuenetan, zientzia- edo kultura-izaerako esku-hartzeak soilik eginda; edo egungo erabilerarekin jarraitzea eta aktiboki parte hartzea, garapen jasangarriko dinamika batean, gainerako kasuetan.

INGURUMEN-HOBEKUNTZA

Kasuan kasuko zona bere jatorrizko egoerara edo balio handiagoko oreka-egoera batzuetara bideratzeko gauza diren tratamenduak. Hobekuntza hori askotarikoa izan daiteke, esleitzen zaien unitateen kasuistika partikularraren arabera (inausketa selektiboak, kontrolpeko larratzea, garbiketa, landarediaren ezabaketa selektiboa, izurrite eta gaixotasunen tratamendua eta abar).

JARDUERA ZIENTIFIKO-KULTURALAK

Ingurumenaren azterketa eta ikerketa ahalbidetzeko jarduerak, eraikuntzarik inplikatzeko ez dutenak.

3.8.2. AISIA ETA JOLASA

KBAPBren ondorioetarako, honako erabilera eta jarduera hauek sartzen dira kategoria honetan:

AISIA ESTENTSIBOA

Aisia estentsiboa ondo pasatzea da, aisia-, turismo-, hezkuntza- eta natura-ingurunearen interpretazio-helburuekin, jarduera bigunak oinarri hartuta eta ekipamendu aipagarririk gabe: txangoak eta paisaia ikustea (ingurune fisikoan eragin txikia dute). Aisia mota horretan oinezkoak bakarrik ibiltzen dira. Horretarako, azpiegitura eta egokitzapen txiki batzuk baino ez dira behar, obra txikiak, adibidez (erreken gaineko pasabideak, bideetan balizak jartzea, behatokiak, etab.). Obra horiek kontuz egiten dira eta paisaian txertatzen dira. Eskalada barne hartzen du, bideak irekitzea eta zabaltzea barne, baita aire-nabigazioko kirolen praktika –hala nola delta hegala edo parapentea– eta ingurune akuatikoari lotutako kirola ere.

AISIA INTENTSIBOAREN EGOKITZAPENA ETA ERABILERA

Aisiarako, turismorako, hezkuntzarako eta ingurune naturalaren interpretaziorako erabiltzea eta baliatzea, aisia- edo/eta harrera-ekipamenduei jarraikiz, hainbat motatako jolas-jardueretarako kokaleku batera egokitzea eskatzen dutenak.

Jolas-eremuen egokitzapena eta erabilera; tamaina txikiko azpiegitura iraunkorrak egon daitezke, hala nola aparkaleku txikiak, mahaiak, eserlekuak, barbakoak, iturriak, osasun-zerbitzuak, haurrentzako jolasak, paperontziak, hondakinak biltzeko puntu txikiak edo erabiltzen den zerbitzu-erakina bat.

AISIA INTENTSIBOARI LOTUTAKO ERAIKUNTZAK ETA INSTALAZIO HANDIAK

Eraikinak edo instalazio handiak eraikitzea behar duten jarduerak dira: aisia-baratzeak, hiri-baratzeak, kanpinak, golf-zelaiak, ibilgailu motordunen zirkulazioari lotutako jarduerak, bereziki egokitutako zirkuituetan zein interes orokorreko bideetan, jarduera antolatuetan edo libreetan.

EHIZA- ETA ARRANTZA-JARDUERAK

Ehiza eta arrantza egiteko arauak arlo honetan aplikatu beharreko nazioarteko, Estatuko, autonomia-erkidegoko eta foru-mailako legerietatik ondorioztatuko dira. Bereziki kontuan hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legea eta arrantza eta ehizarako aldi baliiodunei eta debekualdi bereziei buruzko urteko foru-aginduak. Erabilera honetan edozein eratako eraikuntza-garapena baztertuko da.

3.8.3. LEHEN SEKTOREKO BALIABIDEEN USTIAPENAREKIN LOTUTAKO ERABILERAK

KBAPBren ondorioetarako, honako erabilera eta jarduera hauek sartzen dira kategoria honetan:

NEKAZARITZA

Basozaintzarekin zerikusirik ez duten landare-baliabideen laborantzari (belarkien laborantza eta zurezko laboreak, baratzezaintza, lorezaintza, mintegiko laborantza, perretxikogintza eta hidroponikoak) zuzenean lotutako jarduera batzuk sartzen dira: lurra prestatzea laboreak lortzeko, kultura-lanak eta -jardunbideak barne; uztak biltzeko, aukeratzeko eta sailkatzeko lanak, gero biltegitartzeko edo kontsumitzeko moduan garraiatzeko jarriak; ura ematea eta aprobetxamendua areagotzea ureztapena dagoen kasuetan; eta nekazaritza oro har hobetzeko behar diren landa-azpiegiturako obrak.

Honako hauek nekazaritza-jarduerarekin zerikusia duten jardunak dira:

- Ura ateratzea, ureztapenerako.
- Landare-estaldura mantentzea.
- Ongarritzea.
- Fruta-arbolak landatzea, moztea eta inaustea.
- Produktu fitosanitarioen erabilera.
- Luberritzeak. Laborantza iraunkorra edo aldian behingoa.
- Drainatzeak edo lehorketa, betelanen bidez edo ura aterata, garrantzi ekologikoko zona hezea ez bada, eta ez bazaie eragiten Batasunaren intereseko habitatei eta katalogatutako espezieei.

NEKAZARITZA-USTIAPENARI LOTUTAKO ERAIKUNTZAK

Nekazaritza-ustiapenarekin lotuta dauden eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak dira:

- Nekazaritzako jarduerekin zuzeneko lotura duten eraikuntzak eta instalazioak. Nekazaritzako ekoizpenari laguntzeko egiten diren eraikuntzak eta instalazioak dira:
 - Tresnak eta produktuak kontserbatzea eta biltegiatzea.
 - Nekazaritzako produktuak lehortzea, ateratzea eta sailkatzea.
 - Pentsuen ekoizpena, frutaren eta landareen egokitzapena.
 - Ureztapen-nekazaritzarako obrak eta instalazioak, ureztatze-putzuak barne.
 - Terrazak: zapaldak eraikitzea, haiek higadura-prozesuak saihesteko edo minimizatzeko egiten badira, eta landaredi naturalak estalitako zonetan eraginik ez badute.
 - Nekazaritzako produktuak biltzeko eremuak.
 - Basozaintzako, nekazaritzako, landare apaingarrietako eta loreetako mintegiak.
- Nekazaritzako produktuen lehenbiziko transformazioan laguntzeko instalazioak eta eraikuntzak:
 - Landare-kontserben, marmeladen eta konfituren produkzioa.
 - Sagardoa egiteko dolareak eta ardoa eta txakolina egiteko upategiak.
- Nekazaritza-ustiapenarekin zerikusia duten jarduera osagarriak garatzeko eraikuntzak eta instalazioak. Jarduera osagarriak dira ustiategian nekazaritzako jarduera nagusiaren osagarri gisa egiten diren jarduerak, besteak beste:
 - Ustiategiko produktuen transformazioa eta zuzeneko salmenta.
 - Ustiategian bertan ateratako nekazaritzako produktuak dastatzea.
 - Bertako produktuen artisautzako tailerrak (saskigintza, zeramikagintza, zurgintza, ogi-labeak, etab.).
 - Nekazaritza-turismoa (turismoko ostatu-zerbitzuak nekazaritzako ustiategian).
 - Aisialdiarekin, ondo pasatzearekin eta natura eta ingurune naturala erakustearekin zerikusia duten jolas-jarduerak (landa-inguruko hipikak, ume-parkeak, animalien bertako arrazen eta landareen erakusketak, etnografiako bildumak, etab.).
 - Energia berriztagarria ekoizteko azpiegiturak, batez ere norbera hornitzeko.
- Nekazaritzako ustiategiaren erabilera lagungarriak:
 - Ustiategiari 177/2014 Dekretuko 12. artikuluan adierazitako moduan lotutako etxebizitza (177/2014 Dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez behin betiko onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala).

- Nekazaritzako jarduera bereziak:
 - Trufagintza.
 - Onddoak haztea.
 - Zizare-hazkuntza.

BEROTEGIAK

instalazio iraunkorrak, irisgarriak eta itxidurarekin, laboreak ahokatzeko edo babesteko, bertan laboreen zikloaren fase guztiak edo faseren bat garatu ahal izateko. Jarduerari lotutako eraikuntzak barne hartzen dira, nekazaritzarekin lotutako erabileretarako azaldutakoekiko baldintza baliokideetan.

ABELTZAINZA

Abeltzaintzako jarduerak dira edozein ganadu mota hazteko egiten diren jarduerak, baita larrugintzarako animaliak eta ehizarako espezieak hazteko etxaldeak ere. Lurra larreak eta bazka-laboreak lortzeko prestatzea eta artzaintzarako erabiltzea ere hemen sartzen da.

Abeltzaintza-ustiapenarekin lotutako kultura-jardunbidetzat hartuko dira bazka-laboreen, belardien eta larreen erabilerak:

- Sastrakak kentzea.
- Fitosanitarioak erabiltzea.
- Lurra goldatzea eta belardiko espezieak ereitea.
- Ongarritzea.
- Uzta jasotzea eta belarra moztea (eskuz edo makinaz).
- Siloratzea.

ABELTZAINZA-USTIAPENARI LOTUTAKO ERAIKUNTZAK

Honako hauek abeltzaintza-ustiapenarekin lotuta dauden eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak dira:

- Abeltzaintzako jarduerekin zuzeneko lotura duten eraikuntzak eta instalazioak:
 - Ukuiluak.
 - Jetzitegiak eta esnea kontserbatzeko lokalak.
 - Simaurtegiak eta pixor-putzuak.
 - Tresnak eta produktuak kontserbatzea eta biltegitratzea.
 - Pentsuen eta bazken siloak (zerealak, lekadun-aleak, pentsuak eta abereentzako bazka biltegitratzeko soilik erabiltzen diren eraikuntzak. Fabrika-obra izan daitezke, edo metalezko xaflaz egindakoak).
 - Aterpetxeak eta bordak (mendi-larreetako eraikuntza tradizionalak; artzaintza transhumantea edo lekuz aldatzeko erabiltzen dira).

- Itxiturak eta hesiak.
- Uhaskak eta horien ur-bilketak.
- Askak (ganaduak bazkatzen duen lurretan, abereak elikatzeko pentsu eta bazka osagarriak eskaintzeko soilik erabiltzen diren eraikuntzak).
- Osasun- eta erabilpen-instalazioak. Instalazio horietan parasitoen aurkako tratamenduak, txertaketak eta ganadua sailkatzeko, ugaltzeko, garraiatzeko eta abarretarako eragiketak egiten dira. Elementu hauek guztiak edo batzuk daude: ukuiluak, tratamendu-eskortak, parasitoen aurkako bainuak eta ontziralekuak.
- Abeltzaintzako produktuen lehenbiziko transformazioan laguntzeko instalazioak eta eraikuntzak:
 - Gaztagintza eta gainerako esnekiak.
 - Haragizko produktuak, hestebeteak eta eratorritako beste produktu batzuk egitea.
 - Eztia eta erlezaintzako bestelako produktuak ontziratzea.
- Abeltzaintza-ustiapenarekin zerikusia duten jarduera osagarriak garatzeko eraikuntzak eta instalazioak. Ustiategian bertan abeltzaintza-jarduera nagusia osatzeko egiten diren jarduerak dira jarduera osagarriak; besteak beste:
 - Ustiategiko produktuen transformazioa eta zuzeneko salmenta.
 - Bertako produktuen artisautzako tailerrak (saskigintza, zeramikagintza, zurgintza, labe tradizionalak, etab.).
 - Nekazaritza-turismoa (turismoko ostatu-zerbitzuak nekazaritzako ustiategian).
 - Aisialdiarekin, ondo pasatzearekin eta natura eta ingurune naturala erakustearekin zerikusia duten jolas-jarduerak (landa-inguruko hipikak, ume-parkeak, animalien bertako arrazen eta landareen erakusketak, etnografiako bildumak, etab.).
 - Energia berriztagarria ekoizteko azpiegiturak, batez ere norbera hornitzeko.
 - Pentsu-produkzioa.
 - Fruituen eta landareen egokitzapena.
- Abeltzaintza-ustiapenaren erabilera lagungarriak:
 - Ustiategiari 177/2014 Dekretuko 12. artikuluan adierazitako moduan lotutako etxebizitza (177/2014 Dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez behin betiko onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala).
- Abeltzaintzako jarduera bereziak:
 - Erlategiak.
 - Abeltzaintzako ustiategi alternatiboak.
 - Ehiza-haztegiak.
 - Arrain-haztegiak (itsasoko edo ibaietako arrainak eta itsaskiak hazteko eta/edo aurrerako hazkuntzarako instalazioak).

BASOGINTZA-ERABILERA

Baso-lurrak hobetzea edo aprobetxatzea helburu duten jarduera guztiak sartzen dira hemen, artzaintza izan ezik. Horrela, zuhaitzez edo zuhaixkez okupatuta dauden edo okupa daitezkeen lursailak hemen sartzen dira, baldin eta nekazaritzarako erabiltzeko asmorik ez badago eta hiri-lurzoruan kokatuta ez badaude. Oro har, baso-jarduerak beste batzuetatik bereizten dira eskuratutako produktu nagusia, zura, berriztagarria delako, baina baita tratatzen diren landare-espezieen txanda luzeengatik, eta jarduera horiek ingurumenean izan dezaketen eraginagatik ere: ibaian behera dauden beste lur batzuei mesede edo kalte egitea, animalien biziaren euskarri izatea, aisialdirako onurak (paseatzea, bigarren mailako produktuak biltzea, ehiza eta arrantza) eta abar. Horregatik guztiagatik, basoek hainbat babes- eta ekoizpen-funtzio betetzen dituzte.

Baso-jarduera horiek askotarikoak izan daitezke zuhaitzi baten zikloan zehar: zuhaitz-masa finkatzeko behar direnak, zuhaitzen osasun, babes, aprobetxamendu eta hobekuntzarako egiten direnak, eta zuhaitzak berriztatzekoak.

Baso-erabilera mendiei buruzko foru-arauek eta haiek garatzeko emandakoek arautuko dute.

Bizitegi-erabilera ez da baso-ustiapenaren erabilera osagarria, titulartasun publikoko basoak zaintzeko basoetan eraikitzen diren etxebizitzaren kasuan salbu.

Honako hauek baso-jarduerarekin zerikusia duten kultura-jardunak dira:

- Basoa ezartzeko fasea: baso-lurzoruan egiten diren lanak: kotatu, landu, ongarritu, zuzendu, sasiak garbitu eta landare-hondarrak kentzea, eta abar. Basoko zuhaitzetan egiten diren lanak: landaketa, ereitea, birsortzeko mozketak, aukeratutako haziak biltzea eta abar.
- Basoa kudeatzeko eta hobetzeko fasea: produktu fitosanitarioak aplikatzea, inausketak, hobetzeko mozketak, ateratze-sarearen eraikuntza, basoaren inbentarioa eta abar.
- Basoko produktuak ateratzeko fasea: mozketak, produktuen sailkapena, bide-sarerraino eramatea eta abar.

BASO-USTIAPENARI LOTUTAKO ERAIKUNTZAK

Honako hauek baso-ustiapenarekin zerikusia duten eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak dira:

- Basozaintzako jarduerekin zuzeneko lotura duten eraikuntzak eta instalazioak:
 - Tresnak, makinak eta produktuak kontserbatzea eta biltegitratzea.

- Azpiegiturak:
 - Baso-bideak eta alboetako instalazioak: mugak, ur-bideak.
 - Zura prozesatzeko eta pilatzeko biltegiak edo parkeak.
 - Suteak zaintzeko instalazioak.
 - Suaren aurkako eremuak eta zerrendak.
 - Ur guneak.
 - Itxiturak eta hesiak.
- Baso-ustiapenaren erabilera lagungarriak:
 - Baso-etxeak: baso publikoen ustiapenarekin zerikusia duten tresnak gordetzeko biltegi gisa erabili ohi diren eraikuntzak. Kasu bakan batzuetan, gune horiek zaintzeaz arduratzen diren pertsonak bertan geratzen dira.
- Baso-jarduera bereziak:
 - Perretxikoak biltzeko zonak mugarritzea.

NEKAZARITZA-INDUSTRIAK

Lehen transformazioko nekazaritza-elikagaien arloko edo basozaintzako industriak sartzen dira hemen, zenbait arrazoiengatik (funtzioa, tamaina, jatorri-izen edo zona-ekoizpen batekiko lotura, osasuna eta abar) landa-lurzoruan ezarri behar badira, eta nekazaritza-ustiapenaren erabilera lagungarritzat jotzen ez badira.

Hauek dira bildutako jarduerak:

- Lehen transformazioko nekazaritzako elikagaien industriak, ustiapenari zuzenean loturik ez daudenak.
- Lehen transformazioko basozaintzako industriak: zura zerratzea eta leuntzea, zuraren inpregnazio edo tratamendu kimikoa kontserbagarriekin edo bestelakoekin, eta abar.

ERAUZKETA-JARDUERAK

Baliabide geologikoak erauztera bideratutako jarduerak –meatzeak, harrobiak, legar-hobiak, gatzagak, dragatze bidezko ustiapenak, putzuak, etab.–, baita horiei zuzenean lotutako jarduera osagarriak ere. Zonan bertan dauden baliabide geologikoak erauzteko eta haiei lehen tratamendua emateko eraikinak eta instalazioak hartzen ditu. Ez dira sartzen baliabide geologikoen prospekzio- eta ikerketa-lanak.

3.8.4. AZPIEGITURAK

KBAPBren ondorioetarako, honako erabilera eta jardura hauek sartzen dira kategoria honetan:

GARRAIOBIDEAK

Lurraldearen egitura organikoa osatzen duen eremuko bide-sarea hartzen du barne, eta haien instalazio osagarriak. Era berean, azpiegituren kategoria honetan sartzen dira pertsonen edo salgaien garraiora bideratutako beste bide batzuk, ingurune fisikoan antzeko inpaktua dutenak.

Erabilera honen erabilera osagarritzat jotzen dira kontserbazio- eta ustiapen-eremuak, erregaia hornitzeko estazioak, aparkatzeko eta atsedean hartzeko gunek, zerbitzuguneak, sorospen-postuak, pisatzeko baskulak, abereak garraiatzen dituzten kamioiak garbitzeko eta desinfektatzeko gunek, etab. Erabilera horretarako, batez ere eraikuntzak ezartzea baztertuko da, aipatutako funtzionaltasun-baldintzak bete beharko dituztenak.

LANDA-BIDEAK ETA PISTAK

Landa-bideak dira nekazaritzako ustiategietarako sarbideak, ingurune naturalean dauden komunikazio-pistak, eraikuntzaren eta zolatzearen baldintza teknikoak eta titulartasuna denak direla, eta betiere errepide-sarean sartzen ez badira.

Erabilera-baldintzek Errepideen eta Bideen Foru Arauetan (1/2006 FA, ekainaren 6koa) edo hura ordeztzen duen arauan ezarritako irizpideak bete behar dituzte.

AIREKO LINEAK

Hemen, energia elektrikoa, telekomunikazioak eta bestelako azpiegitura batzuk banatzeko edo garraiatzeko sareen multzoa sartzen da, betiere aireko lineen bidez, isolatutako euskarriak ipiniz eta sare egokiaren funtzionamendurako beharrezkoak diren instalazio osagarri txikiak jarriz egin badira.

LURPEKO LINEAK

Energia, gasa, petrolioa eta eratorritako produktuak, ura, saneamendua, telekomunikazioak eta bestelako azpiegiturak banatzeko edo garraiatzeko sareak eta haien osagarri diren instalazioak sartzen dira, lurpetik egiten direnean.

LINEALAK EZ DIREN A MOTAKO ZERBITZU-INSTALAZIO TEKNIKOAK

Ibilgailuak estali gabe aparkatzeko azalera handiak (50 ibilgailu baino gehiago); ura tratatzeko eta edateko ur bihurtzeko plantak; urtegiak edo ur-biltegi handiak; energia elektrikoa ekoizten duten zentralak; transformazio-estazioak; gasa biltzeko edo ekoizteko zentralak; hondakin solidoak arazteko eta tratatzeko instalazioak; eta erabilera publikoa duten eta ingurune fisikoan antzeko inpaktua duten bestelako instalazioak.

LINEALAK EZ DIREN B MOTAKO ZERBITZU-INSTALAZIO TEKNIKOAK

Irratiko, telebistako eta satellite bidezko komunikazio-dorreak, antenak eta estazio igorle eta hartzaileak; itsasargiak, irrati-faroak eta antzeko inpaktua duten beste komunikazio-instalazio batzuk. Kategoria honetan sartzen dira aparkaleku txikiak (50 ibilgailu baino gutxiago), baita haize-sorgailuak eta energia berriztagarrien beste instalazio batzuk ere (hidroelektrikoa, fotovoltaikoa, geotermia eta antzekoak), horien elementuen tamaina eta/edo kopurua denak direla.

HONDAKINDEGIAK ETA HONDAKIN SOLIDOAK TRATATZEKO LEKUAK

Obra-hondakinak eta hiri- edo industria-hondakin solidoak tratatzeko lekuak, obra zibiletik datozen arroka eta lurren betetzeak (soberakinen biltegiak), hondakindegia.

3.8.5. ERAIKUNTZA-ERABILERA

KBAPBren ondorioetarako, honako erabilera eta jarduera hauek sartzen dira kategoria honetan:

LEHENDIK DAUDEN GUNEETAN OINARRITUTAKO HIRIGINTZA-HAZKUNDEAK

Lehendik zeuden hiri- edo landa-guneen handitze gisa asmatutako hirigintzako garapenak dira, horien izaera dena dela. Nolanahi ere, handitze horiek bat etorri behar dute oinarrian duten guneen egiturarekin, tipologiarekin eta tamaina egokiarekin. Erabilera horrek, zehazki, lurraldean dauden landaguneen hazkundeak jasotzen ditu.

LEHENDIK DAUDEN GUNEETAN OINARRITZEN EZ DIREN HIRIGINTZA-HAZKUNDEAK

Etxebizitza-, industria- edo zerbitzu-izaerako hirigintzako jarduketak dira; beren izaerari dagozkion ekipamendu, zuzkidura eta erabilera osagarri guztiak eduki ditzakete, alde zuzeneko dauden hiri- eta industria-guneei lotuta ez dauden eremuetan egiten dira, edo oinarri duten elementuarena baino hirigintza-aprobetxamendu handiagoa dute. Antolamendu-kategoria guztietarako debekatuta dagoen erabilera da, LPPak berariaz salbuespen gisa biltzen dituenak izan ezik.

ERABILGARRITASUN PUBLIKOKO ETA INTERES SOZIALEKO ERAIKINAK

Komunitate-ekipamendu publiko edo pribatuetarako eraikuntzak eta instalazioak: ematen dituzten zerbitzuak, beren izaera eta ezaugarriengatik, nahitaez landa-ingurunean kokatu behar dira, betiere aurrez erabilgarritasun publikoa edo interes soziala dutela adierazi bada.

Honako modalitate hauek sartzen dira hemen:

- Gune zoologikoak: Establezimendu horien jarduera nagusiak Eusko Jaurlaritzaren 1994ko azaroaren 15eko 444/1994 Dekretuari lotuta daude; dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoko gune zoologikoen baimen, erregistro eta kontrolari buruzkoa da. Erabilera hau soil-soilik kontuan hartzen da erabileraren jarduera nagusiek landa-lurretan kokatu beharra justifikatzen badute (animaliak sendatzeko zentroak, parke zoologikoak, txakurtegiak, zaldihaztegiak eta abar). Beraz, hiri-lurzoruan jar daitezkeenak (txori-dendak, animaliak saltzekoak eta abar) ez dira sartzen erabilera honetan. Abeletxe zinegetikoak eta abeltzaintzako ustiategi alternatiboak, indarreko legeriaren arabera gune zoologikoak izan arren, abeltzaintza-erabileran sartzen dira.
- Kirol-ekipamenduak. Kirol-jarduna hartzen dute barne, haren modalitate guztietan, baita haien irakaskuntza ere, horretarako berariaz prestatutako eraikinetan eta gune libreetan.
- Ekipamendu soziokulturalak. Kultura sustatzeko edo artea sortzeko jardueretarako ekipamenduak sartzen dira hemen (museoak, interpretazio-zentroak, bisitariak hartzeko guneak, informazioa ematekoak eta abar).
- Jolas-ekipamenduak. Jolas-parkeak eta jolaserako helburua duten bestelako eraikuntzak (aterpetxeak eta abar) sartzen dira hemen.
- Hirugarren sektoreko erabilerak. Ostalaritza, turismo-ostatuak eta aterpetxeak hartzen ditu barne. Hirugarren sektoreko erabilerak aplikagarria den araudi sektorialaren arabera ezarriko dira.

- Osasun-ekipamenduak. Gaixoak ospitaleetan, bainuetxeetan eta antzekoetan tratatzea eta ostatu ematea.
- Erljio-ekipamenduak. Erljioa irakasteko edo gurtzeko jarduerak. Elizetan, ermitetan eta abarretan egiten dira.
- Zerbitzu publikoetako ekipamendua. Aurreko modalitateetan jaso gabeko herritar guztien zerbitzurako erabilerak sartzen dira hemen; administrazio publikoko erakundeek ematen dituzte eta, dauzkaten ezaugarri funtzionalen ondorioz, desagokiak izan daitezke beste erabilera batzuetarako lehenesten diren zonetan ezartzeko.
- Aisialdiko baratzeak. Hemen hiriguneen kanpoaldean egon ohi diren baratze-multzoak sartzen dira. Lursail txikietan banatuta egon ohi dira, eta azpiegitura batzuk partekatzen dituzte guztien artean. Baratze-multzo hauek hirietako bizilagunen aisialdirako erabili ohi dira. Haien kudeaketa eta jabetza publikoa edo pribatua izan daitezke.

ETXEBIZITZA ISOLATUA LURZORU URBANIZAEZINEAN

Oin berriko etxebizitza isolatuaren eraikuntza lurzoru urbanizaezinean, nekazaritza-ustiapenari lotu gabekoa. Kategoria guztietarako debekatuta dagoen erabilera da.

INDUSTRIA ETA BILTEGIRATZE ARRISKUTSUAK

Izaeragatik, ezaugarriengatik edo manipulaturako materialengatik arrisku larriak sor ditzaketen eta, horregatik, hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurretan ezin ezar daitezkeen substantzien eta ekoizpen-prozesuen biltegiratze eta garapena.

3.9.- ERABILEREN ERREGULAZIOA, ZONAKATZEAREN ARABERA

3.9.1. ERABILERAK ANTOLATZEKO MATRIZEA

Karakateko Parkearen antolamenduaren azken fasea da. Bertan, honako hau izan da erabilera eta jarduera potentzialak zehazteko jarraitu den irizpidea: zenbat eta balorazio potentzial handiagoa eta kontserbazio-egoera hobea, orduan eta antolamendu-kategoriaren harrera-ahalmen txikiagoa lurraldearen bokazio naturalarekin bat ez datozen erabilera eta jardueretarako, eta alderantziz.

Beraz, sarrera bikoitzeko matrize honen bidez, KBAPBren eremuaren (ilara eta antolamendu-kategoriaka) eta bertan gara daitezkeen erabilera eta jarduera potentzialen (zutabeka eta jarduera-sektoreka) arteko lotura ezartzen da.

Harrera-ahalmenaren matrizea kudeaketa-tresna indartsua da; izan ere, haren bidez inguruneak erabilera edo jarduera jakin baterako dituen mugak eta bokazioa zehaztu daitezke.

Matrizean islatutako harrera-ahalmena zehaztu egin behar da baldintzatzaille gainjarriak kontuan hartuta; izan ere, baldintzatzaille horiek are gehiago mugatzen dituzte erabilera edo jarduera jakin batzuk. Zalantzarik gabe, antolamenduko ingurumen-unitate bati hainbat baldintzatzaille gainjarri ezarrita debekatu egin daiteke erabilera edo jarduera jakin bat garatzeko aukera.

Matrizeak irudikatzen duen araubidean antolamendu-kategoriak eta baldintzatzaille gainjarriak erabilera batzuekin eta besteekin gurutzatzen dira eta horiek arautzeko kode bat ezartzen da:

- 1: Erabilera egokia edo bokaziozkoa.
- 2: Erabilera onargarria.
- 3: Erabilera debekatua.

Horrela, hainbat erabilera eta jarduera egoki, onargarri eta debekatu karakterizatzen dira, betiere «per se» erabilera bereiziz, eta dagokion antolamendu-kategoriaren gainean garatzea komeni dela adieraziz.

- **Erabilera eta jarduera egokiak edo bokaziozkoak**


Antolamendu-kategoriaren bokazioarekin bat datozen erabilerak eta jarduerak dira. Eta jakina, erabilera horiek sustatzea eta horretarako beharrezkotzat jotzen diren neurriak ezartzea da dokumentu honen filosofia.

- **Erabilera eta jarduera onargarriak**

Bokaziozkoak ez izan arren, antolamendu-kategoria batzuetan baimendu daitezkeen erabilera eta/edo jarduerak dira; horiek ingurumen-kontrolak bete beharko dituzte, hala nola Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa, bere araudiaren bidez arautzen dena. Jarduera edo erabilera egokiak ez izan arren, ingurumenarekiko bateragarritasun aldakorra dute.

- **Erabilera eta jarduera debekatuak**

Antolamendu-kategoriaren izaerarekin bateraezinak diren erabilerak dira, Karakateko Landa Parkearen barruan. Erabilera horiek gertatuz gero, inpaktu jasanezinak eragingo lirarteke ekologia-, kultura-, ekoizpen- eta paisaia-balioetan, edo nahi ez diren prozesuak sustatuko lirarteke.

KARAKATEKO LANDA-PARKEKO ERABILERAK ANTOLATZEKO MATRIZEA	ANTOLAMENDU-KATEGORIAK									BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK		
	BABES BEREZIKO ZONAK		BASO-MENDIA		INGURUMEN-HOBEKUNTZA		LUR GAINEKO UREN BABESA	ERABILERA PUBLIKOKO ZONAK ETA AZPIEGITURAK		ARRISKU GEOLOGIKOAK	KLIMA-ALDAKETAREKIN LOTUTAKOAK	KORRIDORE EKOLOGIKOAK ETA NATURA-INTERESEKO BESTE EREMU BATZUK
	Ekologikoa	Zientifiko-kulturala	Babeslea	Natura-intereseko eremuan dauden mendietako eremuak	Ebolutiboa	Lehenertzeko esku hartu behar direnak		Telekomunikazio-zentroaren ingurua	Bideak eta bidezidorrak			
Egokiak 1												
Onargarriak 2												
Debekatuak 3												
Desegokia -												
INGURUMENAREN BABESA												
Kontserbazioa	1	1	2	2	2	2	1	-	2	2	2	1
Ingurumen-hobekuntza	1	1	1	1	1	1	1	2	2	1	1	1
Jarduera zientifiko-kulturalak	1	1	2	2	2	2	1	-	2	2	2	1
AISIA ETA JOLASA												
Aisia estentsiboa	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Aisia intentsiboko eremuen egokitzapena eta erabilera	3	3	3	3	3	3	-	2	3	3	3	3
Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
Ehiza- eta arrantza-jarduerak	2	3	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
LEHEN SEKTOREKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDUA												
Nekazaritza-jardunbideak	3	3	3	3	3	3	3	-	-	3	3	3
Nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak	3	3	3	3	3	3	3	-	-	3	3	3
Berotegiak	3	3	3	3	3	3	3	-	-	3	3	3
Abeltzaintza-jardunbideak	2	2	2	2	2	2	2	-	2	2	2	2
Abeltzaintza-ustiapenari lotutako eraikuntzak	3	3	3	3	3	3	3	-	-	3	3	3
Baso-jardunbideak	2	3	1	1	2	2	2	-	-	1	2	2
Baso-ustiapenari lotutako eraikuntzak	3	3	3	3	3	3	3	-	-	3	3	3
Nekazaritza-industriak	3	3	3	3	3	3	3	-	-	3	3	3
Erauzketa-jarduerak	3	3	3	3	3	3	3	-	-	3	3	3
AZPIEGITURAK												
Garraiobideak	3	3	3	3	3	3	3	2	3	3	2	2
Landa-bideak eta pistak	3	3	2	2	2	2	2	2	1	2	2	2
Aireko lineak	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
Lurpeko lineak	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
A motako zerbitzuko instalazio teknikoak	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
B motako zerbitzuko instalazio teknikoak	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekuak	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
ERAIKUNTZA-ERABILERAK												
Lehendik dauden guneeetan oinarritutako hirigintza-hazkundeak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Lehendik dauden guneeetan oinarritu gabeko hirigintza-hazkundeak	3	3	3	3	3	3	3	3	-	3	3	3
Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak	3	3	3	3	3	3	3	3	-	3	3	3
Ustiapenari lotutako etxebizitza isolatua	3	3	3	3	3	3	3	3	-	3	3	3
Ustiapenari lotu gabeko etxebizitza isolatua	3	3	3	3	3	3	3	3	-	3	3	3
Instalazio arriskutsuak	3	3	3	3	3	3	3	3	-	3	3	3

3.10.- PROPOSAMENAK ETA JARDUKETAK

3.10.1. JARDUKETAREN DESKRIBAPENA

Karakateko Landa Parkearen Plan Bereziak (KBAPB) eremua babestea eta antolatzea planteatzen du **jarduketa-proposamen bakartzat**, baita lurraldearen harrera-ahalmena zehaztea ere, bertan dauden eta egon daitezkeen erabilerak eta jarduerak arautzeko helburuarekin, eta betiere Elgoibarren indarrean dagoen HAPOn agindutakoa ahaztu gabe.

Planaren eremurako proposatutako antolamendu berria zehatz-mehatz azaldu da Justifikazio Memoria honen «3.6. Antolamendu-kategoriak» kapituluan. Bestalde, 3.7. kapituluan, antolamenduaren «Baldintzatzaille gainjarriak» zehazten dira; horiek Plan Bereziaren eremuko erabilerak eta jarduerak baldintza ditzakete.

Horregatik guztiagatik, jarduketa honen deskribapena eta ezaugarriak aipatutako kapituluetan adierazitakora lotuta daude.

Bestalde, eta aurreko kapituluetan adierazi den moduan, proposamena bat dator Debabarreneko Lurralde Plan Partzialean ezarritako irizpideekin. Plan Bereziaren eremu gehiena «Natura-intereseko eremuaren» kategorian sartzen da, eta bertan eskualdeko ekologia-, paisaia- eta kultura-balioak sustatzen dira.

3.10.2. ALTERNATIBEN AZTERKETA

Aztertu daitezkeen alternatiba bakarra 0 da, EZ ANTOLATZEKOA.

«0» alternatibarekin gaur egungo egoerarekin jarraituko litzateke, Karakateko Landa Parkearen babes eraginkorra bermatuko lukeen antolamendu zehatzik garatu gabe.

Bestalde, ez esku hartzeak eremuaren antolamendu xehatu horren beharra saihesten du, Elgoibarren indarrean dagoen HAPOn jasotzen den bezala.

Gainera, alternatiba horrek zenbait ondorio negatibo eragin ditzake lurraldean, ekosistemak kontserbatzearen eta babestearen ikuspegitik, nahiz ondare- eta kultura-elementuei balioa ematearen, paisaien irisgarritasunaren eta erabilerak publikoko ingurune bat sortzeko aukeraren ikuspegitik, lurraldeari onura sozial eta ekonomikoa emanez.

Horrenbestez, ondorioztatu da «EZ ESKU HARTZEAREN» 0 ALTERNATIBA ez dela bideragarria udal-plangintzan bertan planteatutako helburuak lortzeko.

Goi-mailako plangintzaren zehaztapenak eta Karakateko Landa Parkean dauden ekosistema eta balio zientifiko-kulturalak direla eta, eremuaren antolamendu-kategoriak hautatu behar dira, eta erabilerak eta jarduerak arautu behar dira, horixe baita alternatiba bideragarri bakarra.

3.11.- AUKERATUTAKO PLANGINTZA-TRESNAREN JUSTIFIKAZIOA

Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (2013ko martxoaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 44. zk.) lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen da Plan Berezi honi dagokion eremua.

Honako hau dio 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak:

«Plan bereziek bi esparru-mota har ditzakete antolamendua egiteko: batetik, udalerr osoa edo udalerrriaren zati bat, lurzoru-mota bat edo gehiago hartuta, eta bestetik, plangintza orokorrak definitutako edo plan bereziak berak bere xedearekin bat etorriz zehaztutako esparru edo area jakin bat.

Plan berezien antolamendua, hain zuzen, planon xederako beharrezko diren zehaztapenen bidez egiten da, betiere dena delako plan orokorrak, hala badagokio, ezarritakoa betez.»

Bestalde, honako hau zehazten du lege-xedapen horren 72. artikulua:

«1. Babes- eta zaintza-plan berezien xedea da plan orokorretan jasota dagoen antolamendua osatzea, planen zehaztapenek xede dituzten elementu naturalak edota artifizialak babesteko arauen bidez. Beharrezkoa bada, plan orokorrean jaso gabeko beste babes-arau osagarriak ere zehaztu dezake plan bereziak.

2. Plan bereziak babestu eta zaindu beharreko guneak eta gauzak hauek izan daitezke: itsasertza, paisaia, hiriguneak edo landaguneak, eraikizunak, instalazioak, baratzeak, ereintzak, basoak eta ibaietako ekosistemak, eta orobat beste elementu natural edo artifizial oro ere.

3. Babes- eta zaintza-plan bereziak, orobat, halakotzat kalifikatutako eta sailkatutako ondasun kulturalen babes-araubidea ere jasoko du –bakoitzaren hasierako eta deklarazioko espedienteen arabera–, eta babes-araubide hori beren helburuen arabera garatu ahal izango du.

4.- Babes- eta zaintza-plan bereziek osagai hauek izango dituzte: antolamendu xehatuari dagozkion zehaztapenak, erdietsi behar dituzten helburuen arabera agiriak, eta, gutxienez, plan partzialek eduki beharreko agiriak; eta, horiez gainera, urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruari osotasunean edo zati batean eragiten baldin badie planak, ingurumen-eragina ebaluatzeko arategiak agindutako agiriak».

Lurzoruaren euskal Legearen 53.4 artikulua egiturazko hirigintza-antolamenduaren zehaztapenak arautzen ditu lurzoru urbanizaezinean. Guri dagokigun kasuan, lurzoruaren kalifikazioa nabarmendu behar da, lurralde-antolamendurako tresnetan aurreikusitako kategoriak barne hartuta, baita erabilerak kategorien arabera arautzea ere.

«Justifikazio Memoria» honetan justifikatu den moduan, Plan Bereziaren eremuko lurzoruaren –Karakateko landa Parkea– kategoria egokitzea proposatzen du KBAPBk, HAPOk berak agindu bezala.

Horrenbestez, Plan Bereziaren dokumentu hau idatzi da, eremua bere hauskortasunaren arabera antolatzeko eta babesteko, eta HAPO onartu zenetik igaro diren ia 10 urteetan geureganatutako ezagutza tekniko eta zientifikoa txertatzeko helburuarekin.

Plan Berezi hau behin betiko onartu arte, plangintza orokorrean ezartzen diren zonakatzeko-kategoriak eta erabileren esleipena aplikatuko dira, indarrean dagoen HAPON zehazten den moduan.



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO



4

Araudia



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

4.1.- Lehen titulua: XEDAPEN OROKORRAK

4.1.1. LEHEN KAPITULUA. PLAN BEREZIAREN IZAERA ETA IRISMENA

1. artikulua.- Planaren izaera

1.- Karakateko Landa Parkea Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia (aurrerantzean, KBAPB) Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) garapen gisa formulatu da, Hirigintza Arau Orokorren 12., 13. eta 23. artikuluei jarraikiz.

2.- Plan Berezia indarrean dagoen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean oinarrituz idatzi da.

2. artikulua.- Xedea

1.- Plan Berezi honen xedea da Plan Berezian mugatuta dauden lurraldeko naturaguneak, paisaia, ingurune fisikoa eta landa-ingurunea babestu, kontserbatu, katalogatu eta hobetzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzea. Neurri horiek Plana indarrean jartzen den unetik aurrera arautuko dira eremuaren hedadura osoan.

2.- Ondorio horietarako, Planaren babes-helburua honako elementu hauetara hedatzen dela ulertuko da:

- a. Ekologia-, paisaia- edo kultura-intereseko naturaguneak.
- b. Ur-ibilguak eta ur-masak (bazterrak eta ibaiertzak barne), eta lurpeko akuiferoak eta horien karga-eremuak.
- c. Oreka ekologikoa mantentzen laguntzen duten flora, fauna eta natura-inguruneko beste elementu batzuk.
- d. Paisaia nabarmentzen eta paisaia zabaltzen eta ikasten laguntzen duten elementu geologikoak eta/edo geomorfologikoak.
- e. Plan Bereziak antolatutako eremuan dauden aztarnategi arkeologikoak eta kultura-ondasunak.
- f. Baso-lurzorua eta ingurumena leheneratzeko edo hobetzeko lurzorua.
- g. Oro har, lurzoria erabiltzeko mugak ezarriz babes daitezkeen ingurumen- eta kultura-balio guztiak.

3.- Aplikagarriak dira araudi honetan jasotako xedapenak, baita Plan Bereziari eragiten dioten HAPOko xedapenak ere, bereziki antolamendu-kategorien erabilerak arautzen dituztenak: B1 «Hirigintzako arau orokorrak» dokumentuko bigarren tituluko (Lurzoruaren egiturazko hirigintza-kalifikazioaren araubidea) 12. eta 13. artikulua, lurzoru urbanizaezinean ezar daitezkeen erabilerak zehazten dituztenak; eta 23. artikuluko 3. puntuko «C. NEKAZARITZAKO INGURUAK» apartatua, lurzoru urbanizaezinen erabilera-erregimena ezartzen duena, lurzoru urbanizaezinen antolamendurako matrizearen bidez.

3. artikulua.- Aplikazio-eremua

Indarrean sartzen denetik, Plan Berezia hark zehaztutako eremuan aplikatuko da, hau da, 5. planoan («Karakateko Landa Parkearen Eremua») kartografiatutako eremuan.

4. artikulua.- Indarrean jartzea eta indarraldiaren baldintzak

1.- KBAPB behin betiko onespeneraren erabakia argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da haren zehaztapenak erabat edo zati batean aldatu arte (legez ezarritako betekizunekin), edo erabat indargabetu arte, hala ezartzen duen goragoko mailako plangintza-tresna bat onartzen denean.

2.- KBAPB dokumentuko zehaztapenen bat baliogabetzeak, deuseztatzeak edo aldatzeak ez du eraginik izango gainerako baliokotasunean, salbu eta horietakoren bat aplikazina bada, harreman- edo mendekotasun-arrazoiengatik.

5. artikulua.- Ondorioak

1.- Plan honetako xedapenak lotesleak izango dira Administrazioarentzat eta partikularrentzat.

2.- Goragoko mailako hierarkia-planek ezarritako jarduketek ingurumenean eragin negatiboa badute edo Plan Bereziaren helburuak lortzea oztopatzen badute, jarduketa hori sustatzen duen erakundeak beharrezko neurriak hartu beharko ditu eremua bere kategoriaren berezko ezaugarrietara leheneratzeko.

3.- Udal-mailako planetako zehaztapenak bata bestearekin bat ez badatoz, ingurumen-jasangarritasunaren ikuspegitik kontserbazionistagoak direnak nagusituko dira.

4.- Plan honetako zehaztapenak behar bezala bete beharko dira, antolatutako eremuan aplikatzekoak diren legeria sektorialetan jasotakoei kalterik egin gabe. Plan honetan jasotako araudia zehatzagoa edo babesleagoa bada, hau aplikatuko da legeria sektorialean jasotakoaren aurretik, betiere haren xedearekin bat badator.

4.1.2. BIGARREN KAPITULUA. PLAN BEREZIAREN APLIKAZIO-ARAUAK

6. artikulua.- KBAPB osatzen duten dokumentuak eta horien arau-irismena

1.- Honako dokumentu hauek osatzen dute Plan Berezia:

- 1. dokumentua: KONTZEPTU OROKORRAK
- 2. dokumentua: INFORMAZIO MEMORIA
- 3. dokumentua: JUSTIFIKAZIO MEMORIA
- 4. dokumentua: ARAUDIA
- 5. dokumentua: ANTOLAMENDURAKO ETA KUDEAKETARAKO GIDALERROAK
- 6. dokumentua: PLANAREN BIDERAGARRITASUNA
- 7. dokumentua: HERRITARREN PARTE-HARTZEA
- 8. dokumentua: HIZKUNTZA-INPAKTUARI BURUZKO TXOSTENA
- 9. dokumentua: GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKO TXOSTENA
- 10. dokumentua: PLANOAK
- 11. dokumentua: INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKO SINPLIFIKATUA

7. artikulua.- KBAPB interpretatzea

1.- Plan Berezi honen edukiak interpretatzeko bere osotasunean hartu behar da dokumentua. Dokumentazio idatziaren eta grafikoaren artean interpretazio kontrajarriak gertatuz gero, lehenengoari emango zaio lehentasuna, eta babes-arauen eta antolamendu-matrizearen artean kontraesanak badaude, babes-maila handiena duen interpretazioa gailenduko da.

2.- Dokumentazio idatziaren eta grafikoaren artean desadostasunak edo kontraesanak badaude, testu idatzian aurreikusitakoa gailenduko da.

3.- KBAPB interpretatzean sor daitezkeen zalantzak Elgoibarko Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Sailek ebaziko dituzte.

4.- Hirigintzako arau hauetan jasotzen ez diren ordena orokorreko kasuetan, Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari dagozkion ordenantzak aplikatuko dira.

5.- Plan Berezi honen arautze-edukia hura osatzen duten dokumentu guztiek definitzen badute ere, Antolamendu Planoek, Hirigintzako Arau hauek eta Antolamendurako eta Kudeaketarako Gidalerroek betetzen dute hirigintza-jarduera arautzeko funtzio espezifikoa. Beraz, jarduera hori nahitaez egokitu beharko da zehaztaper horietara.

6.- Gainerako dokumentuek informazio- edo azalpen-izaera dute, eta, beraz, horien edukia ez badator bat lehen aipatutakoekin, haiek gailenduko dira.

7.- Era berean, eskala desberdinetako planoen artean hirigintza-zehaztapen zehatz baten definizioan kontraesanak egonez gero, eskala zehatzagoan gauzatutako planoetan ezarritakoa gailenduko da.

8. artikulua.- Plan Bereziaren zehaztapenen lotura

1.- Plan Bereziaren zehaztapenak indarrean egongo dira horiek berrikusi edo aldatu arte, betiere hura onestea eragin duten inguruabarren edo irizpideen funtsezko aldaketak hori justifikatzen badu.

2.- Planaren zehaztapenak edozein unetan berrikusi edo aldatu ahal izango dira, plana onartzeko jarraitu diren izapide berberei jarraituz.

9. artikulua.- Plan Berezia gainbegiratzea

Bost urtez behin, Plan Bereziaren aplikazioa betetzen dela ikuskatu eta balioetsiko da, dagokion txostena eginda. Txosten horrek Plan Berezian sartu beharreko egokitzapenak edo aldaketak jasoko ditu, unean uneko egoeretara egokitzeko.

4.1.3. HIRUGARREN KAPITULUA. PLAN BEREZIAREN KUDEAKETA

10. artikulua.- Ingurumen Dokumentu Estrategikoaren neurriak

1.- Ustiapen- eta leheneratze-proiektuek Ingurumen Dokumentu Estrategikoaren babes-neurri guztiak eta ingurumena zaintzeko programa barne hartu behar dituzte.

2.- Aipatutako proiektuei erantsi beharreko babes- eta zuzenketa-neurri guztiak eta ingurumen-kontrolak behar besteko xehetasunez egin behar dute, horien eraginkortasuna bermatzeko. Aurrekontuan sar daitezkeen neurriak obra-unitate gisa sartu beharko dira, proiektuetan dagokien partida ekonomikoarekin. Aurrekontuan sartu ezin daitezkeen neurriak baldintza teknikoaren agirian sartuko dira.

4.2.- Bigarren titulua: ERABILERAK ETA JARDUERAK ARAUTZEKO ARAU OROKORRAK

4.2.1. LEHEN KAPITULUA. LURZORUAREN ERABILEREN, JARDUEREN ETA ANTOLAMENDU-KATEGORIEN DEFINIZIOA

11. artikulua.- Erabileren eta jardueren definizioa

Dokumentu honen Justifikazio Memoriaren 3.8 puntuan jaso eta deskribatu diren moduan, honako talde eta azpitalde hauetan banatzen dira lurzoruen erabilera potentzialak:

- Ingurumenaren babesa
 - Kontserbazioa
 - Ingurumen-hobekuntza
 - Jarduera zientifiko-kulturalak
- Aisia eta jolasa
 - Aisia estentsiboa
 - Aisia intentsiboaren egokitzapena eta erabilera
 - Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak
 - Ehiza- eta arrantza-jarduerak

- Lehen sektoreko baliabideen aprobetxamendua
 - Nekazaritza-jardunbidea
 - Nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
 - Berotegiak
 - Abeltzaintza-jardunbideak
 - Abeltzaintza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
 - Baso-jardunbideak
 - Baso-ustiapenari lotutako eraikuntzak
 - Nekazaritza-industriak
 - Erauzketa-jarduerak
- Azpiegiturak
 - Garraiobideak
 - Landa-bideak eta pistak
 - Aireko lineak
 - Lurpeko lineak
 - A motako zerbitzuko instalazio teknikoak
 - B motako zerbitzuko instalazio teknikoak
 - Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekua
- Eraikuntza-erabilerak
 - Lehendik dauden gunetan oinarritutako eraikuntza-hazkundeak
 - Lehendik dauden gunetan oinarritzen ez diren eraikuntza-hazkundeak
 - Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak
 - Ustiapenari lotutako etxebizitza isolatua
 - Ustiapenari lotu gabeko etxebizitza isolatua
 - Instalazio arriskutsuak

12. artikulua.- Erregulazio-mekanismoak

1.- Egokiak edo bokaziozkoak diren erabilera eta/edo jardueratzat jotzen dira antolamendu-kategoriaren bokazioarekin bat datozenak. Horietan, erabilera eta/edo jarduera horiek sustatzea eta horretarako beharrezkotzat jotzen diren neurriak ezartzea da KBAPBren irizpidea.

2.- Erabilera eta/edo jarduera onargarritzat jotzen dira, bokaziozkoak ez izan arren, antolamendu-kategoria batzuetan baimendu daitezkeenak; horiek ingurumen-kontrolak bete beharko dituzte, hala nola Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa, bere araudiaren bidez arautzen dena. Jarduera edo erabilera egokiak ez izan arren, ingurumenarekiko bateragarritasun aldakorra dute.

3.- Debekatutako erabilera eta/edo jardueratzat jotzen dira antolamendu-kategoriaren izaerarekin bateraezinak direnak, Karakateko Landa Parkearen barruan. Erabilera horiek gertatuz gero, inpaktu jasanezinak eragingo liriateke ekologia-, kultura-, ekoizpen- eta paisaia-balioetan, edo nahi ez diren prozesuak sustatuko liriateke. Debekatutako erabileratzat jotzen dira erabilera egokien eta onargarrien artean ez dauden erabilera

guztiak, berariaz adierazten diren edo ez kontuan hartu gabe; izan ere, modu negatiboan eragingo liekete inguruko ingurumen-ezaugarriei, eta ez litzateke beteko lortu nahi den helburua.

13. artikulua.- Antolamendu-kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak

1.- Arau-ondorioetarako, «Antolamendu-kategoriak eta -azpikategoriak» izango dira dokumentu honetako Justifikazio Memoriaren 3.6 puntuan jasotzen eta deskribatzen direnak. Honako hauek dira:

- Babes bereziko zonak
 - Ekologikoa
 - Zientifiko-kulturala eta paisaia babestekoa
- Baso-mendia
 - Baso-mendi babeslea
 - Natura-intereseko eremuan dauden baso-mendietako eremuak
- Ingurumen-hobekuntza
 - Ebolutiboa
 - Leheneratzeko esku hartu behar dena
- Lur gaineko uren babesa
- Erabilera publikoko zonak eta azpiegiturak
 - Telekomunikazio-azpiegituraren ingurunea
 - Bideak eta bidezidorrak

2.- Arau-ondorioetarako, «Antolamenduari gainjarritako baldintzatzaileak» izango dira dokumentu honetako Justifikazio Memoriaren 3.7 puntuan jasotzen eta deskribatzen direnak. Honako hauek dira:

ARRISKU NATURELEI ETA KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK

- **Arrisku geofisikoak:**
 - % 30etik gorako maldak dituzten eremuak
 - Irristatzeko arrisku handia duten guneak
- **Klima-aldaketarekin lotutako arriskuak:**
 - Ibilguak eta ur-bilketak babesteko eremuak
 - Interes hidrogeologikoko eremuak
 - Su-arriskua duten eremuak
 - Energia berriztagarriekiko sentikorrek diren guneak (eolikoa eta fotovoltaikoa)

AZPIEGITURA BERDEAREN BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK

- **Espezie babestuen banaketa-eremuak eta Batasunaren intereseko habitatak**
 - Kudeaketa-plana onartuta duen fauna mehatxatuarentzako intereseko eremuak (biso europarra)
 - Batasunaren intereseko habitatak
 - Hegazti-fauna babesteko eremuak (linea elektrikoak)
- **Korridore ekologikoak**

14. artikulua.- Antolamendu-kategoriari eta baldintzatzaile gainjarriari erabilerak esleitzeko matrizea

1.- Arau-ondorioetarako, antolamendu-kategoria bakoitzean erabilerak eta jarduerak arautzeko, eta baldintzatzaile gainjarriak zehazteko, sarrera bikoitzeko matrizea ezartzen da (bertan, ilaran islatzen dira erabilerak eta jarduerak, gaur egungoak nahiz potentzialak, eta zutabeetan, berriz, antolamendu-kategoriak eta -azpikategoriak eta baldintzatzaileak). Dokumentu honen Justifikazio Memoriaren 3.9.1 puntuan dago jasota.

2.- Aipatutako matrizean erabilera egokiak, onargarriak eta debekatuta daudenak jasotzen dira, eta 1., 2. eta 3. zenbakiak esleitzen dira, hurrenez hurren. Erabilera bat bidegabea bada, (-) ikurra erabiltzen da.

4.2.2. BIGARREN KAPITULUA. ERABILEREN ERREGULAZIO OROKORRA

15. artikulua.- Erabilera eta jardueren debeku orokorra

1.- Antolatutako eremu osoan debekatuta daude honako erabilera eta jarduerak hauek:

- a) Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak. Ibilgailu motordunek lehendik dauden azpiegituren zaintza-, larrialdi- eta mantentze-zerbitzuetarako bakarrik sartu ahal izango dute antolatutako eremuan, baita baso-ustiapenentarako ere.
- b) Nekazaritza-jardunbideak, nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak eta berotegiak.
- c) Abeltzaintza-jardunbideari lotutako eraikuntzak.
- d) Baso-jardunbideari lotutako eraikuntzak.
- e) Edozein industria-jarduera ezartzea, nekazaritzako industria-jarduerak barne.
- f) Meatzaritzako jarduerak (minerala erauztea, aire zabalean nahiz lurpean). Antolatutako eremutik kanpo eta handik gertu egiten diren mota horretako

jarduerak ezin izango dituzte gainditu antolatutako eremuaren mugak, eta ezin izango dute lurzorua okupazio iraunkorra edo aldi baterakoa egin jarduera horretatik eratorritako materialak biltzeko edo instalatzeko.

g) Garraiobideak.

h) Bide eta pista berriak irekitzea.

i) Aireko linea berriak.

j) Lurpeko linea berriak.

k) A motako zerbitzuko instalazio tekniko berriak.

l) B motako zerbitzuko instalazio tekniko berriak. Erabilera eta jarduera guztiak daude debekatuta, Karakateko gaur egungo telekomunikazio-zentroa eta haren inguruko aparkalekua salbu, betiere bakoitzaren neurriak eta egungo kokalekuak mantentzen badira.

m) Hondakindegia eta edozein motatako hondakinak uzteko lekua, baso-jardunbideetatik eratorritakoak izan ezik.

n) Lehendik dauden gunetan oinarritutako eta oinarritu gabeko hazkunderen eraikuntza-erabilerak.

o) Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak.

p) Bizitegi-erabilera isolatuak, ustiapenari lotutakoak edo lotu gabeak.

q) Instalazio arriskutsuak.

r) Ibaiertzeko landaredia kentzea.

s) Espezie autoktonoetako zuhaitzak eta zuhaixkak kentzea.

t) Flora- eta fauna-espezie aloktonoak sartzea.

2.- Plan Bereziaren eremu osoan, debekatuta daude berriaz aldeko edo onartutako erabilera gisa ezartzen ez diren erabilera guztiak.

16. artikulua.- Natura-baliabideak babestea

1.- Debekatuta dago eremuko baliabide geologiko-geomorfologikoak aldatzen dituen edo/eta horien balioa galarazten duen erabilera edo jarduera oro.

2.- Debekatuta dago lur gaineko eta lurpeko uren emaria eta kalitatea nahiz ingurunea alda dezakeen erabilera edo jarduera oro.

3.- Antolatutako eremuaren barruan dauden iturriak eta iturburuak babestu beharreko intereseko elementutzat jotzen dira.

4.- Lurzorua galera eragiten duten ekintza guztiak saihestuko dira. Urak edo beste edozein arrazoik eragindako higadura eteteko lurzoruak leheneratzeko, galdutakoen jatorri bereko materialak erabiliko dira, eta horien egokitasuna justifikatzen duen txostena egin beharko da.

5.- Landaredi autoktonoa babestuko da, landare-komunitate bereizgarriak leheneratzeko, berreskuratzeko eta mantentzeko jarduerak eta proiektuak sustatuz.

Horretarako, inguruko landare-ekaia (ahal denean) edo beste espezie autoktono batzuk erabiliko dira, baina ez espezie aloktonoak.

6.- Produktu fitosanitarioak eta zoosanitarioak erabiltzeko, aurrez egokitasun-txosten bat egin beharko da, horien erabilera justifikatzeko. Txosten horretan, jarduketa-guneak eta epeak zehaztuko dira, eta txostena mendien udal-zerbitzuak onartu beharko du.

7.- Oro har, debekatuta daude fauna basatiari kalte egin diezaioketen jarduerak, hala nola habiak eta gordelekuak suntsitzea –larbak, kumeak, arrautzak eta animalia helduak harrapatu eta manipulatzeko barne–, eta horien eskakizun biologikoak eragozteko, bereziki ugalketari dagokionez.

8.- Plan Bereziaren eremu osoan debekatuta dago hondakinak erretzea.

9.- Hezkuntza-helburuetarako eta antolatutako eremua kudeatzeko bakarrik instalatu ahal izango dira norabidea adierazteko eta informazio edo interpretaziorako seinaleztapen-elementuak.

10.- Landa-parkearen eremuan instalatutako seinaleek berdintasunezkoak izan beharko dute, edozein irudi estereotipatu edo sexista ezabatzeko. Gainera, egoera onean mantendu beharko dira euren funtzioa bete dezaten, eta konpondu, birjarri edo ordeztu egin beharko dira edukia hondatzen, desagertzen edo eguneratzen bada.

11.- Seinaleztapen-elementuak inguruarekin bat datozen materialekin egingo dira, ingurunean erraz integra daitezten.

12.- Ezabatu egingo dira paisaian sartu eta erabiltzen ez diren elementuak, hala nola dorre elektrikoak, antenak (Karakateko Telekomunikazio Zentroa izan ezik), egitura metalikoak edo fabrikakoak, edo paisaia eraldatzen duten bestelako elementuak, horien izaera dena dela. Era berean, elementu itsusgarritzat hartuko dira legez kanpoko txabolak eta baratzeak.

17. artikulua.- Ondarea babestea

1.- Interes arkeologiko, historiko-artistiko, etnologiko edo paleontologikoa duten leku guztiak babestutako elementutzat joko dira, horien osotasuna eta kontserbazioa bermatzeko.

2.- Gune horietan egin beharreko jarduera guztiak fakultatibo eskudun batek sinatutako programa edo proiektu baten babesa izan beharko dute, eta eskumena duen administrazioaren baimena izan beharko dute.

18. artikulua.- Irisgarritasuna

1.- Garraio jasagarria erraztu eta bultzatuko da, eta Karakateko Telekomunikazio Zentroaren inguruan dagoen aparkalekuan bakarrik aparkatu ahal izango da. Gainerako eremuan, larrialdietako, zaintzako eta mantentze-lanetako ibilgailuak bakarrik sar daitezke, eta basoen jabeak. Gainerako kasuetan, Udalaren baimena beharko da eremura ibilgailuz sartzeko.

19. artikulua.- Ikerketa

1.- Karakateko gailur-lerroko natura- eta kultura-ondarearen alderdi guztiak (ekologikoak, geologikoak, historikoak, etnografikoak, kirolekoak, sozialak, ekonomikoak...) hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten azterlanak egitea erraztu eta babestuko da, betiere ingurunearen natura- eta/edo kultura-balioak murrizten edo galtzen ez badira.

2.- Antolatutako eremuan egindako edozein azterlan edo ikerketa-proiekturen berri eman beharko zaio Udalari.

3.- Aztertu beharreko eremua edo beste edozein instalazio mota fisikoki mugatu behar bada, aldi baterako bakarrik egingo da eta Udalaren baimena beharko da.

4.- Ikerketa-lanak amaitu ondoren, horien kopia bat entregatuko da; azkenean, kopia hori Udalaren dokumentu- eta bibliografia-funtsean gordeko da.

20. artikulua.- Ingurumen- eta ondare-hezkuntza

Herritarren artean ingurumenarekin eta kulturarekin lotutako sentsibilizazio-kanpainak sustatuko dira, Karakateko Landa Parkearen aktibo naturalak ezagutarazteko.

21. artikulua.- Erabilera publikoko arauak

Landa-parkean egin beharreko erabilera edo jarduera dena dela, honako portaera-arau hauek bete beharko dira:

- a) Sarbidea debekatuta duten ibilbideak eta eremuak errespetatzea, baita seinaleak ere.
- b) Egokitu gabeko bidezidorrik ez hartzea. Seinalezatu gabeko bideetatik ez igarotzea.
- c) Txakurrarekin edo etxeko beste animalia batekin doazen pertsonak lotuta eraman beharko dituzte, eta horien jokabidearen eta eragin ditzaketen kalteen erantzule izango dira.

- d) Debekatuta dago sua piztea.
- e) Debekatuta dago paperak, plastikoak, latak eta bestelako hondakinak botatzea.
- f) Debekatuta dago elementu naturalak edo artifizialak hondatzen edo suntsitzen dituen ekintza oro (pintaketak, hausturak...).

22. artikulua.- Suteen prebentzioa

- 1.- Suteen prebentzioari dagokionez indarrean dagoen foru-araua aplikatuko da.
- 2.- Biztanleei zuzendutako baso-suteei buruzko informazio- eta hezkuntza-kanpainak sustatuko dira (arrazoiak, ondorioak, suteak nola prebenitu eta, baten aurrean egonez gero, nola jokatu).
- 3.- Eremu jakin bat kategoria jakin batean sartzea eragin zuten ingurumen-balioak sute bidez suntsitzen badira ere, eremua ez da babes txikiagoko beste kategoria batera igaroko, ez Plana indarrean dagoen bitartean ez hurrengo berrikuspenetan.
- 4.- Urteko kudeaketa-programek lehentasuna eman beharko diote aurreko ekitaldian suteen ondorioz zuhaitz-masak edo kontserbaziorako intereseko ekosistemak suntsitu diren lursail guztiak leheneratzeari.

4.2.3. HIRUGARREN KAPITULUA. ERABILEREN ERREGULAZIO ESPEZIFIKOA

23. artikulua.- Ingurumen-babesari buruzko erabilerak

1.- Parkearen eremuan egiten diren ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko jardueretan, eta ingurumena eta paisaia leheneratzeko esku-hartzeetan, ingeniariaritza biologikoko printzipioak eta teknikak aplikatuko dira, hala nola:

- a) Kalitateko eta, ahal izanez gero, inguruko landare-espezie autoktonoak erabiltzea (haziak eta landareak).
- b) Zuhaixa- eta belar-espezieak erabiltzea, ekosistemaren edo habitataren klimaxerako bilakaera ahalbidetzeko.
- c) Esku-hartzearen ezaugarriekin bat datozen teknika sinpleak edo mistoak hautatzea.
- d) Geldialdi begetatiboko aldia ereintzak eta landaketak egitea.

2.- Kultura-ondareko elementuen ingurunearen balioa nabarmentzeko eta kontserbatzeko jardueretan ere aplikatuko dira.

24. artikulua.- Aisiari eta jolasari buruzko erabilerak

1.- Mendi-ibiliak egiteko eta bizikletaz ibiltzeko barne-mugikortasuneko sarea osatzen duten bideek eta pistek behar bezala seinalatzatuta egon beharko dute erabiltzaileak orientatzeko eta bisitarien fluxua kontrolatzeko. Balio ekologiko handieneko zonetatik edo ingurumena leheneratzeko prozesuan dauden bideetatik igarotzen diren bideak ez dira seinalatzatuko, bisitarien presioa murrizteko.

2.- Planaren eremuan debekatuta dago motokrosak egitea eta quad-ak eta ibilgailu motordunak erabiltzea. Informazio hori informazio-paneletan jasoko da, Karakatera sartzeko bideetan.

3.- Paisaia ikusteko begiratokiak egokitu ahal izango dira, betiere inguruan ondo integratzen badira eta paisaiarekin bat datozen diseinuekin eta materialekin egiten badira.

4.- Eskalada egin ahal izango da, betiere indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen baimen guztiekin egiten bada, eta dagokion kirol-federazioak zehaztutako baldintzak betetzen badira.

Eskalada-guneetan edo inguruetan habia egiten duten hegaztien presentzia hautematen bada, eskalada debekatuko da ugaltze- eta umatze-garaietan.

25. artikulua.- Lehen sektoreko baliabideak ustiatzeari buruzko erabilerak

1.- Plan Bereziak abeltzaintza estentsiboko eta basogintzako erabilerak baimentzen ditu dokumentu honen Justifikazio Memoriaren 3.9.1 puntuko erabileren matrizean adierazitako antolamendu-kategorietan.

2.- Ahal izanez gero, basoberritzeak landare-espezie autoktonoekin egingo dira edo, berreskuratu beharreko habitaten zuhaixka-multzokoak izanik, baso autoktonoak garatzea ahalbidetzen duten beste espezie batzuekin.

3.- Zuhaitz-masen aprobetxamendu ekonomikoa egin ahal izango da, betiere basokudeaketa jasangarrian oinarrituz.

4.- Baso-soilketa berariaz debekatuta dago basogintzako teknika gisa.

5.- Plan Bereziak antolatutako eremuan berariaz debekatuta dago erauzketa-jarduera oro (harrobiak eta meategiak).

26. artikulua.- Azpiegiturei buruzko erabilerak

1.- Plan Bereziak debekatu egiten du asfaltatutako bide edo errepide berriak sortzea. Lehendik daudenak mantentzea eta horien aurreikusitako erabilera bakarrik baimentzen du.

2.- Plan Berezia baino maila handiagoko hierarkia-planek ezarritako bide berrien kasuan, ahalik eta gehien murriztu eta zuzendu beharko dira bide horietatik erator daitezkeen ingurumen-inpaktu negatiboak, eragindako lursailak barne hartzen dituen kategoriaren edo kategorien ezaugarriekin bat etorritz.

3.- Ezin da baso-bide eta -pista berririk sortu. Lehendik daudenak egokitzea eta mantentzea bakarrik baimenduko da, horiek erabiltzeko baldintza egokiak bermatzeko.

4.- Ezin izango da aireko edo lurpeko linea berririk jarri.

5.- Berariaz debekatuta daude honako instalazio hauek: ibilgailuak aire zabalean aparkatzeko azalera handiak (50 ibilgailu baino gehiago); edateko uren araztegiak eta ura tratatzeko instalazioak; urtegiak edo ur-biltegi handiak; energia elektrikoa ekoizteko zentralak; 100 metro koadrotik gorako azalera duten transformazio-estazioak; gasa biltzeko edo ekoizteko zentralak; hondakin solidoak arazteko eta tratatzeko instalazioak; eta erabilera publikoko eta ingurune fisikoan antzeko inpaktua duen beste edozein instalazio.

6.- Berriaz debekatuta daude honako instalazio hauek: irratiko, telebistako eta satellite bidezko komunikazio-dorreak, antenak eta estazio igorle eta hartzaileak; itsasargiak, irradi-faroak eta antzeko eragina duten beste komunikazio-instalazio batzuk. Kategoría honetan sartzen dira aparkaleku txikiak (50 ibilgailu baino gutxiago), baita haize-sorgailuak eta energia berriztagarrien beste instalazio batzuk ere (hidroelektrikoa, fotovoltaikoa, geotermia eta antzekoak), horien elementuen tamaina eta/edo kopurua denak direla. Erabilera eta jarduera guztiak daude debekatuta, Karakateko gaur egungo telekomunikazio-zentroa eta haren inguruko aparkalekua salbu, betiere bakoitzaren neurriak eta egungo kokalekuak mantentzen badira.

7.- KBAPB barruko eremuan debekatuta dago edozein isurketa egitea.

8.- KBAPB barruko eremuan debekatuta daude instalazio arriskutsuak.

27. artikulua.- Eraikuntza-erabilerak

1.- KBAPB barruko eremuan debekatuta daude eraikuntza-erabilera guztiak.

4.3.- Hirugarren titulua: ERABILERA ETA JARDUEREN ERREGULAZIOA, ANTOLAMENDU-KATEGORIEN ETA BALDINTZATZAILE GAINJARRIEN ARABERA

4.3.1. LEHEN KAPITULUA. BABES EKOLOGIKO BEREZIKO EREMUAK

28. artikulua.- Erabilera egokiak edo bokaziozkoak

Plan Berezi honen ondorioetarako, babes ekologiko bereziko eremuetan egokiak edo bokaziozkoak izango dira honako erabilera hauek:

- Kontserbazioa
- Ingurumen-hobekuntza
- Jarduera zientifiko-kulturalak

29. artikulua.- Erabilera onargarriak

Plan Berezi honen ondorioetarako, babes ekologiko bereziko eremuetan onargarriak izango dira honako erabilera hauek:

- Aisia estentsiboa
- Ehiza- eta arrantza-jarduerak
- Abeltzaintza-jardunbideak
- Baso-jardunbideak

30. artikulua.- Debekatutako erabilerak

Plan Berezi honen ondorioetarako, babes ekologiko bereziko eremuetan debekatuta egongo dira honako erabilera hauek:

- Aisia intentsiboaren egokitzapena eta erabilera
- Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak
- Nekazaritza-jardunbidea
- Nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Berotegiak
- Abeltzaintza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Baso-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Nekazaritza-industriak
- Erauzketa-jarduerak
- Garraiobideak
- Landa-bideak eta pistak
- Aireko lineak
- Lurpeko lineak
- A motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- B motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekua
- Lehendik dauden gunetan oinarritutako eraikuntza-hazkundeak
- Lehendik dauden gunetan oinarritzen ez diren eraikuntza-hazkundeak
- Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak
- Ustiapenari lotutako etxebizitza isolatua
- Ustiategiari lotu gabeko etxebizitza isolatua
- Instalazio arriskutsuak

4.3.2. BIGARREN KAPITULUA. BABES ZIENTIFIKO-KULTURAL BEREZIKO EREMUAK

31. artikulua.- Erabilera egokiak edo bokaziozkoak

Plan Berezi honen ondorioetarako, babes zientifiko-kultural bereziko eremuetan egokiak edo bokaziozkoak izango dira honako erabilera hauek:

- Kontserbazioa
- Ingurumen-hobekuntza
- Jarduera zientifiko-kulturalak

32. artikulua.- Erabilera onargarriak

Plan Berezi honen ondorioetarako, babes zientifiko-kultural bereziko eremuetan onargarriak izango dira honako erabilera hauek:

- Aisia estentsiboa
- Abeltzaintza-jardunbideak

33. artikulua.- Debekatutako erabilerak

Plan Berezi honen ondorioetarako, babes zientifiko-kultural bereziko eremuetan debekatuta egongo dira honako erabilera hauek:

- Aisia intentsiboaren egokitzapena eta erabilera
- Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak
- Ehiza- eta arrantza-jarduerak
- Nekazaritza-jardunbidea
- Nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Berotegiak
- Abeltzaintza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Baso-jardunbideak*
- Baso-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Nekazaritza-industriak
- Erauzketa-jarduerak
- Garraiobideak
- Landa-bideak eta pistak
- Aireko lineak
- Lurpeko lineak
- A motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- B motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekua

- Lehendik dauden guneean oinarritutako eraikuntza-hazkundeak
- Lehendik dauden guneean oinarritzen ez diren eraikuntza-hazkundeak
- Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak
- Ustiapenari lotutako etxebizitza isolatua
- Ustiapenari lotu gabeko etxebizitza isolatua
- Instalazio arriskutsuak

4.3.3. HIRUGARREN KAPITULUA. BASO-MENDI BABESLEAK

34. artikulua.- Erabilera egokiak edo bokaziozkoak

Plan Berezi honen ondorioetarako, baso-mendi babesleetan egokiak edo bokaziozkoak izango dira honako erabilera hauek:

- Ingurumen-hobekuntza
- Baso-jardunbideak

35. artikulua.- Erabilera onargarriak

Plan Berezi honen ondorioetarako, baso-mendi babesleetan onargarriak izango dira honako erabilera hauek:

- Kontserbazioa
- Jarduera zientifiko-kulturalak
- Aisia estentsiboa
- Ehiza- eta arrantza-jarduerak
- Abeltzaintza-jardunbideak
- Landa-bideak eta pistak

36. artikulua.- Debekatutako erabilerak

Plan Berezi honen ondorioetarako, baso-mendi babesleetan debekatuta egongo dira honako erabilera hauek:

- Aisia intentsiboaren egokitzea eta erabilera
- Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak
- Nekazaritza-jardunbidea
- Nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Berotegiak
- Abeltzaintza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Baso-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Nekazaritza-industriak

- Erauzketa-jarduerak
- Garraiobideak
- Aireko lineak
- Lurpeko lineak
- A motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- B motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekua
- Lehendik dauden guneeetan oinarritutako eraikuntza-hazkundeak
- Lehendik dauden guneeetan oinarritzen ez diren eraikuntza-hazkundeak
- Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak
- Ustiapenari lotutako etxebizitza isolatua
- Ustiapenari lotu gabeko etxebizitza isolatua
- Instalazio arriskutsuak

4.3.4. LAUGARREN KAPITULUA.

NATURA-INTERESEKO EREMUETAN DAUDEN BASO-MENDIETAKO EREMUAK

37. artikulua.- Erabilera egokiak edo bokaziozkoak

Plan Berezi honen ondorioetarako, natura-intereseko eremuetan dauden baso-mendietan egokiak edo bokaziozkoak izango dira honako erabilera hauek:

- Ingurumen-hobekuntza
- Baso-jardunbideak

38. artikulua.- Erabilera onargarriak

Plan Berezi honen ondorioetarako, natura-intereseko eremuetan dauden baso-mendietan onargarriak izango dira honako erabilera hauek:

- Kontserbazioa
- Jarduera zientifiko-kulturalak
- Aisia estentsiboa
- Ehiza- eta arrantza-jarduerak
- Abeltzaintza-jardunbideak
- Landa-bideak eta pistak

39. artikulua.- Debekatutako erabilerak

Plan Berezi honen ondorioetarako, natura-intereseko eremuetan dauden baso-mendietan debekatuta egongo dira honako erabilera hauek:

- Aisia intentsiboaren egokitzapena eta erabilera
- Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak
- Nekazaritza-jardunbidea
- Nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Berotegiak
- Abeltzaintza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Baso-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Nekazaritza-industriak
- Erauzketa-jarduerak
- Garraiobideak
- Aireko lineak
- Lurpeko lineak
- A motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- B motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekua
- Lehendik dauden gunetan oinarritutako eraikuntza-hazkundeak
- Lehendik dauden gunetan oinarritzen ez diren eraikuntza-hazkundeak
- Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak
- Ustiapenari lotutako etxebizitza isolatua
- Ustiapenari lotu gabeko etxebizitza isolatua
- Instalazio arriskutsuak

4.3.5. BOSGARREN KAPITULUA. INGURUMENAREN HOBEEKUNTZA EBOLUTIBOKO EREMUAK

40. artikulua.- Erabilera egokiak edo bokaziozkoak

Plan Berezi honen ondorioetarako, ingurumenaren hobekuntza ebolutiboko eremuetan egokiak edo bokaziozkoak izango dira honako erabilera hauek:

- Ingurumen-hobekuntza

41. artikulua.- Erabilera onargarriak

Plan Berezi honen ondorioetarako, ingurumenaren hobekuntza ebolutiboko eremuetan onargarriak izango dira honako erabilera hauek:

- Kontserbazioa
- Jarduera zientifiko-kulturalak
- Aisia estentsiboa

- Ehiza- eta arrantza-jarduerak
- Abeltzaintza-jardunbideak
- Baso-jardunbideak
- Landa-bideak eta pistak

42. artikulua.- Debekatutako erabilerak

Plan Berezi honen ondorioetarako, ingurumenaren hobekuntza ebolutiboko eremuetan debekatuta egongo dira honako erabilera hauek:

- Aisia intentsiboaren egokitzapena eta erabilera
- Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak
- Nekazaritza-jardunbidea
- Nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Berotegiak
- Abeltzaintza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Baso-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Nekazaritza-industriak
- Erauzketa-jarduerak
- Garraiobideak
- Aireko lineak
- Lurpeko lineak
- A motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- B motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekua
- Lehendik dauden gunetan oinarritutako eraikuntza-hazkundeak
- Lehendik dauden gunetan oinarritzen ez diren eraikuntza-hazkundeak
- Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak
- Ustiapenari lotutako etxebizitza isolatua
- Ustiapenari lotu gabeko etxebizitza isolatua
- Instalazio arriskutsuak

4.3.6. SEIGARREN KAPITULUA. BIRSORTZEKO ESKU HARTU BEHAR DIREN INGURUMEN-HOBEEKUNZAKO EREMUAK

43. artikulua.- Erabilera egokiak edo bokaziozkoak

Plan Berezi honen ondorioetarako, birsortzeko esku hartu behar diren ingurumen-hobekuntzako eremuetan egokiak edo bokaziozkoak izango dira honako erabilera hauek:

- Ingurumen-hobekuntza

44. artikulua.- Erabilera onargarriak

Plan Berezi honen ondorioetarako, birsortzeko esku hartu behar diren ingurumen-hobekuntzako eremuetan onargarriak izango dira honako erabilera hauek:

- Kontserbazioa
- Jarduera zientifiko-kulturalak
- Aisia estentsiboa
- Ehiza- eta arrantza-jarduerak
- Abeltzaintza-jardunbideak
- Baso-jardunbideak
- Landa-bideak eta pistak

45. artikulua.- Debekatutako erabilerak

Plan Berezi honen ondorioetarako, birsortzeko esku hartu behar diren ingurumen-hobekuntzako eremuetan debekatuta egongo dira honako erabilera hauek:

- Aisia intentsiboaren egokitzapena eta erabilera
- Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak
- Nekazaritza-jardunbidea
- Nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Berotegiak
- Abeltzaintza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Baso-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Nekazaritza-industriak
- Erauzketa-jarduerak
- Garraiobideak
- Aireko lineak
- Lurpeko lineak
- A motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- B motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekua
- Lehendik dauden gunetan oinarritutako eraikuntza-hazkundeak
- Lehendik dauden gunetan oinarritzen ez diren eraikuntza-hazkundeak
- Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak
- Ustiapenari lotutako etxebizitza isolatua
- Ustiapenari lotu gabeko etxebizitza isolatua
- Instalazio arriskutsuak

4.3.7. ZAZPIGARREN KAPITULUA. LUR GAINEKO IBILGUAK BABESTEKO ZONAK

46. artikulua.- Erabilera egokiak edo bokaziozkoak

Plan Berezi honen ondorioetarako, lur gaineko ibilguak babesteko zonetan egokiak edo bokaziozkoak izango dira honako erabilera hauek:

- Kontserbazioa
- Ingurumen-hobekuntza
- Jarduera zientifiko-kulturalak

EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSaren B.1. atalean ezarritakoa kontuan hartuta, lur gaineko urak babesteko zona horietako erabileren erregulazioa osagarria izango da Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSak ubideen alde bakoitzean 100 metroko zabalerako bandaren gainean zehaztutako irizpideekiko.

47. artikulua.- Erabilera onargarriak

Plan Berezi honen ondorioetarako, lur gaineko ibilguak babesteko zonetan onargarriak izango dira honako erabilera hauek:

- Aisia estentsiboa
- Ehiza- eta arrantza-jarduerak
- Abeltzaintza-jardunbideak
- Baso-jardunbideak
- Landa-bideak eta pistak

EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSaren B.1. atalean ezarritakoa kontuan hartuta, lur gaineko urak babesteko eremu horietako erabileren erregulazioa osagarria izango da Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LAPak ubideen alde bakoitzean 100 metroko zabalerako bandaren gainean zehaztutako irizpideekiko.

48. artikulua.- Debekatutako erabilerak

Plan Berezi honen ondorioetarako, lur gaineko ibilguak babesteko zonetan debekatuta egongo dira honako erabilera hauek:

- Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak
- Nekazaritza-jardunbidea
- Nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Berotegiak
- Abeltzaintza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Baso-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Nekazaritza-industriak
- Erauzketa-jarduerak
- Garraiobideak
- Aireko lineak
- Lurpeko lineak
- A motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- B motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekua
- Lehendik dauden gunetan oinarritutako eraikuntza-hazkundeak
- Lehendik dauden gunetan oinarritzen ez diren eraikuntza-hazkundeak
- Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak
- Ustiapenari lotutako etxebizitza isolatua
- Ustiapenari lotu gabeko etxebizitza isolatua
- Instalazio arriskutsuak

EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSaren B.1. atalean ezarritakoa kontuan hartuta, lur gaineko urak babesteko zona horietako erabileren erregulazioa osagarria izango da Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSak ubideen alde bakoitzean 100 metroko zabalerako bandaren gainean zehaztutako irizpideekiko.

4.3.8. ZORTZIGARREN KAPITULUA. ERABILERA PUBLIKOKO ZONAK ETA AZPIEGITURAK. APARKALEKUAREN INGURUA

49. artikulua.- Erabilera egokiak edo bokaziozkoak

Plan Berezi honen ondorioetarako, erabilera publikoko zonetan eta azpiegituretan ez dago erabilera egokirik edo bokaziozkorik.

50. artikulua.- Erabilera onargarriak

Plan Berezi honen ondorioetarako, erabilera publikoko zonetan eta azpiegituretan onargarriak izango dira honako erabilera hauek:

- Ingurumen-hobekuntza
- Aisia intentsiboaren egokitzapena eta erabilera
- Aisia estentsiboa

- Ehiza- eta arrantza-jarduerak
- Garraiobideak
- Landa-bideak eta pistak

51. artikulua.- Debekatutako erabilerak

Plan Berezi honen ondorioetarako, erabilera publikoko zonetan eta azpiegituretan debekatuta egongo dira honako erabilera hauek:

- Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak
- Aireko lineak
- Lurpeko lineak
- A motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- B motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekua
- Lehendik dauden gunetan oinarritutako eraikuntza-hazkundeak
- Lehendik dauden gunetan oinarritzen ez diren eraikuntza-hazkundeak
- Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak
- Ustiapenari lotutako etxebizitza isolatua
- Ustiapenari lotu gabeko etxebizitza isolatua
- Instalazio arriskutsuak

4.3.9. BEDERATZIGARREN KAPITULUA. ERABILERA PUBLIKOKO ZONAK ETA AZPIEGITURAK. BIDEAK ETA BIDEZIDORRAK

52. artikulua.- Erabilera egokiak edo bokaziozkoak

Plan Berezi honen ondorioetarako, erabilera publikoko zonetan eta azpiegituretan egokiak edo bokaziozkoak izango dira honako erabilera hauek:

- Landa-bideak eta pistak

53. artikulua.- Erabilera onargarriak

Plan Berezi honen ondorioetarako, erabilera publikoko zonetan eta azpiegituretan onargarriak izango dira honako erabilera hauek:

- Kontserbazioa
- Ingurumen-hobekuntza
- Jarduera zientifiko-kulturalak
- Aisia estentsiboa
- Ehiza- eta arrantza-jarduerak
- Abeltzaintza-jardunbideak

54. artikulua.- Debekatutako erabilerak

Plan Berezi honen ondorioetarako, erabilera publikoko zonetan eta azpiegituretan debekatuta egongo dira honako erabilera hauek:

- Aisia intentsiboaren egokitzapena eta erabilera
- Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak
- Garraiobideak
- Aireko lineak
- Lurpeko lineak
- A motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- B motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekua

4.3.10. HAMARGARREN KAPITULUA. BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK. ARRISKU GEOLOGIKOAK

55. artikulua.- Erabilera egokiak edo bokaziozkoak

Plan Berezi honen ondorioetarako, arrisku geologikoen baldintzatzailer gainjarriak dituzten eremuetan egokiak edo bokaziozkoak izango dira honako erabilera hauek:

- Ingurumen-hobekuntza
- Baso-jardunbideak

56. artikulua.- Erabilera onargarriak

Plan Berezi honen ondorioetarako, arrisku geologikoen baldintzatzailer gainjarriak dituzten eremuetan onargarriak izango dira honako erabilera hauek:

- Kontserbazioa
- Jarduera zientifiko-kulturalak
- Aisia estentsiboa
- Ehiza- eta arrantza-jarduerak
- Abeltzaintza-jardunbideak
- Landa-bideak eta pistak

57. artikulua.- Debekatutako erabilerak

Plan Berezi honen ondorioetarako, arrisku geologikoen baldintzatzailer gainjarriak dituzten eremuetan debekatuta egongo dira honako erabilera hauek:

- Aisia intentsiboaren egokitzapena eta erabilera
- Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak
- Nekazaritza-jardunbidea
- Nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Berotegiak
- Abeltzaintza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Baso-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Nekazaritza-industriak
- Erauzketa-jarduerak
- Garraiobideak
- Aireko lineak
- Lurpeko lineak
- A motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- B motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekua
- Lehendik dauden gunetan oinarritutako eraikuntza-hazkundeak
- Lehendik dauden gunetan oinarritzen ez diren eraikuntza-hazkundeak
- Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak
- Ustiapenari lotutako etxebizitza isolatua
- Ustiapenari lotu gabeko etxebizitza isolatua
- Instalazio arriskutsuak

4.3.11. HAMAIKAGARREN KAPITULUA. KLIMA- ALDAKETAREKIN LOTUTAKO BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK

58. artikulua.- Erabilera egokiak edo bokaziozkoak

Plan Berezi honen ondorioetarako, klima-aldaketarekin lotutako baldintzatzaile gainjarriak dituzten eremuetan egokiak edo bokaziozkoak izango dira honako erabilera hauek:

- Ingurumen-hobekuntza

59. artikulua.- Erabilera onargarriak

Plan Berezi honen ondorioetarako, klima-aldaketarekin lotutako baldintzatzaile gainjarriak dituzten eremuetan onargarriak izango dira honako erabilera hauek:

- Kontserbazioa
- Jarduera zientifiko-kulturalak
- Aisia estentsiboa

- Ehiza- eta arrantza-jarduerak
- Abeltzaintza-jardunbideak
- Baso-jardunbideak
- Garraiobideak
- Landa-bideak eta pistak

60. artikulua.- Debekatutako erabilerak

Plan Berezi honen ondorioetarako, klima-aldaketarekin lotutako baldintzatzaile gainjarriak dituzten eremuetan debekatuta egongo dira honako erabilera hauek:

- Aisia intentsiboaren egokitzapena eta erabilera
- Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak
- Nekazaritza-jardunbidea
- Nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Berotegiak
- Abeltzaintza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Baso-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Nekazaritza-industriak
- Erauzketa-jarduerak
- Aireko lineak
- Lurpeko lineak
- A motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- B motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekua
- Lehendik dauden gunetan oinarritutako eraikuntza-hazkunderak
- Lehendik dauden gunetan oinarritzen ez diren eraikuntza-hazkunderak
- Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak
- Ustiapenari lotutako etxebizitza isolatua
- Ustiapenari lotu gabeko etxebizitza isolatua
- Instalazio arriskutsuak

4.3.12. HAMABIGARREN KAPITULUA. KORRIDORE EKOLOGIKOEI ETA NATURA-INTERESEKO BESTE EREMU BATZUEI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

61. artikulua.- Erabilera egokiak edo bokaziozkoak

Plan Berezi honen ondorioetarako, korridore ekologikoei eta natura-intereseko beste eremu batzuei gainjarritako baldintzatzaileak dituzten eremuetan egokiak edo bokaziozkoak izango dira honako erabilera hauek:

- Kontserbazioa
- Ingurumen-hobekuntza
- Jarduera zientifiko-kulturalak

62. artikulua.- Erabilera onargarriak

Plan Berezi honen ondorioetarako, korridore ekologikoei eta natura-intereseko beste eremu batzuei gainjarritako baldintzatzaileak dituzten eremuetan onargarriak izango dira honako erabilera hauek:

- Aisia estentsiboa
- Ehiza- eta arrantza-jarduerak
- Abeltzaintza-jardunbideak
- Baso-jardunbideak
- Garraiobideak
- Landa-bideak eta pistak

63. artikulua.- Debekatutako erabilerak

Plan Berezi honen ondorioetarako, korridore ekologikoei eta natura-intereseko beste eremu batzuei gainjarritako baldintzatzaileak dituzten eremuetan debekatuta egongo dira honako erabilera hauek:

- Aisia intentsiboaren egokitzapena eta erabilera
- Aisia intentsiboari lotutako eraikuntzak eta instalazio handiak
- Nekazaritza-jardunbidea
- Nekazaritza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Berotegiak
- Abeltzaintza-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Baso-ustiapenari lotutako eraikuntzak
- Nekazaritza-industriak
- Erauzketa-jarduerak
- Aireko lineak
- Lurpeko lineak
- A motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- B motako zerbitzuko instalazio teknikoak
- Hondakindegia eta hondakin solidoak uzteko lekua
- Lehendik dauden gunetan oinarritutako eraikuntza-hazkundeak

- Lehendik dauden gunetan oinarritzen ez diren eraikuntza-hazkundeak
- Erabilgarritasun publikoko eta interes sozialeko eraikinak
- Ustiapenari lotutako etxebizitza isolatua
- Ustiapenari lotu gabeko etxebizitza isolatua
- Instalazio arriskutsuak



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO



5

Antolamendurako eta
kudeaketarako gidalerroak



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

5.1.- KUDEAKETA ETA JARDUKETA-SISTEMAK

Plan Bereziaren eremuan desjabetzea da jarduketa-sistema.

Oro har, Plan Berezi honen helburuak garatzeko Udalak egokitzat jotzen dituen lursail pribatuak desjabetu ahal izango ditu.

Administrazio-hitzarmenak ere egin ahal izango dituzte Udalak edo administrazio publikoek.

5.2.- PROPOSATUTAKO JARDUKETAK GAUZATZEKO EPEAK

Ez da beharrezkoa jarduketak gauzatzeko epeak zenbatatea, Plan Bereziak jarduketa bakar bat jasotzen baitu: Karakateko Landa Parkea babestea eta antolatzea.

5.3.- JARDUKETAK LEHENESTEA

Ez da beharrezkoa jarduketak lehenestea, Plan Bereziak jarduketa bakar bat jasotzen baitu: Karakateko Landa Parkea babestea eta antolatzea.



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO



6

**Ekonomia- eta finantza-
bideragarritasunaren
azterketa**



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

6.1.- EKONOMIA- ETA FINANTZA-BIDERAGARRITASUNA

Beharrezkoa da ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa bat egitea, ez bakarrik legeak hala eskatzen duelako, baizik eta Plan Bereziak proposatzen dituen aurreikuspenak benetan egingarriak diren jakiteko, teknikaren eta ingurumenaren aldetik nahiz ikuspegi juridikotik, eta ekonomiaren eta finantzen ikuspegitik.

Azterketa hori mota guztietako esku-hartzeetarako egin beharko da: publikoak nahiz pribatuak –baita lurzoru urbanizaezinean egiten badira ere–, bere osotasunean kudeatu ala ez, sistema baten edo bestearen bidez, eta denbora jakin batean gauzatu behar diren edo ez kontuan hartu gabe.

Ikuspegi ekonomikoak planteatutako esku-hartzeek eragindako kostuak ebaluatzen eta kuantifikatzen lagundu beharko digu, baita horietatik eratorritako etekin ekonomikoak ere.

Hala ere, kostuen ebaluazio horretan hirigintza-osagairen bat dutenak bakarrik hartuko ditugu kontuan. Era berean, hirigintza-arloko eraldaketak sortzen dituen kostuak eta onurak ebaluatzen saiatuko gara. Izan ere, ebaluazioan kontuan izan beharreko aldagai bakarra eragiketarako beharrezkoak diren lurzoruen balioa da.

Planak proposatutako esku-hartzeen hasierako karakterizazioak, azterketaren planteamendua konfiguratzen duten elementuek eta garatzen den metodologia zehatzak planaren bideragarritasunari buruzko diagnostiko bat egitea dute xede, baita planaren jasagarritasun ekonomikoaren kontzeptu zabalago bati buruzkoa ere.

6.1.1. SARRERA

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 22. artikularen 4. eta 5. puntuen arabera, hirigintza-eraldaketako jarduketak antolatzeko tresnek honako hauek jaso beharko dituzte:

1.- Ekonomia-jasagarritasunari buruzko txosten edo memoria bat sartu beharko da:

- a) Txosten edo memoria horretan, bereziki neurtuko da beharrezko azpiegiturak ezarri eta mantentzeak nahiz haien ondoriozko zerbitzuak martxan jarri eta emateak ukitu dituen ogasun publikoetan jarduketak izandako inpaktua.
- b) Eta ekoizpen-erabileretarako xedaturiko lurzorua aski eta egokia den.

2.- Bideragarritasun ekonomikoa (errentagarritasunari dagokionez) bermatuko duen memoria; kontserbatzeko lege-eginbeharraren mugak betetzen dituela eta jarduketak eragindako onuren eta kargen arteko oreka jardun-eremuan sartutako jabeentzat egokia dela ere bermatu behar da.

6.1.2. KBAPBren IZAERA ARAUTZAILTIK ERATORRITAKO ONDORIOAK

Antolamenduaren aurrekariak eta ezaugarriak xehetasunez azaltzen dira KBAPBren Justifikazio Memorian.

Kapitulu honen helburu nagusia hirigintzako legedia betetzen laguntzea da, ekonomia-eta finantza-ikuspegitik.

Jasangarritasun ekonomikoaren azterketari dagokionez, txostenean une oro hartu behar da kontuan Plan Bereziaren xedea erabilerak arautzea dela, kasu honetan, Elgoibarko HAPOn “Landa Parke” gisa jasotzen den lurzoru urbanizaezineko eremu batean; azken finean, hura kontserbatzea eta babestea da helburua.

Azpimarratu behar da, eragindako lurzoruaren jabetzari buruzko atalekin bat etorritik, ez dela erabilera berririk ezarri.

Planak natura-balio handiko gune hau babesteko eta antolatzeko premia espezifikoki erantzuten dio. Horrenbestez, eta haren bideragarritasun ekonomikoa justifikatze aldera, argudio hori nahikoa litzateke inbertsiorik eza balioztatzeko, eta Planetik eratorritako errentagarritasuna, onurak eta kargak bermatzeko, lurzoruaren jabe den ondare pribatuari nahiz haren erabilera eta gozamen publikoari dagokionez.

Hala ere, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginaren 22.5 artikulua araberan, dokumentuak errentagarritasunaren bideragarritasuna aztertzen du, arestian aipatutako irizpideak eta metodologia kontuan hartuta.

6.1.3. JASANGARRITASUN EKONOMIKOAREN

TXOSTENA EDO MEMORIA

KBAPBren izaera dela eta, Planaren jarduketek ez dute inolako eraginik eragindako ogasun publikoetan. Horrenbestez, ez da beharrezkoa horien finantzaketa eta mantentzea ziurtatzeko behar den gaitasun publikoa ebaluatzea.

Lurzoru osoa kontserbazio-lanetarako eta produkzio-erabilera tradizionaletarako erabiliko da, lurzoru urbanizaezineko jarduera ekonomikoetarako, hain zuzen ere. Horrela, bada, ez du zentzurik nahikotasunaren eta erabilera horrekiko egokitzapenaren azterketa egiteak.

6.1.4. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA

Arestian esan bezala, KBAPBk natura-balio handiko gune hau babesteko eta antolatzeko premia espezifikuari erantzuten dio. Bertan:

- Ez dago aurreikusita inbertsio publikorik, hura babesteko, mantentzeko eta kontserbatzeko lanetatik erator daitekeena salbu, lurzoruaren jabetzarekin bat etorritik.
- Ez dago aurreikusita inbertsio pribaturik, hura babesteko, mantentzeko eta kontserbatzeko lanetatik erator daitekeena salbu, administrazio publikoekin bat etorritik.
- Jarduketa-eremuan ez dago kalte-ordaina jaso dezakeen lurzoruaz besteko ondasun edo eskubiderik.
- Ez dago aurreikusita zerbitzuak ematen dituen enpresa bakar batek parte hartzea, hura babesteko, mantentzeko eta kontserbatzeko lanetatik erator daitezkeenak salbu, lurzoruaren jabeekin eta/edo administrazio publikoekin bat etorritik.

6.1.5. JARDUKETEN BURUZKO ONDORIOAK

EKONOMIA-JASANGARRITASUNARI

Laburbilduz, KBAPBk ia ez du eragin zuzenik izango udalaren lurzoru-ondarean eta udalaren ogasun publikoan.

Dena den, Landa Parkearen eremua babestu, kontserbatu eta antolatzeak zeharkako onura ekonomikoak sor ditzake Elgoibarko biztanleen artean, eta onura ukiezinak ere bai bertako biztanleen eta gune pribilegiatu horretaz gozaten duten guztien bizikaltatean.

Ondorio positibo horiek ezin dira ebaluatu ekonomikoki, noski, eta ezin dira behar bezala aztertu, horiek balioestea oso zaila delako eta dokumentu honek duen irismenagatik.



7

Herritarren parte-hartzea



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

7.1- HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA BAT EZARRI BEHARRIK EZA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 108. artikulua eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren (lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena) 3. artikulua aplikatuz, **egiturazko hirigintza-antolamenduko tresna guztiak partaidetza-programa bat izan beharko dute.**

Dagokigun kasu zehatzean, Plan Berezi bat denez –**antolamendu xehatuko tresna** bat–, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 32.6 artikulua aplikatuz, auzo finkatuei eragiten dieten eta eragindako biztanleriari eragiten dioten hiri-berroneratzeko plan bereziek soilik izan beharko dute herritarren partaidetzarako programa bat.

Beraz, dokumentu honen xede den **Karakateko Landa Parkeko lurzoru urbanizaezina babesteko eta antolatzeko Plan Bereziak ez du herritarren partaidetzarako programa bat izateko lege-betebeharrik.**



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO



8

Hizkuntza-inpaktua



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

8.1.- SARRERA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.7 artikulua arabera, «udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen» plan eta proiektuetan nahitaezkoa izango da euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezakeen inpaktua ebaluatzea.

Lege hori azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak garatu du (Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeko), eta ebaluatu behar diren planak eta proiektuak arautzen ditu 50. artikuluan eta hurrengoetan, baita plan edo proiektu bakoitzean baloratu behar diren prozedura eta adierazleak ere.

8.2.- PLANA HIZKUNTZA-INPAKTUAREN PROZEDURAREN MENDE JARRI BEHARRIK EZA

Azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 50.1.a) artikulua hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa behar duten hirigintza-planak zerrendatzen ditu. Honako hauek dira:

- Hiri-antolamenduko plan orokorrak.
- Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana.
- Sektorizatzeko plana.
- Plangintzako arau subsidiarioak.
- Plan partzialak.
- Hiri-antolamenduko plan bereziak.
- Turismo-planak.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 70. artikulua honela definitzen ditu hiri-antolamenduko plan orokorrak:

«Plan orokorraren egiturazko antolamendua garatzea da hiri antolatzeko plan bereziaren xedea, eta hori, hain zuzen, plan orokorrak egiturazko antolamendua

atzeratzea baimentzen duen hiri-lurzoruko eremuetan antolamendu xehatua ezarrita egiten du. Hiri-lurzoruari buruz plan orokorraren agirietan jasotako antolamendu xehatua aldatzeko ere erabil daiteke hiria antolatzeko plan berezia».

Plangintza-dokumentu hau **Lurzoru Urbanizaezina** –eta ez hiri-lurzorua– **Antolatzeko eta Babesteko Plan Berezia da**, eta beraz, **EZ du behar hizkuntza-inpaktuaren ebaluaziorik.**



9

Generoaren eragina



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

9.1- GENEROAREN IKUSPEGITIK GARRANTZIRIK EZ IZATEAREN JUSTIFIKAZIOA

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna printzipio juridiko unibertsal bat da eta nazioarteko nahiz tokiko hainbat lege-testutan jasotzen da. Euskal Autonomia Erkidegoan, honako hau dio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.1 artikulua: *«Arauk garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-agintek modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua».*

Era berean, honako hau dio Lege beraren 19. artikuluko 1. apartatuak: *«Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeke eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean».*

Agindu hori eraginkorra izateko, 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22.era bitartekoek prozedura bat aurreikusten dute administrazio publikoen mendeko edo horiekin lotutako sektore, erakunde autonomo eta erakunde publikoetan. Era berean, 19.2 artikuluan eta zortzigarren azken xedapenean jasotzen den moduan, Eusko Jaurlaritzak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak proposatuta, arauak edo jarraibideak onartu behar ditu, aurreko paragrafoetan aipatutako generoaren araberako eragina aurrez ebaluatzeko jarraitu behar diren jarraibideak adierazteko, baita ebaluzioa eta 19. artikulutik 22. artikulura aurreikusitako gainerako izapideak egin beharretik kanpo geratzen diren arauak edo administrazio-egintzak ere.

Legearen 46.1 artikulua honako hau dio: *«Euskal herri-agintek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, (...)».*

Bestalde, 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriari buruzkoak, honako hau jasotzen du 31.3 artikuluan: *«Administrazio publikoek, hiria diseinatzean, hirigintzako politiketan eta hirigintza-plangintza zehaztu nahiz betetzean, kontuan hartuko dute genero-ikuspegia; horretarako, bereziki, herritarren partaidetza eta gardentasuna suspertu eta ahalbidetzeko mekanismoak eta tresnak erabiliko dituzte».*

Horrela, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2012ko abuztuaren 21ean egindako bilkuran, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren 40/2012 EBAZPENA onartu zuen, abuztuaren 21ekoa, *«genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoa»*.

Lehenengo jarraibidean –«Generoaren Araberako Eraginari buruzko Txostena»– jasotzen denez, xedapen orokorretarako proiektuek, hau da, lege- edo erregelamendu-maila duten arau juridikoen proiektuek, generoaren araberako eraginari buruzko txostenarekin batera joan behar dute, honako hauek izan ezik:

«a) **Generoaren ikuspuntutik garrantzirik ez dutenak, dela emakumeen eta gizonen egoeran eraginik ez dutelako, dela eragin hori hutsaren hurrengoa delako**; horrelakoen artean egongo dira betiere **herritarren eskubideetan eta bidezko interesetan inolako eraginik ez duten** proiektuak».

KBAPBren kasu zehatzean, Karakateko Landa Parkea lurzoru urbanizaezinean antolatzeko eta babesteko dokumentua da, haren ekologia-, ingurumen- eta ondare-balioetan eragingo ez dela bermatzekoa.

9.2.- GENEROAREN IKUSPEGITIK BERDINTASUNA SUSTATZEKO KBAPBbean AINTZAT HARTZEN DIREN ALDERDIAK

Proiektu honetan ez da beharrezkoa Generoaren Araberako Eraginari buruzko Txostena egitea. Hala ere, Landa Parkeko balio naturalak eta kulturalak balioztatze eta zabaltzeko, haren hedapen, dibulgazio eta seinaleek berdintasunezkoak izan behar dute, irudi estereotipatu edo sexista oro ezabatzeko.



10

Planoak



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

10.1.- INFORMAZIO MEMORIA


Plan Bereziaren izaera eta diagnostikoa eguneratu beharra kontuan hartuta, argitaratutako dokumentu berrietan eta kartografiaren eguneraketan oinarrituta, informazio-kartografia hau gehitu da:

- 01.- Kokapena
- 02.- Ortoargazkia
- 03.- Antolatzeko Ingurumen Unitateak (HAPO)
- 04.- Lurzatiak
- 05.- Karakateko Landa Parkearen eremua
- 06.- Topografikoa
- 07.- Maldak
- 08.- Litologia
- 09.- Litologia 2
- 10.- Interes geologikoko lekuak
- 11.- Hidrogeologia
- 12.- Iragazkortasuna
- 13.- Akuiferoen zaugarritasuna
- 14.- Edafologia
- 15.- Agrologikoa
- 16.- Landaredi potentziala
- 17.- Basoen mapa. Erabilerak
- 18.- Basoen mapa. Espezieak
- 19.- Habitatak
- 20.- Faunaren babesa
- 21.- Interes-guneak
- 22.- Korridore ekologikoak
- 23.- Geoteknikoa
- 24.- Lerradura-arriskua
- 25.- Benetako higadura
- 26.- Higadura-arriskua
- 27.- Sute-arriskua
- 28.- Sentikortasun eolikoa
- 29.- Sentikortasun fotovoltaikoa
- 30.- Paisaia-unitateak
- 31.- Ondare arkeologikoa
- 32.- LPP Babestu beharreko eremuak
- 33.- Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPS
- 34.- Nekazaritza eta Basozaintzako LPS

10.2.- JUSTIFIKAZIO MEMORIA

Plan Bereziaren izaera dela eta, honako antolamendu-kartografia hau gehitu da:

- 01.- Antolamendu-kategoriak
- 02.- Baldintzatzaile gainjarriak 1
- 03.- Baldintzatzaile gainjarriak 2
- 04- Baldintzatzaile gainjarriak 3
- 05.- Baldintzatzaile gainjarriak 4



Stua.: Raoul Servert
Geografoa
Elkargoko zk.: 2780

Donostian, 2023ko urtarrilaren 17an



Stua.: Nekane Azarola
Abokatua
Elkargoko zk.: 2520



Stua.: Elena Alonso
Biologoa
Elkargoko zk.: 1815



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO